

Euskara



**Bizikidetzeta eta
gizarte-kohesioa
indartzen ditugu**

Esther Giménez-Salinas i Colomer

Alberto José Olalde Altarejos

Mònica Albertí i Cortés

Ana Ruiz-Sánchez (coord.)

**UNIBERTSITATE | ESPAINIAN GARATZEKO
ERRESTAURATIBOAK | OINARRIZKO GIDA**

LEHEN EDIZIOA

UNIBERTSITATE ERRESTAURATIBOAK | ESPAINIAN GARATZEKO OINARRIZKO GIDA

Koordinazioa

Ana Ruiz-Sánchez (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa)

Egileak

Esther Giménez-Salinas i Colomer (Kataluniako Sindic de Greuges)

Alberto José Olalde Altarejos (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Mònica Albertí i Cortés (Kultura Errestauratiboa SCP)

Ana Ruiz-Sánchez (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa)

Berrikuspena

Carmen Almendros (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Bizikidetza Batzordeko kidea)

Amalio Blanco (Psikologia Sozialeko katedraduna, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa)

Clara Casado Coronas (Aholkularia, Kataluniako Sindic de Greuges)

Elena Maculan (Idazkari Nagusia, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala)

Mariano Melendo Pardos (Prebentzioko, Gatazkak Konpontzeko eta Ikuskaritzako Zentroko zuzendariordea, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala)

Manuel Pérez Mateos (Burgosko Unibertsitateko errektorea)

Javier de la Torre Ortega (Idazkaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren zuzendaria, Euskal Herriko Unibertsitatea)

Teresa Sancho (Unibertsitateko Arartekoa, Kataluniako Unibertsitatea)

GIDA HAU NOLA AIPATU

Giménez-Salinas, E., Olalde, A.J., Albertí, M., Ruiz-Sánchez, A. (2024). Unibertsitate errestauratiboak: Espainian garatzeko oinarrizko gida. Bizikidetza Itunaren Plataforma.

ISBN: 978-84-09-65792-6

© Pacto de Convivencia y autores. Madril, 2024

Lizentzia [Creative Commons Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0 International - CC BY-NC-SA 4.0](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/)



Bizikidetza Ituna irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundea da. Informazio gehiago, hemen: <https://pactodeconvivencia.org/>


LABURPENA

Gida honetan proposamen bat aurkeztuko dugu. Unibertsitateen antolamendua aldatu, eta kultura errestauratibo baterantz joan nahi dugu eta, horretarako, Espainiako errealitate akademiko eta soziala hartuko dugu aintzat. Gure iritziz, gatazkak egoki kudeatuz hazten eta sendotzen da gizartea, eta uste hori dago gure proposamenaren abiapuntuan. Kultura errestauratibo horrek guk sortzen dugun kaltearen erantzukizunari heltzen dio, eta, «kaltea egiten duenak kaltea ordaindu behar du» printzipio ezaguna baino askoz ere eraikitzaileagoa den beste honetarantz eramaten gaitu: «kaltea egiten duenak kaltea erreparatu behar du». Era berean, kultura errestauratiboak begirada zabaltzen du, zenbait fasetan lantzen baitu gatazka: probentzioaren fasean —gatazka bati aurre egiteko zer prestatu dezakegun, neurritz igo eta gainezka eginen digun krisi bat piztu baino lehen—, fase erresponentsiboan —gatazkaren bitartean eta ondoren erantzun errestauratiboak ematea— eta ondoren egin beharreko jarduera berrintegratzaileetan.

Gida honek lagundu egin nahi die unibertsitateei Espainiako Unibertsitateetako Bizikidetzari buruzko otsailaren 24ko 3/2022 Legea betetzeko hartu behar dituzten erabakietan. Hain zuzen ere, lege horren bidez indargabetu zen 1954ko diziplina-araudia, diktaduran sortutakoa. Lege berriak, bitartekaritza erabiltzea eta zigorraren ordeztu beste neurri batzuk baliatzea proposatzen duenez, atea irekitzen dio ikuspegi errestauratiboa abian jartzeari. Biktimak eta arau-hausleak modu osagarrian artatzeko aukera zabaltzen du, batez ere instituzionalki aitortu gabeko asimetria morala duten gatazketan.

Gidaren edukia hamar kapitulutan egituratuta dago: Espainiako unibertsitateek gaur egun duten erronkari testuingurua ematen dion sarrera; Espainiako eta nazioarteko hezkuntza-ereduetan dauden aurrekari errestauratiboen azalpena; proposatutako eredia funtsatzen duten justizia errestauratiboen oinarrien deskribapen laburra; ikuspegi errestauratiboaren kokapen

juridikoa Espainiako 3/2022 Bizikidetza Legearen esparruan; ikuspegi errestauratiboa modu transbertsalean ezartzeko proposamen zehatza, bere DNA instituzionalean kultura errestauratibo berri bat txertatu nahi duen unibertsitate batean, ekintza-mailak eta bi tresna espezifiko deskribatuz: Kultura Errestauratiboaren Plan Zuzentzailea (CURE) eta Gatazka Errestauratiboki Lantzeko Programa (ARCO); praktika eta prozesu errestauratiboen errepertorioa, abordatze-mailen arabera sailkatuta; Kultura Errestauratiboaren Plan Zuzentzailerako ehun adierazleren zerrenda; bibliografia zabala; azaldutakoan sakontzeko baliabideen zerrenda interesgarria; eta unibertsitateko komunitateari gonbidapena, elkarriketari eusteko.



Hitzaurrea

Zenbait erakundek osatzen dute Bizikidetza Ituna plataforma. Erakunde horiek Espainiako gizarte zibilaren luze-zabala ordezkatzan dute, eta gizarte horretako bizikidetza eta kohesioa indartzea dute helburu. Badakigu indarkeria- eta bazterkeria-mota ororen kontrako antidotorik onena gizarte plural eta barneratzaile bat dela. Giza Eskubideekin konprometitutako gizarte bat behar dugu, gatazkei indarkeria-ezatik helduko diena. Plataforma martxoko goiz batean sortu zen, esperientzia terroristari erantzuteko. Goiz hartan, sarritan elkarren kontra dauden pentsamoldeak ordezkatzan dituzten erakundeek itun bat sinatu zuten, eta bizikidetzaren alde lan egiteko eta indarkeria-mota ororen biktimak egunero omentzeko konpromisoa hartu zuten elkarrekin.

Crue Universidades Españolas sare horren parte da hasiera-hasieratik, eta buru-belarri dihardu indarkeria prebenitzeko estrategiak batera diseinatzen, baita tolerantzia, bizikidetza, bakea eta adiskidetzeari sustatzeko estrategiak marrazten ere. Unibertsitateak badu misio sozial bat, baina, horrez gain, kontuan hartu behar dugu ia bi milioi pertsonak osatzen dutela urtero unibertsitate-komunitatea (Crue 2023); alegia, unibertsitateen lana funtsezkoa eta ordezkazina da mota guztietako gatazkei aurre egiteko kultura berri baten garapenean. Eta ez bakarrik unibertsitateko bizitzari eta barne-diziplinari heltzeko moduari dagokionez. Gizarteko zauriak tratatzea ere unibertsitatearen zeregina da. Unibertsitateari dagokio geure memoria historikoa maneiatzea eta fenomeno terroristak datorren lekutik datorrela, prebenitzeko, gogora ekartzeko eta ez errepikatzeko konpromisoa hartzea. Egungo erronkak ere landu behar ditu; besteak beste, genero-indarkeria (gero eta ingurune gazteagoetan duen presentzia), gorroto-diskurtsoen hedapena edo polarizazioak eragiten duen haustura soziala.

Bizikidetza soziala indartzeko bide luzean, erakundeetan kultura errestituatiboa sustatzea funtsezko lan-ildoak da Bizikidetza Itunaren agendan. Horregatik, proposatzen dugun unibertsitate

errestauratiboaren kontzeptuaren arabera, unibertsitateak goi-mailako hezkuntzako prestakuntza-erakundeak dira, eta balio eta printzipio errestauratiboak jaso eta bultzatu behar dituzte beren egituran eta funtzionamenduan. Unibertsitateek sortzen eta mantentzen duten hezkuntza-giroan, irakaskuntza, ikaskuntza eta ikerketa elkarrenganako errespetutik abiatuta gauzatzen dira, komunitatea eraikitzen duen harreman-kultura batetik hasita. Komunitate horretako pertsona guztiek «aurrera egingen dute eta baloratuta sentituko dira» (Davis, 2019:19), eta gai izanen dira kalteak prebenitzeko, lantzeko eta erreparatzeko. Eta, kalteak daudenean, ikuspegi errestauratiboa lehenetsiko dute ordainsarien logika aplikatu beharrean.

Gida hau Campus de excelencia en Convivencia lerro estrategikoaren barruan dago. Itunak leku hauetan aurkeztu zuen lerro hori: Menendez Pelayo Unibertsitateko Universidades: Excelencia con alma topaketan, 2022ko irailean; Burgosko Unibertsitateko Crue-Iraunkortasun Sektorialean, 2023ko apirilean; Madrilgo Unibertsitate Autonomoan egindako Bizikidetzatza Batzordeen I. Topaketan, 2023ko uztailean; eta Cruek Bizikidetzaren Nazioarteko Bake Eguna kaleratu zuenean, unibertsitateen urteko ospakizun gisa, Burgosko Unibertsitatean, 2024ko maiatzaren 16an. Gidaren xedea da lortu nahi dugun eredu-aldaketaren nondik norakoak ematea.

Era berean, beste konpromiso bati erantzun nahi diogu: 2024ko urtarrilean unibertsitate-eremuko gatazkak konpontzeko I. Mintegi teknikora joan ziren unibertsitateko kudeatzaileen taldean hartutakoari. Mintegi hori La Cristaleran egin zen, UAMek Miraflores de la Sierran duen egoitza batean, Bizikidetzatza 3/2022 Legearen garapenari buruzko erabaki informatuak hartzen laguntzeko. Mintegi hartan hamaika unibertsitatetako goi-kargudun aritu ziren: Alejandra Sanjuán, Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitateko defendatzailea; Catarina García, Pompeu Fabra Unibertsitateko sindikoa; Julia Arcos, Burgosko Unibertsitateko defendatzailea; Teresa Sancho, Universitat Oberta de Catalunyaeko sindikoa; Inés Gonzalez, Cádizko Unibertsitateko Unibertsitate Defentsoriako teknikaria; Isabel Viña, Oviedoko Unibertsitateko Bizikidetzatza Batzordeko

defendatzailea eta presidentea; Carmen Pérez de Ontiveros, Kanaria Handiko Las Palmasko Unibertsitateko Bizikidetza Batzordeko presidentea; Carmen Almendros eta Carlos Marivela, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Bizikidetza Batzordeko kideak; Roberto Álvarez, Almeriako Unibertsitateko Bizikidetza Batzordeko presidentea; Rosa M^a Cerdá, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko berdintasun-teknikaria; Javier De la Torre, Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren zuzendaria; Elena Maculán, idazkari nagusia, eta Mariano Melendo, Gatazkak Prebenitzeko, Konpontzeko eta Ikuskatzeko Zentroko zuzendariordea, biak Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalekoak; eta Manuel Alcántara, CIVIS sareko OpenLabs-eko koordinatzailea. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei, baita Alberto José Olalde eta Mar Puga bitartekari eta prestatzaile bikainei ere.

Unibertsitate-kudeatzaileei zuzendutako oinarrizko gida hau premiaz egin da; izan ere, hilabete hauetan, unibertsitateak erabakiak hartzen ari dira, herrialdeko hurrengo belaunaldietako gatazkei nola aurre egin zehazteko. Bizikidetzarako Itunetik, aitorpenik handiena egin nahi diegu gidaren autore eta aditu bikainei — Esther Giménez-Salinas, Alberto José Olalde eta Mònica Albertí — eta Carmen Almendros, Amalio Blanco, Clara Casado, Elena Maculan, Mariano Melendo, Javier de la Torre eta Teresa Sancho aztertzaileek osatutako diziplina anitzeko taldeari. Haien eskarmentuari, prestutasunari eta eskuzabaltasunari esker egin ahal izan da hain denbora laburrean.

Beste behin ere, konpromiso argia agertzen dugu Crue Universidades Españolasekin, Unibertsitate Defendatzaileen Estatuko Konferentziarekin, Crue Espainiako Unibertsitateen Bizikidetza Batzordeen Sare sortu berriarekin (REDCCU) eta bizikidetza sustatu nahi duten erakunde guztiekin lankidetzan aritzeko.

Unibertsitate eta institutu zientifiko guztiak animatzen ditugu, Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Lege berriaren bizikidetzabatzordeak eta bitartekaritza-sistemak behar bezala garatzeaz gain, bizikidetza indartzeko ibilbide-orriak diseinatzera. Hau da,

pertsonen arteko, taldeen arteko eta kategorien arteko harreman adeitsuetan eta errespetutsuetan oinarrituta, ekintza-sorta bat definitu behar dute, eta ekintza-sorta hori izanen da akordiorako, harreman pertsonalak sendotzeko, gatazkak modu positiboan eraldatzeko eta gainerako eragile sozialekin lankidetzan aritzeko abiapuntua (Blanco, 2024).

Unibertsitateek beren gain hartu behar dute belaunaldi osoak gaitzeko erronka. Belaunaldiek kultura errestauratibo berri baten bidez egin behar diote aurre gatazka pertsonal, sozial eta profesionali, horixe baita haien misioa, gizarte justuak eta baketsuak eraikitzeko funtsezko eragile diren aldetik. Aintzat hartzen badugu aurreko bizikidetzalegeak zenbait hamarkada iraun duela, une erabakigarrian gaude harremanen eta gatazken kultura aldatzeko. Gida honek horretan lagundu nahi du.

Egin dezagun elkarrekin. Egin dezagun behingoz.



Bizikidetzatza Itunaren koordinatzailea

Aurkibidea

LABURPENA	3
Hitzazurea	5
1. Sarrera.....	11
1.1. Gatazkaren kultura Espainiako unibertsitateetan.....	14
1.2. Araudia vs. kultura errestituratiooa	16
2. Errestiturazioaren aurrekariak hezkuntzaren esparruan	18
2.1. Nazioarteko unibertsitateetan nola ezarri den: eragin positiboaren ebidentziak.....	18
2.2. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzan inplementatzea, gure herrialdean.....	22
2.2.1 Eskola-alorrerako oinarriak eta ereduak	22
2.2.2. Ikuspegi Errestituratio Erlazional Globala garatzea	25
2.2.3. Katalunian ezartzearen irakatsiak.....	32
3. Justizia errestituratiooa unibertsitatean: gatazkak konpontzeko beste modu bat.	35
3.1. Justizia errestituratioaren paradigma	36
3.2. Justizia errestituratioaren paradigmanen balioak eta printzipioak.....	38
3.3. Jardunbide eta prozesu errestituratioak.....	44
4. Ikuspegi errestituratiooa Unibertsitateko Bizikidetzaz Legearen testuinguruan (LCU).....	47
4.1. LCUren xedea eta alor subjektiboa.....	49
4.2. Prebentzio-neurriak	50
4.3. Bizikidetzaz gatazkak konpontzeko baliabide alternatiboak.....	54
4.4. Zehapenaren ordezkot neurriak.....	56
4.5. Bitartekaritza errestituratioaren zeregina diziplina-prozeduran: baimen informatua	58
4.5.1. Bitartekaritza errestituratiooa sexu-indarkeriako kasuetan.....	60
4.5.2. Bitartekaritza-prozesu errestituratioaren oinarriak.....	64
4.5.3. Bitartekaritza-prozesu errestituratioo baten emaitza	65
4.6. LCUren esparruko ikuspegi errestituratiooari buruzko hausnarketak, sexu-jazarpenaren aurrean	65
4.7. Testuinguru juridikoaren ondorioa	69
5. Unibertsitate Errestituratiooak: ezartzeko jarraibideak	70
5.1. Aldaketa nola kudeatu.....	70
5.1.1. 0 maila. Balioak, oinarritzko printzipioak eta ikuspegi-aldaketa	73
5.1.2. 1. maila. Harremanak eratzea, komunitatea egitea	75
5.1.3. 2. maila. Harremanak zaintzea.....	76

5.1.4. 3. maila. Kalteak erreparatzea eta harremanak berrerratea	81
5.2. Inplementazio-ereduari buruzko hausnarketak	82
5.2.1. Gorroto- eta diskriminazio-gertakariei buruz	84
5.2.2. Bizikidetzak digitalak	87
6. Jardunbide- eta -prozesu errestitutiboak deskribapen laburra	90
6.1. Jardunbide proaktiboak (1. maila).....	91
6.1.1. Zirkulu proaktiboak	91
6.1.2. Elkarriketa errestitutibo jarraitua	92
6.2. Jardunbide errestitutibo erresponstibo informalk (2. eta 3. mailak)	93
6.2.1. Adierazpen afektiboak. Indarkeria-ezazko komunikazioa	94
6.2.2. Galdera errestitutiboak	95
6.2.3. Coachinga/aholkularitza errestitutiboa	96
6.2.4. Elkarriketa errestitutiboak (bideratzailerik gabe)	96
6.2.5. Bilerak errestitutibo espontaneoak (bideratzailerik informalk)	96
6.3. Prozesu errestitutibo erresponstibo formalk (3. maila).....	97
6.3.1. Bitartekaritza errestitutiboa	97
6.3.2. Zirkuluak	98
6.3.3. Bilerak errestitutiboak	99
6.3.4. Biktima-inpaktuari buruzko panelak	99
6.4. Zehapenaren ondoko prozesu errestitutiboak (3. maila)	100
6.4.1. Prozesu errestitutibo berrintegratzaileak	100
6.4.2. Berriz sartzeko zirkuluak	101
7. Egun ekintza Kultura Errestitutiboaren Plan Zuzentzaile (CURE) baterako..	102
8. Aipatutako bibliografia	111
9. Sakontzeko baliabideak	118
9.1. Webgune interesgarriak	118
9.2. Bideoak	120
9.3. Podcastak	121
9.4. Kontuan hartu beharreko arau-iturriak	121
9.5. Bibliografia osagarria	122
10. Harremanetan jarraituko dugu	130

1. Sarrera

Unibertsitateak gaitasun mugagabeak ditu hazteko eta gizartean onurak eta jarrera-aldaketak eragiteko.

Onena daukagu eskura;
alegia, gazteak eta ezagutza,
eta gauzak aldatzeko ardura handia ere bai.

Esther Giménez-Salinas

Gida hau diziplina anitzeko elkarrizketa bizi baten emaitza da. Elkarrizketa urtebetez luzatu zen, eta hainbat esparruko adituek hartu zuten parte: zuzenbidea, unibertsitateko irakaskuntza eta kudeaketa, psikologia, gizarte-langintza, kriminologia, pedagogia, gatazken bitartekaritza, justizia errestauratiboa, Unibertsitateko Defentsariak eta bizikidetzaren aldeko aktibismo soziala.

Gidaren helburua da unibertsitateko kudeaketa-taldeei ikuspegi errestauratiboa zer den jakinaraztea, erabakiak errazago har ditzaten. Datuak oinarri hartuta, erabaki horiek markatuko dute zein den bide egokia unibertsitateak eta beren campusak ingurune errestauratiboak, atseginagoak, errespetsuagoak eta arduratsuagoak bihur daitezen. Begirada integral baten bidez, unibertsitateko bizikidetzeta-gatazken alde proaktiboak, errespontsiboak eta berrintegratzaileak jorratuko dira, haien larritasuna edozein dela ere.

Gure proposamenaren ardatza justizia errestauratiboa da. Neurri handi batean, kontzeptu horren jatorria Europako abolizionismo penaren aitzindariengan dago, hala nola Louk Hulsmanengan, Herman Bianchirengan eta Nils Christierengan (Zinsstag, Teukens i Pali, 2011). 1977ko «Conflicts Property» artikuluan, Nils Christiek ohartarazi zuen gatazka berriz ere eraman behar dela inplikaturako pertsonengana, eta «gatazkak lapurtzea» egotzi zien abokatuei eta sistema penaleko beste profesional batzuei (Christie, 1977). Dokumentaturako lehen prozesua 1974koa bada ere, justizia errestauratiboaren kontzeptua, printzipioen eta jardunbideen paradigma edo multzo gisa, 1990eko hamarkadan gauzatu zen. Hauek izan ziren, besteak

beste, kontzeptuaren zutabeak: pentsamolde abolizionista, biktimaren eta biktimagilearen arteko bitartekaritza-programa eta -zerbitzuen esperientzia, biktimen eta presoek eskubideen aldeko mugimenduak, talde indigenetako eta mugimendu feministako ekintzaileak. Horien artean funtsezko mugarria izan zen Howard Zehr kriminologoaren *Changing Lenses* (1990) lana, han garatu baitziren justizia errestitutiboaren esanahia, printzipioak eta balioak, delituei erantzun hobeak eta gizatiarragoak ematen dizkien paradigma gisa¹.

Justizia errestitutiboak zenbait hamarkada ditu atzean. Nazioarteko elkarlan-sare sendoak ditu jardunbide egokiak trukatzeko, eta askotariko antolamendu-guneetan egin du bidea, epaitegietatik eta espetxeetatik kanpo. Espainian badaude jada nazioartean ospe handia duten adituak, eta biktimizazio larrietan esperientzia errestitutiboak jorratu dituzte. Gure herrialdeko unibertsitateetako aurrekarien artean, honako hauek ere aipa daitezke: 6/2001 Legea, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa, Unibertsitate Defendatzaile, Sindik edo Aldezle Unibertsitarioaren figura arautzen duena; prestakuntza espezializatuko masterrak sortzea; eta jardunbide errestitutiboek esperientzia pilotuak ezartzea, gehienak defentsa-erakundeek eskutik edo irakasleen ekimenez. Irakasle horiek, kasu batzuetan, RedCCU-Crue Espainiako Unibertsitateen Bizikidetzaren Batzordeen Sarearen eta Europako Unibertsitate Errestitutiboek Sarearen kide dira. Gaur egun, mundu osoko dozenaka unibertsitatek integratu dute justizia errestitutiboa beren funtzionamenduan, eta haren onuren ebidentzia zientifikoa dokumentatuta dago honezkero.

Defendatzen dugun ikuspegi errestitutiboa oso aproposa da integritate akademikoaren kontrako ekintza hauei heltzeko: plagioak, irakasleen oposizio-lehiaketetan ematen diren deklarazio faltsuak, unibertsitate-egoitzetako bizikidetzaren gatazkak, irakasleek ikasleekiko dituzten jokabide desagokiak, lurraldeari lotutako gatazken belaunaldiz gairik herentziak (memoria historikoa, terrorismoa,

¹ Gaztelaniaz haxe du izenburua: *Cambiando de lente: un nuevo enfoque para el crimen y la justicia* (Herald Press, 2012). Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/cambiandodelente00zehr/page/n3/mode/2up>

gatazkak identitate erlijiosoen arteko gatazkak, sexuen arteko gatazkak, gatazka etnikoak, etab.).

Unibertsitateko araudiak Zigor Kodearen antzera sailkatzen ditu jokabide horien larritasuna eta jokabide horiek merezi dituzten zigorrak. Tamalez, oso inertzia ezaguna baliatzen du arazo horiek ebazteko; hain zuzen ere, «kaltea egiten duenak kaltea ordaindu behar du» esaldiak definitzen duen paradigma. Unibertsitatearen esparruan beharrezkoa izan daiteke bermeekin zigortzea, baina ez du zertan erantzun bakarra edo onena izan. Kontuan hartu behar dugu, batetik, zigorra ez dela oso baliagarria baketzeko eta gatazkak konpontzeko eta, bestetik, are gutxiago balio duela hezteko eta bizitza profesional eta herritarerako trebatzeko, hau da, Goi Mailako Hezkuntzaren berezko xedeak betetzeko. Prozesu egokiari jarraitzeko ohituraren erruz, gatazkan dauden pertsonak ez dute konponbideetan parte hartzeko aukerarik izaten, ezta biktimek ere, beren premiak identifikatzeko. Ikusiko dugun moduan, justizia errestauratiboak ez ditu bermeak kolokan jartzen, eta bateragarria da unibertsitate bakoitzeko erakundeek gauzatutako diziiplina-zehapenekin, baina aldatu egiten du «kaltea egiten duenak kaltea konpondu behar du» paradigma.

Ikuspegi errestauratiboak pertsonen arteko, taldeen arteko eta kategorien arteko harreman-ereduen kudeaketa aldatu nahi du; izan ere, eredu tradizional horiek, askotan, gatazkak ugaltzen dituzte. Era berean, justizia errestauratiboak indarkeria jasan dutenei laguntzeko (zehapen-prozesuarekin batean edo zehapen-prozesuen ordezt) bideak ematen ditu, ikuspegi bitarrak gainditzeko (alderdien arteko kontraesanaren printzipioan oinarrituta), eztabaida-metodologia malguak ematen ditu (bitartekaritza errestauratiboa metodologia bat baino ez da beste askoren artean) eta aukera ematen du, batzuetan, kaltetutako komunitateko pertsonak parte har dezaten. Justizia errestauratiboak ikuspegi integral bat eskaintzen dio unibertsitate-komunitate osoari, eta ez da inolaz gutxietsi behar.

Beraz, hainbestetan aipatzen den bitartekaritza haratago doa. Bitartekaritza da gatazkak konpontzeko metodo alternatiboen izarra, eta, gaur egun, unibertsitatearen esparruan, bizikidetzat-batzordeen inguruan ardaztuta dago hari buruzko eztabaida. Bitartekaritza izan da Espainiako testuinguru sozio-juridikoan garatu eta arautu den lehen

metodoa; batik bat, eremu familiarrean eta eremu zibilean. Hain zuzen ere, Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legeak (aurrerantzean, LCU) sistema hori aipatzen du gatazkak konpontzeko baliabide alternatiboen artean (motiboen azalpena, hitzaurreko I. atala), nahiz eta ezartzen diren sistemak bitartekaritzan oinarrituta egonen diren (bitartekaritzan, 5. artikulua).

Hala ere, gida honetan ikusiko dugu behar-beharrezkoa dela legeak aipatzen duen bitartekaritza-kontzeptu anbiguoan sakontzea eta, batez ere, pertsonen kalte egiten dieten gatazketarako egokitzea. Lanketa errestauratiboak balio, printzipio eta metodologia egokiak ditu kasu horietarako, eta, bitartekaritza (huts) zibilean ez bezala, egindako kaltea erreparatzeko aukera ematen dute. Horretarako, hurrengo kapituluak lagungarri izanen dira (ikus, bereziki, 6.3.1.).

1.1. Gatazkaren kultura Espainiako unibertsitateetan

Espainiako unibertsitateak ez dira, hasiera batean, gatazka handiko guneak. Hala eta guztiz, Crue Sostenibilidad erakundearen Batzorde Sektorialaren (2023) [Diagnóstico de la gestión de riesgos psicosociales en las Universidades españolas](#) txostenak hauxe dio: «laneko jazarpenak protagonismoa galdu du, eta plazara ateratzen dira indarkeria psikologikoko gainerako kasuak, hala nola etsaitasuneko jokoerak, agintekeriak, diskriminazioak edo irainak; horiek guztiek, nahiz eta ez diren zehazki laneko jazarpen-egoerak, modu berean eragiten diote langileen osasunari eta, beraz, kontuan hartu behar dira» gatazken judizializazioarekin batera (42. or.). Esku hartzeko hiru modu deskribatzen ditu: (1) egoera gatazkatsuan inplikaturako pertsonen gain ekitea; (2) protokolo bat ezartzea, indarkeriaren koadro larriak tratatzeko (laneko jazarpen psikologikoa) eta (3) arrisku psikosozialak ebaluatzea. Lehenengo biek, txostenaren arabera, «arazoaren ikuspegi erreaktibo, berantiar eta puntualari erantzuten diote; ez dira prebentzioarako metodoak, ez baitaude erakundearen prebentzio-jardunean sartuta; gainera, banakako irtenbideak puntualak eragiten dituzte». Hirugarrenari dagokionez hauxe dio: «nahitaez bete beharreko prebentzio-prozedura» izan arren, arrisku psikosozialen

ebaluazioak ez du bide ematen «laneko indarkeria-egoerak eragiten dituzten faktore guztien gainean jarduteko (hala nola portaera arbitrarioak edo autoritarioak, antolamendu-ekintza irregularrak, langileen kudeaketa eskaseko politikak, lan-giro eskasa edo prebentzio-kultura eskasa)». Amaitzeko, txostenak «ikuspegi globaletik, integratzailetik eta parte-hartzailetik heltzea» gomendatzen du.

Txostenak, beraz, ikuspegia nabarmen aldatzeko eskatzen du. Esparru juridikora eraman baino lehen, erakundearen esparruan zentratu behar da ekintza (kaltea gertatzen den lekuan); praktika puntual eta erreaktibo bidez baino gehiago, prebentzio-prozesu proaktibo eta integral baten bidez jardun behar da; eta laneko indarkeria bere osotasunean hartu behar da prozesutzat, eta ez kalte partzialak eragiten dituzten gertaera zehatzen argazkitzat soilik. Egoerari aurre egiteko, «ekintza-programa sistemiko bat garatu eta ezarri behar da. Lan-ingurune osasungarriagoak lortzera bideratuko da programa hori, eta erakunde osoa barne hartzen duen antolakuntza-faktoreetan eta faktore psikosozialetan zentratuko da». Guk proposatutako kultura errestauratiboaren oinarrizko elementuak aipatzen dituzte bitartekaritza egoera konpontzeko:

Agian, garrantzitsuena ez da laneko jazarpeneko, gatazketako, bitartekaritzako eta indarkeriako prozedurak idatziz izatea, baizik eta indarkeria-egoerek zer bilakaera duten kontuan hartzen duen prozedura bat eskura edukitzea eta Unibertsitateko langile orok jakitea, une bakoitzean, nora jo eta zer egin behar duen lan-harreman guztietan ezinbestez sortuko diren gatazkak hobetu behar direnean. Prebentziozko eta gatazkak konpontzeko ikuspegia duen prozedura batez ari gara. Haren bidez, jazarpen- eta indarkeria-portaeren prebentzioa lehenetsiko litzateke, jatorrian esku hartuz (lana antolatuz) eta gatazkak goiz konponduz, agintariei eta langileei prestakuntza emanez. Horrela, bakearen kultura bultzatuko litzateke erakundean, baita bitartekaritza eta antzeko teknikak ere, langileen arteko gatazkak konpontzeko (Crue 2023: 44).

Txostena unibertsitate-komunitatearen zati baten —erakundearekin kontratu-harremana dutenen— diagnostiko espezifikoa bada

ere, ondorioak erkidego osora zabal daitezke nolabait, kanpoko zerbitzu profesionalak ematen dituzten pertsonengana iritsi arte. Gida honek alternatiba sistematizatu bat eskaintzen du, gatazkei aurre egiteko ikuspegi hobea izan dezagun.

1.2. Araudia vs. kultura errestauratiboa

Aipatutako txostenak ongi adierazten duenez, unibertsitateetan ohikoena den gatazka-konponketaren kulturak bizikidetzaren erdigunean kokatzen du arau-esparrua, eta, beraz, gatazka oro hartzen du esparru horretako gertakaritzat. Horrela jokatzean, noski, kultura horrek arau- eta zigor-lehentasunen arabera egituratzen du erantzuna. Gatazka eta zehapena elkarri lotuta daude curriculumaren barruan. Gatazken konponbidea oso instituzionalizatuta dago, eta konfiantza gutxi sortzen du inplikaturako pertsonengan. Arauaren kulturak zenbait eragileren artean aukeratzen du, baina ez du beti aukera egokia hautatzen. Eragile horien gaitasunak, sarritan, ez daude ongi finkatuta, eta komunitateko kideek ia ez dituzte ezagutzen, batez ere kolektibo kalteberenek (ikasleak, unibertsitatara sartu berriak diren pertsonak, etab.). Konponbidea eta segurtasun instituzionala lehenesten ditu; hau da, kudeaketan zehar arrisku instituzional txikiena izatea. Hauek dira kultura horren galdera nagusiak: zer arau hautsi da? Zer arau- edo lege-motari dagokio? Zein da hari heltzeko arau-tartea?

Hala ere, bada gatazkari aurre egiteko kultura alternatibo bat. Kultura horren arabera, gatazka kontzeptu transbertsala da unibertsitatean eta gizartean, eta aldaketaren, hazkundearen eta hezteko aukeren motorra ere bai. Kultura horretan, araudia elementu bat baino ez da, eta ahalik eta modu parte-hartzaileenean eta kolaboratiboenean eraikitzen da. Hona hemen haren galderak: nork jaso du kaltea? Zein dira haren beharrak? Nork du zer bait erreparatzeko ardura? Gatazka, beraz, lehentasun bihurtzen da hezkuntzaren eta errestaurazioaren aldetik, eta diziplina positiboaren ikuspegiarekin bat egiten da (autoerregulazioa, adostutako arauak, sistematik bertatik

eratorritako autoritatea —ez zigorrak ezartzen dituen posizio hierarkikotik eratorritakoa— eta ondorio hezitzaileak). Pertsonengan jartzen du arreta, baita harreman hondatuetan eta kaltetuetan ere. Gatazkari buruz hitz egiteko, harremanak berrerratzeko eta irtenbide baketsuak eta hezitzaileak bilatzeko gaitasuna ematen du. Ez dio beldurrik gatazka azaleratzeari. Kudeatzeko orduan gatazketako protagonista diren pertsonekin batera hartzen dira erabakiak, prozesu inklusiboak erabilita (unibertsitate-komunitatea osatzen duten beste pertsona hurbilak ahaztu gabe) eta lidergo eraldatzailea bultzatuz². Horretarako, ikasgelako giroa kudeatzeko eta gatazka prestakuntza-curriculumean txertatzeko trebatzen ditu irakasleak. Haren ikuspegitik, unibertsitate-komunitateak jasotzen du gertakariaren eragina, eta gertakariaren ondorioetan parte hartzeko aukerak ematen ditu, borondatezko ordezkarien bitartez. Kolokan jartzen ditu bizikidetza zailtzen duten egiturak, kulturak eta prozesuak, estamentu guztietan (irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL langileak, ikasleak eta zuzendaritza-taldeak). Beraz, ez da dagokion espedientea ebaztera bakarrik bideratzen, baizik eta prebentzio-neurriak eta eragindako kalteari erantzuteko neurriak proposatzen ditu, baita kaltea ahal den neurrian ez errepikatzea bermatzeko beharrezko ekintza guztiak ere. Ikuspegi horrek hezkuntza-komunitate osoa trebatzen du gatazkek eraldatzen; aldizka baina etengabe egiten du, eta modu ebaluatuan, gainbegiratuan eta finantzatuan gainera. Gehiegi ez instituzionalizatzen saiatzen da, konfiantza-giroa indartzeko, eta berdin esternalizazio-dinamikekin ere: gehiegi ez kanporatzen saiatzen da, gatazken ebazpen alternatiborako espazioak eta prozesuak bultzatuz, horretarako aholkularitza eskainita, batez ere gatazkek trataezin edo konponezin gisa ikusten direnean, eta campusean zehar banatuta. Ildo horretan, jardun profesionalean eta herritarren jardunean ebazpen eraldatzailea emateko gaitasuna du. Gatazka ulertzeko bigarren kultura hori da proposatutako Unibertsitate Errestauratiboaren funtsa.

2 Inklusibotasun horrek beste protagonista batzuegana luzatzen du begirada: lagunak, bikoteak, senideak eta ikaskideak, irakasleak eta administrazioako langileak. Kaltea eragiten duten gatazkek komunitateari eragiten diote; alegia, ikasgelako kideei eta dagokion campuseko kideei.

2. Errestaurazioaren aurrekariak hezkuntzaren esparruan

Atal honetan aurkeztuko ditugu ikuspegi errestitutiboaren garapenaren aurrekari esanguratsuenak. Lehenik eta behin, nazioarteko unibertsitateetan nola ezarri den aipatuko dugu, datu batzuen bidez. Bigarrenik, unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren eremuan nola garatu den deskribatuko dugu, eta arreta berezia jarriko dugu Kataluniako «Ikuspegi Errestitutibo Globalean».

2.1. Nazioarteko unibertsitateetan nola ezarri den: eragin positiboaren ebidentziak

David Karp Lidergoko irakasleak eta San Diegoko Unibertsitateko Justizia Errestitutiboko Zentroko zuzendariak, ikasle gaietarako justizia errestitutiboko programak dokumentatzen hasita, Estatu Batuetako, Australiako, Kanadako eta Zeelanda Berriko berrogeita lau unibertsitate zerrendatu zituen 2023an (Karp, 2023). Nazioarteko sareak ere martxan daude dagoeneko, errestitutazio-praktikak eta -prozesuak aplikatzen dituzten goimailako irakaskuntzako erakundeen artean; besteak beste, Txileko Justizia Errestitutiboaren Sarea (2020an sortu zen) edo European Restorative Universities Network (ERUN) sortu berria.

Unibertsitate-campusetan, ikuspegi errestitutiboa duela hogei urte baino gehiago jarri zen abian, Estatu Batuetan nagusiki. Bouldergero Coloradoko Unibertsitateak eta Skidmore Unibertsitateak programa bati ekin zioten 1990eko hamarkadan, eta Kaliforniako Unibertsitateko Unibertsitate Defentsa Erakundeak gauza bera egin zuen 1999an (Sebok eta Goldblum, 1999). Campus Safety Magazin aldizkariak 2018an jakinarazi zuen moduan, Stanfordeko Unibertsitateak, Northwestern

Unibertsitateak eta Michigango Unibertsitateak ere justizia errestitutiboko programa bat ezarri zuten³.

Europar, Maynooth Unibertsitateko (Irlanda) Zuzenbide eta Kriminologia fakultatea izan zen politika errestitutiboak ezarri zituen lehenengo fakultatea⁴, eta Wellingtongo Victoria Unibertsitatea (Zeelanda Berria) ere aitzindaria izan zen horretan. Unibertsitate horrek jokabide-kode bat idatzi zuen ikasleentzat, eta kode horren printzipioek adierazten dute gatazkak, praktika administratibo hutsaren bidez baino gehiago, kaltetutako pertsonen parte-hartze zuzena inplikatzeko duten prozesu errestitutiboen bidez kudeatu behar direla (Pointer, 2019).

Diziplina-eredu tradizionalarekin alderatuta, programa horien garapenak agerian utzi du prozesu errestitutiboek apelazio-kopurua txikiagotzen, berrerortzeak leuntzen, parte-hartzaileen asebetetzea handiagotzen eta ikaslearen errendimendua hobetzen dutela (Karp eta Sacks, 2014). Motibatzaile errestitutiboekin edo komunitatera bideratutakoekin lan egin ondoren, ikaslearen ongizate eta satisfazio pertsonala areagotu zen, baita komunitateko kide izatearen sentimendua ere. Aldi berean, berrerortzeko probabilitatea murriztu zen (Gallagher Dahl, Meagher, eta Vander Velde, 2014).

Kalte sozial, politiko eta historiko konplexuak tartean daudenean, praktika errestitutiboek kalteak bizkor eta modu esanguratsuan identifikatzeko aukera ematen diete komunitateei, eta komunitatearen beharrak eta jarraitu beharreko bideak zein diren jakinarazten diete (Pigdeon eta Karp, 2024:137).

Erik Wessel Michigango Unibertsitateko Ikasle Gatazkak Konpontzeko Bulegoko zuzendariak adierazi du justizia errestitutiboak konfiantza handia eragiten duela justizian,

3 Informazio gehiago hemen: <https://www.campussafetymagazine.com/university/brown-university-restorative-justice/> Kontsulta: 23/11/23

4 Informazio gehiago hemen: <https://www.maynoothuniversity.ie/news-events/school-law-and-criminology-adopts-restorative-practices-policy>

ikasleei aukera ematen baitie beren zehapenen finkatzean parte hartzeko⁵.

Estatu Batuetan neurtu zen lehenbizikoz justizia errestitutiboaren eraginkortasuna, STARR Project (Student Accountability and Restorative Research Project) bidez. Seiehun eta berrogeita hemeretzi kasu aztertu ziren, eta argi geratu zen praktika errestitutiboek inpaktu handiagoa dutela diziplinazko entzunaldi- edo ikerketa-prozesuek baino (Karp eta Sacks, 2014).

Praktika errestitutiboekin ikaskuntza hobe izateko arrazoietakoa bat ikaslearen garapena da. Izan ere, garapen hori ardura moralean, herritartasunean eta adimen emozionalean oinarritutako ekintza holistikoa da (Karp eta Sacks, 2014:21).

Biktimen kontakizunak entzunez, ikasle ofentsagileengan nahigabe- eta damu-adierazpenak sortzen dira. Era berean, ikasleari bere iraina onartzen eta erantzukizuna bere gain hartzen entzuten diotenean, kaltetuek, sarritan, barkamenarekin ez bada ere, esker onarekin erantzuten diote iraintzaileari. Erabakiak hartzeko prozesu kolaboratibo eta inklusibo horiek laguntza-sistemak eratzen dituzte, eta hezkuntza-komunitateko kide izateko sentimenduari eusten diote (Karp eta Sacks, 2014). Karpek egindako azterlanaren arabera, prozesu errestitutiboetan parte hartu zuten ikasle iraintzaileek ikaskuntza-erantzukizuna hobekien jaso zituztenek baino (Karp, 2015). Hona hemen zer-nolako ikaskuntzak lortu zituzten:

- Ahotsa eman zidaten.
 - Parte-hartze aktiboa erabakiak hartzeko prozesuan. Arau komunitarioak barneratzea. Gertakarien ondorioen kontzientzia handitu egiten da, baita komunitate batean parte hartzeak dakartzan erantzukizun moralean onarpena ere.

5 Informazio gehiago hemen: <https://www.chronicle.com/article/how-one-university-went-all-in-on-restorative-justice/> Kontsulta: 23/11/23

- Ardura nire gain hartu nuen.
 - Lkasle ofentsagileek beren jokabidea ulertzen dute, eta bizikidetzaren oinarritzko legeak urratzeak zer ekarri zuen konturatzen dira. Nork bere jokabidearen ondorioak aditu ditzake, baita gertatutakoa konpontzeko hartutako betebeharrak ere.
- Gaiari buruz hitz egin ahal izan nuen.
 - Beste ikuspegi batzuk entzuteko, damua adierazteko eta apurtutako harremanak erreparatzeko gaitasunarekin du zerikusia. Parte-hartzeari esker, campuseko bizikidetzak hobetzen da.
- Hemengoak naiz.
 - Campuseko harreman sozialei buruz ari gara, eta horien artean dago politika positiboa, hau da, unibertsitateko agintarien eta segurtasun-zerbitzuen kontrako joerarik ez izatea.
- Bidezkoa izan zen.
 - Prozesuak justizia ekarri zuela sinestea da. Sinesmen horrek indartu egiten du Erakundearen bizikidetzak-arauekiko eta -estandarrekiko legitimitate-sentsazioa.
- Prest nago aurrera jarraitzeko.
 - Emozioak ixtea ekarri duen prozesuaz ase sentitzea da. Nork bere jokabide ofentsagileari aurre egitea, harengandik ikastea eta ez uztea etorkizunean arrakasta izateko oztipo bihurtu dadin.

Azkenik, garrantzi handiko ebidentzia enpiriko bat aipatu behar dugu. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan frogatu zen, hemendik gertu, eta, haren arabera, justizia errestauratiboa modu arrakastatsuan egokitu daiteke gure inguruko unibertsitateetako testuinguruetara (Pujol eta Meléndez, 2022).

2.2. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzan implementatzea, gure herrialdean

Ikuspegi errestauratiboak dagoeneko esperientzia sendoak izan ditu gure herrialdeko zenbait autonomia-erkidegotan, unibertsitatez kanpoko hezkuntzan. Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioko Lurralde Lankidetzako eta Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendariordetza Nagusiaren webgunean jasota datoz halako praktikak, Balear Uharteetan, Valentziako Erkidegoan, Gaztela eta Leonen eta Nafarroan eginak eta bertako Hezkuntza Departamentuek hedatuak⁶.

Gure herrialdean, Katalunia da eskola-eremuan ikuspegi errestauratiboa abian jartzen esperientzia handiena duen autonomia-erkidegoa. 2018/19 ikasturtetik aurrera, Subdirecció General de Suport a les Famílies i a la Comunitat Educativa eta Servei d'Escola i Famílies erakundeek Ikuspegi Errestauratibo Globala (aurrerantzean, ERG) sustatzeari ekin zioten. 2022/23 ikasturtean, prestakuntza-prozesuak burutu ziren 154 ikastetxetan —lehen hezkuntzako 72 ikastetxe, 16 institutu eskola, bigarren hezkuntzako 66 institutu—, 2.604 irakaslerekin (Albertí, Clar eta Sanahuja, 2024), eta sare bat zegoen martxan, ERGn prestakuntza jasotako 47 ikastetxek osatua.

Jarraian, zehatz-mehatz azalduko ditugu ERGren oinarriak, emaitzak eta kontuan hartzeko ikaskuntzak.

2.2.1 Eskola-alorrerako oinarriak eta ereduak

Esan bezala, justizia errestauratiboa komunitatera zabaltzeak ibilbide luzea du gure herrialdean zein atzerrian. Hezkuntza-arloko ikuspegiaren xedea, alde batetik, zigorraren edo ordainaren sistema gainditzea da eta, horrenbestez, justizia

⁶ Ikus: <https://www.educacionfpydeportes.gob.es/mc/sgctie/convivencia-escolar/en-accion/practicas-restaurativas.html>

errestauratiboaren berezko prozesu erresponstibo formalekin lotutako printzipioak txertatzea: kaltean eta premietan zentratzea, ardurei erreparatzea, alderdi guztiak —kaltea jaso dutenak, falta edo delitua egin dutenak eta komunitatea— inplikatzeko, eta, azkenik, prozesu inklusiboak eta kolaboratiboak erabiltzea, pertsona guztiak errespetatuz (Zehr, 1990; 2002).

Lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, ERGa funtsezko mugarrria da. Alde batetik, justizia errestitutiboaren berezko prozesu erresponstibo formalak egokitzen ditu, gertakariak eta faltekin eragindako kalteari erantzun erreparatzaile bat emateko. Beste alde batetik, justizia errestitutiboa zabaltzen du, eta barne hartzen ditu harremanak eratze, komunitatea sortzeko, probentzia lantzeko (adibidez, zirkulu proaktiboak delakoei) eta bake-trebetasunak (indarkeria-ezazko komunikazioa eta entzute errestitutiboa) garatzeko prozesuak eta jardunbideak. Gainera, hezkuntza-komunitatea trebatzea proposatzen du, eguneroko gertakariak eta gatazka kudeatzeko balio duten erantzun-prozesu informalek errazteko (hala nola elkarriketa edo bilera errestitutibo informalek edo erdi-formalak).

ERGa eta Ikuspegi Errestitutibo Partziala (ERP) delakoa ez dira gauza bera inolaz. ERPak jardunbide errestitutibo erresponstiboen zerbitzua edo bitartekaritza-zerbitzu bat eratzea mugatuko litzateke, eta gertakariak eta falte bakoitzaren erantzunak.

ERGren esperientzia pilotuen ebaluazio-emaitzak integratzeko, Ikuspegi Errestitutibo Erlazional Globala (aurrerantz, ERRG) izenekoa sortu zen geroago. «Erlazional» hitzaren bidez hau dena adierazi nahi da: elementu proaktiboak lehenestea, harremanak eta loturak eratzea, kide izatearen sentimendua sustatzea, komunitatea sortzea, probentzia garatzea eta elkar zaintzea.

Horrela zehaztuta, ikuspegiak zigor-permitsibitate binomioa gaitzen du gertakariak, gatazka eta indarkeriak kudeaketan, baina, hori egiteaz gain, harreman osasuntsuak sortzeko metodologiak eta prozesuak eskaintzen ditu; alegia, horizontaltasunean eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako harremanak sortzeko balio dutenak. Bide batez,

trebetasunak eta gaitasunak sustatzen ditu, gertakari eta gatazka horiek indarkeria-ezaz kudeatu ahal izan daitezen.

Funtsean, harremana da ERRGren funtsa. Costelloren, Wachtelen eta Wachtelen arabera (2010), inbertsioa berriz definitu behar da antolamendu-, ikasketa- eta hezkuntza-eremuetan: diruaren % 80 bideratu behar da ikuspegiaren alderdi proaktiboa eta informala sustatzera, eta ez bakarrik erantzun formalera.

ERRGk konpromiso soziala jartzen du kontrol sozialaren gainetik, argi eta garbi (Morrison, 2012; Vaandering, 2014). Horretarako, ardura hartzera bultzatzen ditu gizabanakoak eta komunitatea bera. Haiei dagokie tratu ona sustatzeko eta nagusitasun-mendekotasun binomioa gaingitzea, binomio hori edozein eratakioa izanda ere (akademikoa, politikoa edo heteropatriarkala, besteak beste).

Ildo horretan, kalteak eragin dituzten indarkeria zuzenei erantzuteaz gain, indarkeria kulturalak eta estrukturalak gaingitzen dira, indarkeria horiek baitira kalte sistemikoen erantzule eta, askotan, indarkeria zuzenaren oinarri. ERRGk komunitatearen edo erakundearen kulturari eragiten dio, kultura errestauratiboa eta bakearen kultura sustatuz.

ERRGa garatuz, beraz, errotik aldatuko dira diziplinari buruzko sinesmenak, eta diziplinaren xedearekin eta praktikarekin lotutakoak ere bai (Thorsbone eta Blood, 2013). ERRGa garatuz bakearen eta bizikidetzaren kontzeptu positiboak, bakearen kultura eta kultura errestauratiboa hartuko dira barne (Albertí, Clar eta Sanahuja, 2024), baita ideia nagusi hau ere: gatazka eta indarkeria ez dira berdinak. Garapen horretan, gatazka berezkoa da gizakiengan eta, horrexegatik hain zuzen, ezin da prebenitu, baina posible da gure buruari egiturak, prozesuak, gaitasunak eta trebeziak ematea, gatazkek modu baketsuan eta indarkeria-ezatik kudeatu, eta gatazkek gora egitea saihesteko. Indarkeria, aldiz, prebenitu eta desagerrarazi egiten dugu.

2.2.2. Ikuspegi Errestauratibo Erlazional Globala garatzea

ERRGaren diseinu- eta inplementazio-mailak honela egituratuta daude:

- **0 maila.** Printzipioak, sinesmenak, balioak eta begirada-aldaketa.
- **1. maila.** Harremanak eratzea.
- **2. maila.** Harremanei eustea.
- **3. maila.** Kalteak erreparatzea.

0 mailan kokatuta daude kultura erlazional errestituratibo baterantz joateko oinarriak. Erakundeek apustu argia egin behar dute ikuspegi errestituratiboa gauzatzearen alde, eta estatutuetan, kode etikoetan, plan estrategikoetan eta beste zenbait dokumentutan islatu behar dute.

1., 2. eta 3. mailek proposamen metodologikoak, prozesuak eta estrategiak jasotzen dituzte. Baliabide horien bidez saiatuko gara harremanak eta bizikidetzat eratzen eta egunerokotasuna indarkeria-ezaz kudeatzeko trebetasunak identifikatzen eta trebatzen. Maila horietan jasota daude, era berean, gertakariei erantzuteko eta gatazkak kudeatzeko prozesuak eta jardunbideak, kalteat aitortzetik hasi eta erantzukizuna hartzera eta erreparazioa doazenak.

1. eta 2. mailak (harremanak eratzea eta harremanei eustea) komunitatean garatzen dira. Komunitateko kide guztientzat garatzen dira, zeren eta, jardunbideen eta prozesuen hartzaile bezainbat, erabiltzaile eta aplikatzaile baitira.

3. mailan (kalteak erreparatzea), ordea, adituak behar dira, eta trebatuta egon behar dute egoera larrietako prozesu errestituratibo erresponstiboak kudeatzen eta inplikaturatuko pertsonak eta komunitateak (arduradun eta kaltetu gisa) parte hartuko duten prozesuak gidatzen. Aurreko ataletan aipatu den bezala, prozesu horietan kalteat aitortzea, erantzukizuna hartzea eta erreparazioa jorratuko dira, eta gogoan izan behar dugu prozesu horiek borondatezkoak direla beti.

ERRGa, beraz, ez da gatazkei, gertakariei, indarkeriei eta horiekin lotutako guztiari (3. maila) erantzuteko jardunbide-multzo bat, baizik eta paradigma- eta kultura-aldaketa bat; alegia, begiratzeko eta egiteko modua aldatzea dakar. Komunitate osoari zuzentzen zaio eta komunitate osoari eragiten dio, ez ikasleei bakarrik. Arlo guztietan sustatzen ditu probentzioa eta hura definitzen duten elementuak: pertsonen aurkezpena, elkar ezagutzea, konfiantza, estimua, komunikazioa, erabaki partekatuak hartzea eta elkarlana (Burton, 1990; Cascón, 2001; Barbeito, Boada eta Caireta, 2021). ERRGa garatzeko, komunitateak eta/edo erakundeak bere buruaren kontzientzia hartu behar du, eta bizikidetza positiboa nahita sustatzeko konpromisoa ere hartu behar du, horretarako behar den ahaleginari eutsiz (horregatik ari gara bizikidetza positiboaz eta ez bizikidetzaz soilik). Denok eraikitzen dugu bizikidetza positiboa, uneoro egiten eta esaten dugun guztiaren bitartez. Bakerako hezkuntzan eta ikuspegi interseksionalean ez ezik, ERRGk erantzukizunean, harremanetan eta taldeetan sortzen diren egituretan jartzen du arreta.

Taldeak egituratzeko moduan nola eragiten dugun aztertzen du, eta horrek bizikidetzan eta kudeaketan nola eragiten duen ere bai. Izan ere, «nola gauden» eta «nola jokatzeko dugun» ez jakiteak errepikarazten ditu bizikidetzaren aurkako dinamika bortitzak, sexistak eta diskriminatzaileak, askotan naturalizatzen eta normalizatzen ditugunak. Izatea aldatu nahi denez, eta ez bakarrik egitea, hainbat autorek kultura errestitutiboa aipatzen dute, baita DNA errestitutiboa ere (Hopkins, 2004, 2009, 2011; Vaandering, 2014). DNA errestitutibo horrek aldarazten dizkigu bizikidetzaren kudeaketari buruzko sinesmenak.

Komunitatearen konpromisoa eta ardura funtsezkoak dira, ez bakarrik zuzeneko indarkeriei aurre egiteko, baita indarkeria estrukturaleri aurre egiteko ere. Ikuspegi errestitutiboak kolokan jartzen du ohiko sistema zurrana, hierarkikoa eta autoritarioa, hezkuntza-erakundeen eta, oro har, komunitateen kudeaketa erlazonala eta bizikidetza baldintzatzen duena (Vaandering 2013).

Ondoren, ERRGren ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu. 1. irudiak zehazten ditu maila bakoitzeko konpetentziak, praktikak, eragileak eta hartzaileak:

MAILA	JARDUNBIDEAK	GAITASUNAK eta KONPETENTZIAK	NORK ERABILTZEN DU?	NORI ZUZENTZEN
KALTEAK ETA HARREMANAK ERREPARATZEA	Bilera errestauratibo formalak	Komunikazioa eta entzutea (parte-hartzaileentzat) Bilera errestauratiboak (bideratzaileentzat)	Bideratzaile adituak	Inplikaturak o eta kaltetutako pertsona guztiak
HARREMANEI EUSTEA	Elkarriketa errestauratiboak	Indarkeria-ezazko komunikazioa Entzute errestauratiboa Bilera errestauratibo informalak ahalbidetzea Prozesu informaletan parte hartzea	Komunitate osoa	
HARREMANAK ERATZEA	Zirkulu proaktiboak	Zirkulu proaktiboak ahalbidetzea Zirkulu proaktiboetan parte Komunikazioa Entzutea		

1. irudia. ERRG: mailen, jardunbideen, konpetentzien eta eragileen taula.

ERRGren zutabeak balio, printzipio eta adierazle hauetan oinarritzen dira, aipatutako maila guztietan egituratuta (Zehr, 2002):

BALIOAK

1. **Pertsonen beharretan zentratua.** Pertsonen eta komunitatearen beharrak identifikatzen ditu. Egiturak eta estrategiak bultzatzen ditu, maila proaktiboan zein erresponstsiboan erantzuteko. Humanizatu egiten du; pertsonen eta haien harremanen (nork bere buruarekin, besteekin eta ingurunearekin duen harremana) arduratzen da.
2. **Ardura-hartzailea.** Ongizatea guztion esku dago; proaktiboa da. Ez badugu haren alde egiten, ez da gertatuko. Inplikaturako pertsonen eta komunitatearen beren betebeharrak eta ardurak onartzen dituzte kalteak eragin dituzten gertakarietan.
3. **Parte-hartzailea.** Komunitatearen parte-hartzea sustatzen da komunitateari eragiten dion guztian, eta egoeran inplikaturako eta kalteturako pertsona bakoitzarena ere bai. Bide ematen zaio demokrazia parte-hartzaileari, bai prozesu proaktiboetan, baita prozesu erresponstsiboetan ere.
4. **Errespetutsua.** Gizakiarenganako duintasuna eta errespetua sustatzen ditu. Izatea (pertsona) eta egitea (jokabideak) desberdintzen ditu, eta giza duintasunaren arabera prozesuak bermatzen ditu.
5. **Koherentea.** Ikuspegiak maxima honi jarraitzen dio: gure hitzen, ekintzen eta erabakien erantzule gara, baita horietatik eratortzen diren ondorioen erantzule ere.
6. **Erlazionala.** Gizakia, funtsean, harremana da. Harremanen bitartez ikasten dugu, eta harremanen bitartez gara. Gure buruarekin, hurkoarekin (pertsona partikularra den aldetik, hainbat talde eta kategoria sozialetakoa izan daiteke; adibidez, emakumea) eta ingurunearekin (ingurune naturala) harremanetan gaude.

PRINTZIPIOAK

Hopkinsek (2004, 2009, 2011) eguneroko jardunaren bost printzipio orientatzaile formulatu zituen. Gatazkaz berjabetzen eta erabakiak hartzen laguntzen dute, gizartearen aldeko trebetasunak eta autoestimua garatu, eta harremanak indartzen dituen errespetu- eta konfiantza-giroan (Christie, 1977). Hauek dira printzipio horiek:

1. printzipioa. Mundu guztiak ikuspegi propio, desberdin eta baliotsu bat du. Beraz, edozein egoeratan zaudela, eman ahotsa eta entzun ezazu epaitu gabe.

2. printzipioa. Pentsamenduek sentimenduetan eragiten dute, eta biek ekintzetan. Normalean, pentsamenduak eta sentimenduak ez dira ikusten; iceberg bat imajinatuko bagenu, ezkutuan (ezkutuko portaera), hau da, itsaspean geratuko lirateke pentsamenduak eta sentimenduak. Funtzionamendu errestitatibo batek azaleratzeko, hitz egiteko eta entzunak izateko aukera ematen die pentsamenduei eta sentimenduei.

3. printzipioa. Esaten eta egiten duzun guztiak ondorioak ditu, onerako edo txarrerako. Gure ekintzen ondorioak aurreikustea funtsezkoa da besteekin harreman ona izateko. Jokabideen ondorioei buruz enpatiaz pentsatzea baliagarria gerta daiteke egoera hobetzeko. Printzipio horrek ondorioei begiratzeko ikuspegia aldatu nahi du. Ondorioak ez dira arau-hauste hutsak, eta, horrexegatik, haien funtsa ez dago zigorrean, baizik eta ekintza edo jokabide jakin batek eragindako kaltean eta agerian geratu diren premietan. Beraz, prozesu erresponstibo errestitatiboan arretagunea premiak identifikatzea eta kaltea erreparatzea da, eta ez arau-haustea.

4. printzipioa. Beharrak aseta daudenean, pertsonek beren onena eman dezakete. Aldi berean, erabakiak hartzeko edo arazoak konpontzeko, baliagarria da premiak identifikatzea, horien bidez errazago zehaztuko baitugu zer estrategia behar diren beharrak asetzeko. Asetu gabeko beharrak adieraztea, finean, elementu errestitatiboa da.

5. printzipioa. Egoera edo gatazka baten partaideak dira ongien kokatuta daudenak, elkarlanean, egoerari nola erantzun asmatzeko.

ADIERAZLEAK

Printzipio horietatik abiatuta defini daitezke erreparazioaren adierazle proaktiboak eta erresponstiboak. Hauek dira, hortaz:

- Ahotsa eman al diegu kaltetuei edo egoera jakin batean inplikaturako pertsoneri?
- Pentsamenduak, sentimenduak, esperientzia emozionalak eta beharrak identifikatu ditugu? Pertsona guztiei eskaini diegu beren pentsamenduekin eta sentimenduekin konektatzeko aukera? Eta beste pertsonen pentsamenduekin eta sentimenduekin konektatzekoa?
- Arduratu gara agerian geratu diren kalteez eta beharrez?
- Inplikaturako pertsona guztien parte-hartzea sustatu dugu, egoera nola konpondu elkarlanean erabakitzeko?
- Parte-hartzea bultzatu dugu?

MAILAK

1. maila: Harremanak eratzea

Funtsean, maila proaktiboa eta probentiboa da. Hauxe du leloa: «harremanaren bidez gara, harremanen bidez eratzen dugu gure burua eta harremanen bidez ikasten dugu». Kide izateko sentimendua, konfiantza eta segurtasuna sustatzen ditu zirkulu proaktiboetan oinarritutako metodologiaren eskutik (Albertí, González eta Tolosa, 2023; Hopkins, 2019; Rullan, 2018). Harremanak sortuz eta taldeko eta/edo komunitateko kide izatearen sentimendua indartuz, bakerako gaitzen gaitu.

Komunitateak (ikasleek, irakasleek eta administrazioako eta zerbitzuetako langileek) prozesu, tresna eta estrategia zehatzak ditu eskura, eta eremu atseginak antola ditzake, mundu guztia ahotsa eman eta mundu guztia kontuan hartua izan dadin. Hemen

sartuta dago norbere buruarekin, bestearekin eta ingurunearekin ditugun harremanak zaintzea, baita alfabetatze emozionala eta premiak zaintzea ere.

2. maila: Harremanei eustea

Maila hau prebentziotik haratago doa. Maila honek bake-trebetasunak ematen dizkio komunitateari. Indarkeria-ezazko komunikazioan, entzute errestauratiboan (Albertí, Gonzalez eta Tolosa, 2023), komunikazio asertiboan eta errukian (Ansembourg eta Van Reybrouck, 2017) trebatzen du, baita entzute arretatsuan, aktiboan eta enpatikoan ere (Barbeito et al., 2021).

Era berean, maila honetan sartuta daude prozesu errestauratibo informalak eta horien trebakuntza: elkarrizketa errestauratiboak eta bilera errestauratibo txikiak. Eguneroko gatazkak eta gertakariak kudeatzeko balio dute.

Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Sailaren Servei d 'Escola i Família erakundeak behar bezala ebaluatutako esperientzia pilotuak eskaintzen ditu. Trebetasun hauetan trebatzen ditu hezkuntza-taldeak: indarkeria-ezazko komunikazioan, entzute errestauratiboan eta errestaurazio-prozesu informaletan. Trebakuntza horren helburua da ohiko kudeaketa tradizional, zigortzaile, xalo edo arduragabea gainditzea eta, ondorioz, ohiko indarkeriak (mehatxuak, konparazioak, akusazioak, sarkasmoa, gaitzespenak, akusazioak edo epaiketak) ez normalizatzea.

3. maila: Harremanak berreratzea eta kalteak erreparatzea

Harremanak berreratzen ditu eta, kalterik bada, konpondu egiten ditu. Jardunbide eta prozesu errestauratibo formalagoak eta inklusiboagoak erabiltzen ditu horretarako, pertsonenganako eta haien beharrekiko errespetutsuagoak direnak. Printzipio eta balio errestauratiboekin koherentea da, eta hiru fase errestauratibo aplikatzen ditu: onartzea, erantzukizuna hartzea eta erreparatzea.

Ñabardura hauek kontuan hartu behar dira:

- Prozesu errestituratio errespontsihoak ez dira permisiohoak. Onarpenik, erantzukizun hartzerik eta erreparaziozik ezean, ez dago ikuspegi errestituratiozik.
- Jokabideen ardura hartzea, kalteak identifikatzea eta kaltetutako pertsonen beharrak eta esperientziak entzutea prozesu konplexuak dira, eta konplexua da horri guztiari erantzuteko estrategiak edo ekintzak pentsatzea. Prozesu horiek ez dute zerikuririk ordaindu gabe joatearekin.
- Hezkuntzaren esparruan, jardunbide eta prozesu errestituratioen helburua ez da soilik zigorretik haratago joatea, baizik eta zigor-permisibitate binomioari alternatiba bat eskaintzea.
- Pertsona duintasunez tratatzeak ez du esan nahi kaltea eragin zuen jokabidea legitimatu behar denik. Pertsona orori zor zaio errespetua, baina ez pertsonen jokabide edo iritzi orori.
- Ikuspegi errestituratioari eusteak gaitasunak garatzea, prozesuak ikastea eta egon nahi izatea (jarrera) eskatzen du. Ez gara errestituratio jaiotzen; errestituratio izaten ikasten dugu. Prozesu errestituratio errespontsihoak ahalbidetzeko, entrenamendua eta prestakuntza behar dira.
- Prozesu errestituratio orok behar du bideragarritasuna baloratzeko fase bat, eta fase horretan honako hauek baloratuko dira beste ezaugarri batzuekin batera: borondatezkotasuna, erantzukizuna, erreparatzeko nahia eta erreparazioa jasotzeko nahia.

2.2.3. Katalunian ezartzearen irakatsiak

Kataluniako programaren ebaluaziotik eratorritako zenbait gomendio (Bevington, 2023) unibertsitate-esparrura heda daitezke:

- Edozein prestakuntza edo aholkularitza planteatu aurretik, komunitate osoari helarazi behar zaio ikuspegi errestituatiboa zer den eta zer esan nahi duen.
- Kalitatezko prestakuntza duten pertsonak jardunen dute hezitzaile.
- Hasierako prestakuntzaren ondoren, bidelagun jardun behar da.
- Prestakuntza ez da sektore batera edo pertsona kopuru batera mugatu behar, hezkuntza-komunitate osora zabaltu behar da (irakasleak, TEKAZEL langileak, ikasleak eta beste langile batzuk).
- Programaren eta haren eraginaren ebaluazio jarraitua ere prestatu behar da.

Gomendio horiek kontuan hartuta, Servei d'Escola i Famílies erakundeak Guía para el despliegue del ERG (Albertí et al., 2023) idatzi zuen, baita Programa de Innovación en ERG ere (Ebazpena EDU/653/2023, otsailaren 27koa). Programa hori 3 ikasturtetan egituratu zen, honela:

- **1. fasea.** Talde sustatzaileari lagundu eta irakasleak hezi. ERG ekintza-plana egin.
- **2. fasea.** Planifikatutako jarduerak ezarri.
- **3. fasea.** Esku-hartzea burutu: memoria entregatzea, ebaluazioa, sendotzea eta transferentzia.

Kataluniako kasuan, antolamendua aldatzeko eredu bat diseinatu zen, 3/10 ereduaren izeneko (hiru fase eta hamar urrats), Knoster, Villa eta Thousband (2000) oinarri hartuta. Eredu horretan fase jakin batzuk daude, Thorsborne eta Blood (2013) egileen proposamenei jarraituz, eta hezkuntza-esparruko ikuspegi errestituatiboaren elementuak eta Kotterren antolamendu-aldaketaren eredu (1995; 2012) ere ageri dira. Plangintza horren barruan hiru fase daude: prestakuntza-fase bat; formazio-fase bat, ekintza-plan bat zehaztuz amaitzen dena; eta, azkenik, hirugarren fase bat, aldaketaren ebaluazioa eta iraunkortasuna barne hartzen dituen. Ebaluazioa eta iraunkortasuna gainjar daitezke. Nahiz eta, hasieran, 3/10 ereduari eustea gomendatzen

zen, fase bakoitzak urrats espezifiko batzuk ditu, eta horiek egokitu eta diseinatu behar dira erakundearen beharren arabera.

FASEA	HELBURUAK	URRATSAK
1. Aldaketarako prestatzen ari gara	Aldaketarako baldintzak sortzea.	1. Komunitatea sentsibilizatzea. Komunitatea sentsibilizatuta eta informatuta dago ERRGaren aurrean, eta ulertzen du zer esan nahi duen eta zer ondorio dituen. 2. Talde sustatzaile bat sortzea. Talde sustatzaile bat sortu dugu, eta hark du proiektua bultzatzeko konpromisoa. 3. Beharrak zehaztea eta etorkizuneko ikuspegia. Talde eragileak beharrak zehaztu eta etorkizuneko ikuspegia eraiki ahal izan du. 4. Komunikazioa eta adostasuna. Etorkizuneko ikuspegia zein den jakinarazi zaio komunitateari, eta aldaketarako nahia adostu da. 5. Aldaketaren gaineko konpromisoa. Erakundearen konpromiso errestauratiboa zehaztu da.
2. Prestakuntza jaso eta ekintza plan bat egiten dugu.	Prestakuntza-, aholkularitza- eta laguntza-plan bat diseinatzea. Ekintza plan bat egitea, epe laburrerako, ertainerako eta luzerako.	6. Hasierako prestakuntza. Lehen prestakuntzan nork parte hartuko duen zehaztu da (talde eragileak eta zuzendaritza-taldea barne). Beharrak, prestakuntza-programa eta helburuak definitu beharko dira. Prestakuntzaren barruan dago transferentziaren jarraipena egitea eta bidelagun jardutea. 7. Ekintza-plana egitea. Ekintza-plan bat burutzean amaitzen da prestakuntza. Epe laburreko, ertaineko eta luzeko helburuak identifikatzea.
3. Aldaketa ebaluatu eta mantentzen dugu	Hedapena ebaluatzea eta sustatzea. Programa erakundearen edo ikastetxearen proiektu orokorrean barneratzea.	8. Etengabeko ebaluazioa. Ebaluazio-tresna bat daukagu eskura, plana berrikusteko eta jarraipena egiteko. 9. Komunikazioa eta hedapena. Komunikazio-guneak ditugu, ekintza-plana hedatzeko. 10. ERRG programa elkarbizitza-proiektuan eta ikastetxeko proiektuan barneratzea.

2. irudia. Eskola-esparruan ezartzeko jarraibideak.

Aldaketa-eredu hori ikastetxeak kudeatzeko erabiltzen ari da egun, baina unibertsitateen egoerak gogoeta berezia eskatzen du, alor horretan konplexutasuna, tamaina, testuingurua eta berrikuntza- eta autonomia-kulturak nabarmen aldatzen baitira erakunde batetik bestera. Gida honetako 5. eta 7. kapituluetan jorratuko dugu gai hori.

3. Justizia errestauratiboa unibertsitatean: gatazkak konpontzeko beste modu bat

Gure herrialdeko unibertsitateetan, 1954ko irailaren 8ko Dekretuak arautu zuen diziiplina 2022ra arte. Demokraziaren aurreko dekretu horrek finkatu zuen Hezkuntza Nazionalaren Ministerioaren mendeko Goi Mailako Irakaskuntzako eta Irakaskuntza Teknikoko Ikastetxe Ofizialetako Diziiplina Akademikoaren Araudia. Unibertsitate Bizikidetzari buruzko otsailaren 24ko 3/2022 Legea onartu zenez geroztik, legedia eguneratu da, eta unibertsitateen eta demokraziaren errealitate berrira egokitu da ondorioz. Gaur egun, ikasleei dagokienez bereziki, ikuspegi zigortzailea ez da unibertsitateko gatazkak konpontzeko tresna bakarra.

Jarraian ikusiko dugun bezala, LCUren berritasun garrantzitsuena da justizia errestauratiboaren printzipioak ezartzen laguntzen duela. Izan ere, justizia errestauratiboarekin bat dator hainbat kontzeptutan, printzipiotan eta, batez ere, gatazkari beste modu batean heltzeko aukeran.

3.1. Justizia errestitutiboaren paradigma

Lehen aipatu bezala, justizia errestitutiboaren paradigmatik gatazka kudeatzeko ikuspegi eraldatzen du. Eragindako kaltea erreparatu nahi du, eta agintekeriarekin, umiliazioarekin, mespretxuarekin, indarkeriarekin eta abarrekin lotutako harreman-ereduetatik sortutako kalteak dira haren jomuga. Kalte horiei erantzuna emateko ahaleginean, gertakarietan inplikaturako pertsonak barneratzen ditu prozesuan, baita gertakarietan inplikaturako komunitateak ere. Beraz, gizarte zibila eta botere publikoak ere aintzat hartzen ditu. Pertsonengan arretoa gehiago jarri erantzun nahi dio delituari; alegia, biktimarengan eta delitugilearengan zentratuz, eta gizartean zer eragin duen ahaztu gabe.

Justiziaren sistema arruntarentzat, hau da, ordainean eta zigorrean oinarritutako sistemarentzat, delitua arau-hauste bat da gehienbat. Horregatik, erruduna nor den eta zer zigor merezi duen identifikatzea hartzen da eginkizun nagusitzat. Ikuspegi horren arabera, Estatuak du zigor-erreakzioaren monopolioa, eta hari bakarrik dagokio, zigor-prozesu baten bidez, erasotzailearen eskubideak eta bermeak babestea. Paradigma errestitutiboaren arabera, orde, delitua hauxe da batez ere: biktima, haren inguruneari eta komunitateari edo gizarteari oro har kaltea eragiten dion jokabide bat. Paradigma errestitutiboak ez ditu zalantzan jartzen erasotzailearen bermeak, baina uste du delituaren barruan beste pertsona batzuk (Giménez-Salinas, 1999a) eta beste behar batzuk ere badaudela, justiziaren ohiko sistemak garrantzitsutzat jotzen ez baditu ere. Ez du zigorrik ezarri nahi, baizik eta honako hauek aztertu: zer kalte egin den, nork edo nortzuk diren erantzuleak, zer pertsonak edo taldek jasan duten eta nola erreparatu behar den (Zehr, 1990).

Geroago ulertu da, pausoz pauso ulertu ere, justizia errestitutiboak aukera ematen duela giza harremanen eremu guztietan nahitaez sortzen diren gatazkei ikuspegi inklusibo, parte-hartzaile eta erreparatzaile baten bidez heltzeko. Gaur egun, justizia errestitutiboaren paradigma aplikatzen ari da zigor-jurisdikzioan, delitu bat epaitzen denean, baita familia-, auzo-, lan-, komunitate-, eskola-, administrazio- edo unibertsitate-mailako gatazketan ere (Giménez-Salinas eta Rodríguez, 2020; Raga Marimón i Ferré Giró,

2023). Prozesu errestituratuak pertsona bideratzaile bat behar du, behar bezala prestatua eta gaitua. Prozesua gidatzeaz gain, bideratzaileak une oro bermatu behar ditu prozesu errestituratuaren berezko baldintzak; besteak beste, asimetria morala (norbaitek beste pertsona bati kaltea eragin ahal izan dio), ezaugarri horrek bereizten baitu bitartekaritza egiteko moduko prozesuetatik.

Asimetria moral horrek ñabardura garrantzitsu bat dakar: justizia errestituratuak jarrera bat hartzen du bidegabekeriaren aurrean, eta ez da moralki neutroa. Bidegabekeria nagusitasunarekin eta menderatzearekin lotuta dago eta, ondorioz, aldatu beharreko jokabide batekin ere bai. Izan ere, bidegabekeriak kalte psikologikoa, kalte soziala eta kalte morala ekartzen ditu beti. Ikuspegi errestituratuak, hargatik, uko egiten dio neutraltasun moralari, eta alde batera uzten du kaltea hitz-joko arrunt eta aseptikotzat hartzen duen bitartekaritza (Braithwaite, 2003).

Bitartekaritza negoziatio gisa ulertuko bagenu, neutraltasunaren betaurrekoek nahasmen zital bat eraginen ligukete; bitartekaritza-mota hori gatazken negoziatioarekin parekatuko genuke, eta horrek nahasmena sortuko luke unibertsitateko kideen artean. Kaltea ez da negoziagarria, eta, beraz, helburua ez da negoziatioa, baizik eta elkarriketa erreparatzailea. Biktima-ofentsagile bitartekaritza kontzeptuak okerrak eragin ditzake, biktimaren eta ofentsagilearen arteko eremu pribatura mugatzen baita. Justizia errestituratuaren paradigmak justizia komunitarioaren ideia sustatzen du. Bakea eraiki nahi du, eta, horretarako, ahotsa eman behar die kaltea eragin dutenei, kaltea jasan dutenei eta tartean dagoen komunitateari; kasu honetan, unibertsitateari.

Ikuspegi errestituratu horrek, hortaz, hiru elementu estruktural biltzen ditu (Pelikan, 2002):

- **Elementu soziala:** kaltea eragiten duen gertakariak hautsi edo asaldatu egiten ditu giza harremanak, baita pertsonen arteko bizikidetzaren ere. Hori dela eta, pertsonen berehalako esperientzia emozionalari heldu behar zaio, eta haietaz eta esperientzia horrek —norbaiti min egin izana eta kalte bat jasan izana— sortutako behar zehatzez arduratu.

- **Elementu parte-hartzailea edo demokratikoa:** alderdien borondatezkotasun-printzipioari garrantzi handia ematea da, eta prozesu errestauratibo guztietan betetzen da printzipio hori. Parte hartzeak eta aktiboki egiteak laguntzen du erantzukizunak hartzen, erreparazioa lortzen eta, hala badagokio, adiskidetzen (parte-hartzaileek hala nahi badute bakarrik).
- **Elementu erreparatzailea:** gatazkaren esanahia harreman sozialak asaldatzea edo haustea dela ulertzen badugu, prozesu errestauratiboak baliabideak eta moduak bilatzera eramanen gaitu, eragindako kaltea konpontzeko, kaltea erreparatzeko eta biktimaren benetako beharrak asetzeko. Behar horien artean egon daiteke laguntza emozionala, eta konpentsazio materialarekin edo ez-materialarekin batera eman daiteke, baita konpentsazioaren ordezkari ere. Kaltea egin duena zigortzea ekintza negatibo bat da; erreparazioa, aldiz, ekintza positibo bat. Oreka ekintza positibo horren bidez errestauratzeak aldaketa nabaria dakar, eta aldaketa hori beste elementu garrantzitsu bat da ikuspegi errestauratiboaren baitan.

3.2. Justizia errestauratiboaren paradigmen balioak eta printzipioak

Kontzeptu-esparru horretan, aintzat hartzen da zer garrantzitsua den zuzeneko eragina jaso dutenek prozesuan parte hartzea. Pertsona horiek ahotsa eta erabakitze gaitasun osoa izan behar dute kaltea zein izan den, zer harreman hautsi den, komunitateari zer kalte eragin zaion eta erreparazioa zein izan behar den definitzeko. Bestalde, zentzu hertsian erreparatzerik eta gauzak gertakariaren aurreko egoerara itzultzerik ez dagoen kasuetan ere, alderdiek erabaki dezakete beste inork baino hobeki nola egin aurre ondorioei; betiere, prozesuaren funtsezko balioak eta printzipioak bermatuta.

Justizia errestituatiboaren balioen bidez erabaki dezakegu zer behar den ikuspegi errestituatiboak jorratutako arazoak ulertzeko, arazo horien konponbideak definitzeko eta guztiz betetzeko.

Printzipioak proposizio-multzo bat dira, eta prozesu errestituatiboak zuzentzen dituzte. Printzipio horiek eskarmentuan eta ikerketan oinarritutako orientazioa ematen dute; haiei esker dakigu nola jokatu behar dugun, adierazitako balioen arabera, gure helburuak lortzeko.

Ondoren, esparru horretan adostasun handiena duten balioak eta printzipioak laburtuko ditugu (UNODC, 2020 eta Chapman et al., 2021):

BALIOAK

Giza duintasuna errespetatzea

Ikuspegi errestituatiboaren oinarrian dagoen filosofiaren arabera, gizaki oro baliotsua da eta gizaki orori zor zaio errespetua. Horregatik, prozesu errestituatiboak diseinatzean kontuan hartu behar dugu parte-hartzaileek seguru eta errespetatuta sentitu behar dutela; ahaldunduta eta prozesuaren jabe direla sentitu behar dute, eta askatasunez hitz egiteko gai. Prozesu errestituatiboek, era berean, balioetsi egiten dituzte pertsona bakoitzak prozesuari ematen dizkion gaitasunak eta indarguneak, eta horiek lora daitezten uzten dute.

Epaitzen dena jokabide edo egoera jakin bat da, eta, batik bat, pertsonengan zer ondorio dituen. Ezin dugu parte-hartzailerik estigmatizatu edo sailkatu.

Elkartasuna eta elkarrenganako erantzukizuna

Pertsonak independenteak gara, elkarrekin konektatuta gaude eta askotarikoak gara. Gure harremanen kalitatea, bai pertsonen artean, bai talde edo kategoria sozial jakin batzuetako kide gisa,

funtsezko ezaugarria da gizakien ongizate psikologikorako eta kohesio sozialerako. Prozesu errestauratiboen helburua da parte-hartzaileak berriz konektatzea (kalteak deskonektatuta), kalte horietan dituzten erantzukizun pertsonalak onartzen uztea (dimentsio indibidualean, erlazionalean eta sozialean) eta besteen ongizatearekiko dituzten eginbehar sozialak betetzeko moduak aurkitzea.

Kalteen erantzukizuna hartzean, barkamena eskatzeaz haratago, beste zenbait prozesu gauzatzen ditu kaltea eragin duenak: pertsonen arteko komunikazioari ekiten dio, bere jokabidearen ez-zilegitasuna ebaluatzen du (jokabidearen kontakizun narratiboak eta gertakarietan zer rol duen adieraziz), eragindako kalteen erantzukizuna onartzen du, kalteen eragina aitortzen eta ulertzen du, kaltetuen galderei erantzuten die, bere betebeharrak identifikatzen ditu (kaltetuekiko eta bere buruarekiko betebeharrak) eta baliabideei nola heldu aztertzen du, kalte horiek modu adostuan errepara daitezzen. Komunikazio-prozesu horri esker, biktimek aukera dute kaltea eragin dietenen kontakizuna ebaluatzeko eta kontakizun horren egiazkotasuna, zehaztasuna eta zintzotasuna neurtzeko (Wood eta Suzuki, 2024).

Justizia eta kontuak ematea

Justizia errestauratiboaren ikuspegiak kalte bidegabeetan edo okerretan jartzen du arreta. Sufrimendua arintzea eta kalte gehiago jasateko aukera murriztea izan beharko lirateke xedeak. Hori hala izan dadin, prozesu errestauratiboak bidezkoa izan behar du eta, ahal den neurrian, alderdi baten edo besteen nagusitasuna ekidin. Justizia, halaber, kontuak ematearekin eta justiziaren «substantziaren» alde egitearekin lotuta dago, nahiz eta protagonistek modu desberdinean hautematen eta esperimentatzen duten substantzia hori.

Egia, elkarriketaren bidez

Askotan, kaltetutako pertsonak zer gertatu zen ulertu behar izaten dute elkarriketaren bidez «egia» lortzeko. Kaltetuek galdera asko egin nahi izaten dizkiote erasotu dituen pertsonari, eta haien behar nagusia haxe izan ohi da: gertatu zenari eta

gertatu zenaren zergatiari buruzko egia entzutea. Galdera horiei erantzuteko abiapuntua alderdien alde zurrerako konpromisoa da; alegia, egiazkotasunaren eta zintzotasunaren konpromisoa. Ikuspegi errestauratiboak prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak legitimatzen ditu, baina ez ditu kalteak legitimatzen. Beraz, oso urrun dago gertaerak manipulatu nahi dituzten egietatik eta/edo biktimei min handiagoa egiten dieten hizkuntza-jokoetatik. Gema Varona, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Kriminologiaren Euskal Institutuko irakasleak adierazi bezala:

Justizia errestauratiboak bide eman diezaieke egia dialogikoei edo agonistikoei, eta, batzuetan, bateraezinak diren kontakizunak (kalte-egilearena eta biktimearena) erabil ditzake halako egietara iristeko. Elkarriketa hori zehatz-mehatz prestatu eta doitu behar da, kalte gehiago eragin ez dadin. Elkarriketak erreparatu egin behar du, eta leku aproposa izan behar du lotsarekin, minarekin, erantzukizuna hartzearekin, errespetuarekin, konfiantzarekin, duintasunarekin eta beste zenbait kontzeptuekin lotutako gertaerak, emozioak eta balioak adierazteko (Varona, 2020:27).

PRINTZIPIOAK

Borondatezkotasun-printzipioa

Parte-hartzaileek, askatasunez eta baimen informatuaren bidez, errestaurazio-prozesuan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute. Hori gertatuko da baldin eta parte-hartzaile guztiek, beharrezko informazio guztia jaso ondoren, prozesua antolatzeko baimena ematen badiote bideratzaileari. Prozesua erretiratzeak ez dio inori kalterik eragiten.

Inklusio sozialaren printzipioa

Parte-hartzaile guztiei prozesu bat eskaintzen zaie, beren beharren eta gaitasunen aniztasunari erantzuteko diseinatuak. Prozesu hori parametro hauetatik abiatuta eraikitzen da: irisgarritasuna, sentsibiltatea, genero-aniztasunarekiko egokitzapena, erantzukizunak, arraza- edo etnia-jatorria,

hizkuntza, desgaitasuna, erlijioa edo sinesmenak, adina eta orientazio sexuala. Era berean, prozesuaren eragin zuzena edo zeharkakoa jaso dezaketenak ere tartean daudenez, parte hartzera gonbidatu behar ditugu.

Parte-hartze printzipioa

Eragina jaso duten alderdiek erabakiko dute, inork baino hobeki, zein den erantzun egokiena. Gatazka konpontzen benetan lagun dezaketen pertsona guztiek hartu behar dute parte aktiboki, eta, egokitzen jotzen bada, alderdien inguruko pertsonak eta komunitateko edo gizarte zibileko kideek ere bai. Beraz, parte-hartze horretarako baldintzak sortu behar ditugu.

Pertsona horiek guztiek aktiboki parte hartu behar dute elkarriketan (zuzenean edo zeharka). Elkarriketak errespetutsua, bidezkoa eta segurua izan behar du, eta ez dio biderik utzi behar pertsonen arteko nagusitasunari. Ikerketen arabera, alderdien bilerak zenbat eta zuzenagoak izan, orduan eta garbiagoak eta gogobetegarriagoak dira prozesu errestauratiboak. Hala ere, gerta daitezke aurrez aurreko elkarriketan burutzen ez diren prozesu errestauratiboak.

Bideratzaileak prozesuan parte hartzen du, eta errespetu eta duintasun berarekin tratatzen ditu han dauden pertsonak. Bide batez, pertsona horiek neurri berean parte hartzen dutela bermatu behar du. Ez du akordio zehatz baten aldeko jarerrarik agertuko, baina ez du neutral jokatu kaltea eragin duen portaeraren aurrean.

Konpromiso-printzipioa

Beharrezko neurriak hartu behar dira parte-hartzaile bakoitzari laguntzeko eta hartutako konpromisoak eta akordioak betetzeko moduko jarrera arduratsua sustatzeko. Akordioak lortzea ez da derrigorrezkoa, batzuetan ezinezkoa izan baitaiteke. Hala eta guztiz, horrek ez luke prozesu errestauratiboaren bidea oztopatu behar.

Konfidentzialtasun-printzipioa

Prozesu errestauratiboan zehar, alderdiek seguru sentitu behar dute gertakarien bizipenak adierazten ari direnean. Horregatik,

parte-hartzaile guztiek eta bideratzaileak konpromisoa hartuko dute gune errestauratiboan esaten dena isilpean gordetzeko, eta hala egingen dute baldin eta esandakoa ezagutzera ematea adostu ez bada.

Beraz, parte-hartzaile guztiek baimena ematen dute eta konfidentzialtasuna bermatzeko konpromisoa hartzen dute. Elkarri adi egonik, alderdiak seguru sentitzeko moduko espazio bat bermatzen saiatuko dira, elkarriketa egiazale bati ekin ahal izateko.

Intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatzeko bermeak ematen direnean, alderdiek aukera gehiago dute gertakarien kausei eta ondorioei buruzko esperientziak elkarri kontatzeko.

Kaltea erreparatzearen printzipioa

Prozesu errestauratiboaren helburua da justizia-esperientzia esanguratsu bat ematea. Galdu, kaltetu edo bortxatu dena berreskuratzen saiatu behar dugu, eta kalte hori eragin duenari heltzen ere bai. Modu horretan lortuko dugu justizia-esperientzia esanguratsu bat. Erreparatu beharreko kaltearen erantzukizuna bere gain hartzeak ere xede berbera du; alegia, berriz kalte egiteari uko egitea.

Gatazkaren edo kaltearen arabera, modu batean edo bestean egin daiteke erreparazioa. Batzuetan, erreparazio material edo sinboliko baten bitartez errepara daitezke harremanak, pertsonen zigorrek baino gogobetetasun handiagoa emanen dien elementuen bitartez. Kaltea ez errepikatzeko elementuen bidez ere lor daiteke erreparazioa. Era berean, gerta daiteke erreparazioa ezinezkoa izatea eta, hala ere, alderdiek prozesuarekin jarraitu nahi izatea, egoera lehiatik kanpo kudeatzeko aukera ematen dielako. Gerta liteke, adibidez, biktimaren eta biktimagilearen arteko harremana konponezina izatea, baina biek ala biek "harreman ezaren" terminoak adostu nahi izatea. Hain zuzen ere, adostasun horrek bide ematen die bizi izan duten egoeraren kontrola berreskuratzeko eta ezinegona murrizteko.

3.3. Jardunbide eta prozesu errestituratioak

Praktikan, justizia errestituratioak era askotako bideak jarraitu ditu metodologiari dagokionez. Haren jatorria oraindik ere arlo juridiko penalean kokatzen duten arren, beste alor askotan aplikatu da; esaterako, Administrazio Zuzenbidean⁷.

NBEk zigor-arloko justizia errestituratioko programak aplikatzeko oinarritzko printzipioen deklarazioa egin zuen 2002. urtean. Idazki horretan, prozesu errestituratioba kontzeptuaren bidez prozesu jakin batzuk izendatu zituen: «biktimak eta ofentsagileak eta, egokia denean, delitu batek kaltetutako beste edozein gizabanakok edo kidek elkarrekin parte hartzen dute delitutik eratorritako gaiak ebazteko; normalean, bideratzaile baten laguntzarekin. Prozesu errestituratioben barruan bitartekaritza, adiskidetzeta, konferentzia eta epai zirkularrak egon daitezke» (NBE, 2002). Justizia Errestituratioben Eskuliburu eguneratuan (UNODC, 2020), jardunbide

7 Administrazio Zuzenbidearen esparruan gauzatutako hainbat bitartekaritza-esperientzia ezagutzen ditugu. Horietako bat administrazioarekiko auzien bitartekaritza-programa da, eta Katalunian egiten da 2017az geroztik. Bitartekaritzarako Gida Metodologiko bat du, Bartzelonako administrazioarekiko auzien epaitegietan baliatzen dena. Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak 2020/11/10ean hartutako akordioaren bidez onartu zen programa hori (Raga Marimon eta Ferré Gir, 2023). Defentsa-erakundearen arloan, Andaluziako Arartekoak bitartekaritza-zerbitzu bat sortu zuen 2018an. Erakundearen barruan funtzionatzen du, eta kexa kopuru handi bati erantzuten dio bitartekaritzaren bitartez. Era berean, beste defentsa-erakunde autonomiko batzuk ere ari dira ekimen horiek gauzatzen; besteak beste, EAEko Arartekoa edo Aragoiko Justizia Erakundea. Síndic de Greuges de Catalunya buruzko 24/2009 Legeak ahalmena ematen dio erakunde horri bitartekaritza, adiskidetzeta edo eztabaidak proposatzeko eta, baliabide horien eskutik, herritarren eta administrazioaren arteko gatazkak tratatzeko, hala gomendatzen duten kexak izapidetzeko. Giménez-Salinas Greugeseko sindiko ari denetik, hainbat jarduera egin dira kultura errestituratioba erakundean modu transbertsealean txertatzeko. Adibidez, ikuspegi errestituratioba batetik aztertu dira kexak, eta, bideragarria gertatu denean, herritarren eta inplikaturako administrazioaren artean prozesu errestituratioba bat egiteko proposamenak egin dira. Administrazioen eta Síndic de Greuges erakundearen arteko lankidetzarako formulak ere indartzen ari dira, sisteman bidegabekeriak edo disfuntzioak errepikatuz gero, politika publikoen transformazioan aurrerapausoak eman daitezkeen (Síndic de Greuges de Catalunya, 2024).

errestauratiboa eta prozesua maila berean kokatzen dira, eta, ondorioz, sinonimo trukagarritzat hartzen dira biak.

2012an, Errestaurazio Praktiken Nazioarteko Institutuak honela definitu zituen jardunbide errestitatiboak: «gizarte-zientzia bat dira, eta kapital soziala nola sortu eta diziiplina sozial bat nola lortu aztertzen dute, ikaskuntza eta erabaki parte-hartzaileen bidez». Institutu horren arabera, jardunbide errestitatiboen barruan sartuta daude prozesu informalak eta formalak; hau da, komunitatea gatazkak eta ekintza txarrak prebenitzeko proaktiboki prestatzen dutenak (Wachtel, 2012).

Gida honetan, terminologia argitze aldera eta unibertsitateko kudeaketaren konplexutasuna kontuan hartuta, jardunbide errestitatibo esanen diegu prozesu informalei edo ez hain formalei, eta prozesu errestitatiboa kontzeptua baliatuko dugu prozesu formalak izendatzeko. Hiru irizpide hartzen dira kontuan formaltasuna zehazteko:

1. Kaltearen larritasun objektiboa (dagozkion arau-esparruak), larritasun subjektiboa (kaltea jasaten duenaren bizipena eta pertzepzioa) eta prozesuaren faseak. Bestalde, hauek dira fase horiek:
 - Prozesuaren bideragarritasuna deskribatzea.
 - Parte-hartzaileak prestatzea.
 - Jardunbide edo prozesu errestitatibo egokiena hautatzea.
 - Jardunbidearen edo prozesuaren emaitzaren jarraipena egitea.
2. Pertsona kualifikatu eta profesional baten parte hartzea, prozesu errestitatiboetan akreditatua eta aditua⁸.

8 Horri dagokionez, bitartekaritza-zibilean aditua izatea ez da nahikoa. Prozesu errestitatiboetako bideratzaileek prestakuntza espezifiko behar dute. Biktimizazio- eta desbiktimizazio-prozesuak eta biktimenganako arreta psikosozialak kontrolatu behar dituzte, baita traumaren praktika informatua ere, nazioarteko erakundeek beren estandarretan gomendatzen duten bezala. Kasuaren arabera komeni da beste prestakuntza espezifiko bat egitea, landu beharreko kaltearen tipologiarekin lotutakoa.

3. Eremu espezifikoa eta programatutako denbora, espontaneoak izan ohi diren praktika ez-formaletan ez bezala.

Jardunbide errestituratioak, eta horien estrategiak, dinamikak eta tresnak, proaktiboak eta errespontsiboak izan daitezke. Prozesu errestituratioak ekintza kaltegarrieti erantzuteko baino ez dira errespontsiboak, edota diziplina- eta zigor-neurriak ezarri ondoren.

Jardunbide errestituratio ohikoenak ezagutzeko, ikus Jardunbide eta prozesu errestituratioen oinarritzko deskribapena atala. Espainian, hauek dira prozesu errestituratio ezagunenak: bitartekaritza errestituratioa (Olalde, 2017; 2023), topaketa errestituratioak (Pascual, 2013), zirkulu eta bilera errestituratioak⁹ (Giménez-Salinas eta Rodríguez, 2020; UNODC, 2020) eta biktimizazio larrietan egindako ibilbide errestituratioak (Varona, 2020).

9 Bilerak errestituratio esaten diegu bibliografian Konferentzia (Komunitatearena edo Talde familiarrena) edo Conferencing izenekin aipatu ohi diren bilerei. Kontzeptuen anbigotasuna ekin nahi dugu, horrela.

4. Ikuspegi errestauratiboa

Unibertsitateko Bizikidetzaz Legearen

testuinguruan (LCU)

LCU onartzearen helburua zen ikasleei Estatu sozial eta demokratiko baten arabera diziiplina-araubidea ematea. Modu horretan, 1954ko irailaren 8ko Dekretuko Diziiplina Akademikoaren Erregelamendua indargabetu zen; izan ere, konstituziok kontrakotasun-arazoak izan arren, erregelamendu horrek finkatzen zuen ikasleen diziiplina-araubidea. LCU, beraz, egungo garaietara egokitutako arau berri bat da, eta beste herrialde askotan dagoenarekin homologatu daiteke. Unibertsitateko testuingurua nahiko homogeneoa denez, beste esperientzia batzuek aberastu egin gaitzakete. Araudi horrek oinarri batzuk baino ez ditu finkatzen, eta unibertsitateei uzten die beren Bizikidetzaz Arauak idazteko ardura. Oso desiragarria litzateke arau horiek egiteko prozesuan unibertsitateko komunitate osoa barneratzea.

Espero zitekeen bezala, LCUn hitzaurreak Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikotik (zehazki, 4.1 artikulutik) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikotik ondorioztatzen diren printzipioak ere onartzen eta babesten ditu, Espainiako hezkuntza-sistemak ahalegindu egin behar baitu emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna oztopatzen duten trabak ezabatzen eta gatazkak prebenitzeko eta modu baketsuan konpontzeko prestakuntza ematen. 3.3. artikuluan beste lege bati egiten dio erreferentzia (uztailaren 11ko 19/2007 legegari, alegia) indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkakoa, eta hori Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 legearen 8.j artikuluekin lotuta; eta beste horrenbesteko garrantzia duen honi ere bai: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

Diziplina-araubide berri bat arautuz, LCUK unibertsitate-esparruan sor daitezkeen gatazken ikuspegi berri bat txertatu nahi du, eta gatazka horiek testuinguru zabalago batean aztertu. Zentzu horretan, diziplina-araubidetik haratago joan daitezkeen eta irismen integrala eta ulergarria duten esku-hartzeak gauzatu behar dira, eta bizikidetzan eta harreman osasungarrien eraikuntzan jarri behar da arreta. LCUK zigor-araubidea nola egituratzen duen ikusita, agerian jartzen da aurreko sistema, zigorrean oinarritua, gainditzeko borondatea. Gatazkak prebenitzeko eta modu baketsuan konpontzeko modu eraikitzaileei eman nahi zaie lehentasuna, hala nola bitartekaritzari (Loredó, 2023). Esparru horrekin bat, eta zehapenei helburu hezitzailea emateko asmoz, LCUK zehapenen ordeztatu «neurri hezitzaileak eta errekupeperatzaileak» ezartzeko aukera ematen du falta larrietan.

Paradigma errestitauratiboa bultzatu eta zenbait testuingurutan aztertu dugunontzat, erabat logikoa da, arau-hauste baten aurrean, zehapena edo zigorra azken aukeratzat hartzea eta erantzun eraikitzaileak baliatzea. Ikuspegi errestitauratiboaren barruan, ordeza, helburu «hezitzaileak eta errekupeperatzaileak» ez du baldintzatu behar biktimarenganako erantzukizuna, ezta kaltearen erreparazioa ere. Baldintza hori are garrantzitsuagoa da gazteek egindako delituen aurrean, horrelako kasu batean gauzatu baitzen lehen aldiz justizia errestitauratiboaren paradigmaten araberrako prozesu bat; ordu hartan, biktimaren eta arau-hauslearen arteko bitartekaritzaren bidez. Kasu hura, Espainian ez ezik, Europa osoan izan zen aitzindaria. Horregatik, beti azpimarratzen da justizia errestitauratiboa ez dela «irtenbide hobeza» araua hautsi duenarentzat, eta, beraz, beharrezkoa dela, hezkuntza-helburuei lehentasuna emanez gero, bestelako helburu batzuk baliogabetuta ez geratzea (Gimenez-Salinas, 1993; 1999b). Zentzu horretan, justizia errestitauratiboaren paradigmatik biktimaren beharrak, ingurunea, komunitatea, kaltearen erreparazioa eta harremanak erdigunean jartzea eskatzen du. Elementu horiek gidatu behar dute esku-hartzea, kaltea eragin duen pertsona edo pertsonak heztearekin eta errekupeperatzearekin batera. Biktimaren erreparazioaren

garrantziari eustea berebizikoa da; izan ere, sarritan, biktimak helburu hezitzailea lortzeko erabili izana salatu da.

Legearen hitzaurreak iragartzen duenez, «(...) unibertsitate-komunitatean adostutako bizikidetza baketsuko arauak unibertsitate-sistema osoa hobetzeko elementuak dira». Espainiako Konstituzioaren 27.10 artikuluan finkatutako unibertsitate-autonomiaren printzipioa aipatzen da, unibertsitateek, LCUⁿ aurreikusitako oinarrietatik abiatuta, modu zabalago eta osoagoan landu ditzaten «(...) unibertsitate-komunitateko kide guztien arteko bizikidetza aktiboa eta erantzunkidetasuna sustatzeko neurriak eta esku-hartzeak (...)».

Ikuspegi errestauratibo batetik, azpimarratu behar dugu oso garrantzitsua dela Bizikidetza Arauak parte-hartze prozesu batean lortutako adostasunaren emaitza izatea eta prozesu horretan unibertsitate-komunitate osoko ordezkariak parte hartzea. Baldintza horiek betetzen badira, inplikaturako pertsona guztien ikuspegiaren sintesi bat osatuko dute arauak, eta haienak direla sentituko dute. Horri esker, unibertsitate-esparruko sektore guztiek kontakizun partekatu bat eraikiko dute, bai bizikidetzari aurrean, baita bizikidetza eraikitzeke eta mantentzeko hartu beharreko neurrien aurrean ere.

4.1. LCUren xedea eta alor subjektiboa

LCUren 1. artikulua azaltzen duenez, Legeak unibertsitateko bizikidetzaren oinarriak ezartzen ditu, eta, ahal dela, «(...) modalitate alternatiboak sustatzen ditu bizikidetza alda dezaketen gatazkak edo irakaskuntzako, ikerketako eta jakintzaren transferentziako funtsezko funtzioak normaltasunez garatzea eragozten duten gatazkak konpontzeko».

Era berean, LCUk, II. tituluan, unibertsitateko ikasleen diziplina-araubidea arautzen du, eta bereizi egiten du, batetik, irakasleen eta ikertzaileen araubidetik, eta, bestetik, teknikarien, kudeatzaileen eta zerbitzueta eta administrazioetako langileen araubidetik, bi talde horien araubideak beste araudi espezifiko

batzuetan finkatuta baitaude. Ikasleei bakarrik aplikatzen zaie, hortaz. Nolanahi ere, atariko tituluak, xedapen orokorrak jasotzen dituenak, eta I. tituluak, bizikidetza-gatazkak konpontzeko bitarteko alternatiboei buruzkoa, unibertsitate publikoetako komunitate kide guztiei eragiten diete. Horren barruan sartzen dira ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZEL langileak.

Unibertsitate pribatuek eta atxikitako ikastegiek beren Bizikidetza Arauak egiten dituzte, baina LCUⁿ aurreikusitako bizikidetza-printzipioak eta -jarraibideak errespetatuz.

Lehen xedapen gehigarriak agintzen duen bezala, Defentsa, Guardia Zibil eta Polizia Nazionaleko unibertsitate-zentroen sistemako ikasleei ere aplikatuko zaie LCU, alor militarreko eta Polizia Nazionalerako aurreikusitako arau-hausteekin bateraezina denean izan ezik.

4.2. Prebentzio-neurriak

LCUren 4. artikuluan indarkeriaren, diskriminazioaren edo jazarpenaren aurkako prebentzio- eta erantzun-neurriak lantzen dira. Unibertsitate bakoitzeko Bizikidetza Arauek arautu eta jaso behar dituzte neurri horiek, eta ikasleei, irakasleei, ikertzaileei eta TEKAZEL langileei aplikatuko zaizkie.

Artikulu horretan zenbait alderdi zehazten dira, Bizikidetza Arauek prebentzio-neurriak erregulatzen dituztenean bete beharrekoak. Zentzu horretan, hitzaurrean aipatzen bezala, genero-ikuspegia txertatu behar dute, eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunari eta genero-indarkeriaren aurkako babes integralari buruzko arauetara egokitu behar dute, eta bat etorri behar dute Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoarekin.

Legeak probentzioaren ikuspegia ere aipatzen du, guk defendatutako Unibertsitate Errestauratiboan bereizgarri bat¹⁰. 4.2 artikulua dioenez, lehen mailako prebentzio-neurriak arautu behar dira aniztasunarekiko errespetua sustatzeko, hala nola sensibilizazioa, kontzientziazioa eta prestakuntza. Bigarren mailako prebentzio-neurriak arrisku-egoerak eta -faktoreak kudeatzera bideratuko dira, arrisku horiek indarkeria-, diskriminazio- edo jazarpen-egoera bihur ez daitezzen. Azkenik, gatazka edo kalteren bat gertatu den egoeretarako, Bizikidetza Arauek kexak edo salaketak aurkezteko mekanismoak ezarri behar dituzte. Era berean, esplizituki esaten da biktimei laguntzeko neurriak bultzatu behar direla, biktimen errekonstruzio-prozesuan bidelagun jarduteko. Artikulu horren 3. atalean azpimarratzen da Bizikidetza Arauek biktimei arreta emateko neurri egokiak ezarri behar dituztela, eta bermatu egin behar dietela haien eskubideei buruzko informazioa jasotzea eta errekonstruzioan laguntzeko babes psikologikoa eta juridikoa jasotzea¹¹.

Biktimei arreta emateko beharra esplizituki azaltzea aurrerapauso handia da, eta gauza bera esan dezakegu biktimen errekonstruzio-prozesuan beren premiei erantzun ahal izateko mekanismoak egituratzeko beharraz. Alderdi hori guztiz bat dator ikuspegi errestauratiboarekin, kaltea jasaten duen pertsonaren interesek arreta integrala eta konpromiso instituzionala merezi baitute.

Era berean, prebentzioa zer den eta zer dimentsio dituen hausnartu behar da, eta, hala badagokio, unibertsitate bakoitzeko

10 John Burtonek honela definitzen du probentzioa: "gatazka bati aurre egiteko prestatzeko egin dezakegun guztia, gainezka eginen digun krisi bat sortu aurretik" (Burton, 1990). Unibertsitatearen testuinguruan, horrek esan nahi du "hezkuntza-komunitate osoari trebetasun, tresna eta egitura batzuk eman" behar zaizkiola, "gatazkak krisi bilakatu baino lehen erabiltzekoak. Hau da, harreman osasungarriak sortzen dituzten jarrerak eta balioak bultzatu behar dira, gatazkak sortzen hasten direnean, inplikaturako alderdi guztiek ahalik eta hobekien konpondu ahal izan ditzaten" (Gascón, 2001).

11 Neurri horiek bateragarriak izan daitezke abian dagoen prozesu zigortzailearekin, halakorik bada, eta aplikagarriak izanen dira halako prozesurik abiarazi ez denean ere (5. artikulua).

Bizikidetza Arauetan nola jasota datorren aztertu. Unibertsitatean (edo gizarteko beste edozein eremutan) bizikidetza-eremuak eraiki nahi baditugu, gatazkari edo kalteari erantzuten dioten estrategietara (zehapenak izan edo jardunbide errestauratiboak izan) mugatzen ez diren esku-hartzeak planteatu behar ditugu. Bizikidetza horren barruan, baliabide gehiago bideratu behar dira harreman osasungarriak eraikitza.

Illo horretan, prebentzioaren helburua ez da gatazkak desagerraraztea, ezta baimendutakoa edo debekatutakoa zer den arautzea ere. Prebentzioaren xedea esku-hartze eraginkorrek planifikatzea eta ezartzea da, unibertsitate-komunitateko kideen artean elkar hobeki ezagutzeko. Errespetua, aniztasuna, lotura eta harreman positiboak, enpatia, denen ongizatearen aldeko erantzukizun partekatua eta konpromiso kolektiboa sustatu behar ditu, hain zuzen ere.

Ikuspegi errestauratibotik erreparatuta, oso positiboa da LCUK gatazkak konpontzeko metodo alternatiboen erabilera aurreikusi izana, hala nola bitartekaritzarena, eta oso positiboa da metodo horiek arautu izana. Horri esker, modu eraginkorrean jarriko dira abian, eta ez dira geratuko unibertsitate bakoitzaren borondatearen mende. Dena den, hori bezain garrantzitsua da baliabideak esleitzen direla eta benetako estrategiak txertatzen direla bermatzea, horrela lortuko baita, bizikidetza arautzeaz gain, modu eraginkorrean indartzea.

Hainbat egilek (Albertí eta Pedrol, 2017; Cascón, 2001; Hopkins, 2009; Vaandering, 2014) azaldu dute zergatik den hain garrantzitsua, kaltea eragin denean bitartekaritza edo beste prozesu errestauratibo batzuk aplikatu behar badira ere, prebentzio-estategietan inbertitzea; alegia, unibertsitate-komunitatean harreman osasungarriak eraikitzeke balio duten estategietan. Prebentziorako lan egiteak ez du esan nahi gatazka saihesteko lan egin behar denik, gatazka gizatasunaren osagarri bat baita. Aitzitik, baldintza jakin batzuk sortzeko lan egin behar da, eta gatazka, pertsonentzat, aldatzeko eta hazteko aukera bilakarazi.

Hala, Bizikidetza Arauen helburua ez da soilik jokabide onartezinak zigortzea edo ongi eta gaizki zer dagoen arautzea, baizik eta balio demokratikoak eta errespetuzkoak benetan sustatuko dituzten neurriak proposatzea. Hori egiteko, nahitaezkoak dira ikasleen, irakasle-ikertzaileen, TEKAZEL langileen eta irakaskuntzako eta administrazioko zerbitzuen arteko komunikazioa, elkarriketa, harreman osasungarriak eta ezagutza.

Prebentzio-neurri horien adibide batzuk, ziur asko unibertsitate batzuetan abian daudenak, partaidetza-prozesuak izan daitezke. Haietan, ikasleek eta unibertsitate-komunitateko beste kide batzuek parte hartzen dute, interes komuneko gaiak adosteko. Elkarlaneko ikaskuntza-ekimenak ere sar daitezke neurri horien artean, hala nola proiektu transbertsalak. Kasu horietan, hainbat diziplinartako ikasleak batera aritzen dira diziplinarteko ikuspegia eskatzen duten edo unibertsitate-komunitatea kezkatzen duten gai konplexuetan. Ezpal horretakoak dira eskarmentu handiko ikasleen eta iritsi berrien arteko tutoretzak edo mentoretzak, baita ibilbide luzeko irakasleen eta eskarmentu laburragokoen artekoak ere. Halako neurriei esker eratuko dira lotura positiboak sustatuko dituzten laguntza- eta orientazio-harremanak. Era berean, programa edo jarduera ludikoak bultzatu daitezke, ikasgelatik eta ikaskideen ohiko taldetik kanpoko harreman-guneak sortzeko. Ondorengo kapituluetan hainbat prebentzio-mota deskribatuko ditugu.

Harreman eraikitzaileak sortuz eta elkar ezagutuz komunitatea eraikitzen da, eta errotik sustatzen da bizikidetza. Testuinguru horretan, gatazka azaleratzen denean, pertsonak gatazkari modu eraikitzailean eta indarkeriarik gabe aurre egin ahal izateko baldintzak edukiko ditugu, eta horrek aldaketarako eta hazkunderako aukera bihurtuko du gatazka (Albertí eta Pedrol, 2017; Cascón, 2001; Vaandering, 2014).

4.3. Bizikidetza-gatazkak konpontzeko baliabide alternatiboak

Aipatu dugun bezala, LCUren 1. artikulua adierazten du unibertsitateko bizikidetza aztorazketen gatazkak konpontzeko, ahal den neurrian, baliabide alternatiboak erabili behar direla. 5. artikulua zehazten du baliabide alternatibo horiek, bitartekaritza bereziki, Bizikidetza Arauetan araututa egon behar dutela, eta Bizikidetza Arauek erregulatuko dutela nola aplikatuko diren, hala diziplina-prozeduraren aurretik nola diziplina-prozedura abian den bitartean.

Zentzu horretan, Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak (LOSU), 3.2 eta 34.2 artikuluetan zehazki, unibertsitateko bizikidetza, bitartekaritza eta gatazken konponbide baketsua ere aipatzen ditu. LOSUren arabera, unibertsitateei dagokie alderdi horiek garatzea eta erregulatzea, eta ikasleen parte-hartzea bermatuz egin behar dute gainera.

Gogoan izan behar dugu artikulua horretan aipatzen dela zer printzipiok gidatu behar dituzten gatazka konpontzeko baliabide alternatibo horiek: borondatezkotasuna, konfidentzialtasuna, ekitatea, fede ona eta elkarrenganako errespetua, errepresaliak prebenitzea eta debekatzea, malgutasuna, argitasuna eta gardentasuna. Printzipio horiek bat datoz testu honetako 3.2 atalean aipatutako justizia errestitutiboaren paradigmen printzipioekin.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, Bizikidetza Arauek ez dute bitartekaritza arautzea eta zehapenaren ordean baliatzea mugatu behar; aitzitik, lasai asko erabil ditzakete bestelako jardunbide eta prozesu errestitutibo batzuk. LCUa azaletik irakurri gero, pentsa daiteke legegileak bitartekaritzaren aldeko apustua eginen lukeela, eta mekanismo hori besterik erabiliko ez lukeela unibertsitateko gatazkak konpontzeko. 5. artikulua, ordea, ez dio bitartekaritzari aipamen zuzenik egiten, eta «gatazkak konpontzeko baliabide alternatiboak» aipatzen ditu zentzu zabalean. Alegia, unibertsitateek zehaztu behar dituzte baliabide horiek; kasuan kasuan, Autonomia Erkidegoek ezartzen

dutenari kalterik egin gabe. Baliabide alternatibo horiek bitartekaritzan oinarritu behar dute, jatorrizko printzipioak nabarmenduz, baina, era berean, justizia errestauratiboaren printzipioekin, hau da, lehen ikusitako printzipioekin bat etorriko dira beti. Horrek guztiak ez luke balioko soilik kaltea gertatu den egoeretan zehapen alternatibo gisa erabiltzeko; bigarren mailako prebentzio-metodo gisa ere balioko luke. Hau da, tentsio- edo gatazka-egoerei aurre egiteko balioko luke, gatazkak gora egitea eta pertsoneri edo kolektiboari kalte gehiago eragitea saihestuko lituzke eta.

LCUren I. tituluaren bertan, 6. artikulua dio unibertsitateek Bizikidetzaren Batzorde bat eratu behar dutela. Batzorde hori modu paritarioan osatuko dute ikasleen, irakasle-ikertzaileen eta TEKAZEL langileen ordezkariak. Era berean, unibertsitateek, beren eskumenen esparruan, Batzordearen egitura eta funtzionamendua arautuko dituen araudia finkatu behar dute, baita bertako kideak izendatzeko modua ere.

LOSUren 43. artikulua ere aipatu behar dugu, derrigor. Artikulu horren 4. puntuan zehazten denez, unibertsitateko defentsa-erakundeak «bitartekaritzako, adiskidetzeko eta lanbide oneko zereginak har ditzake bere gain». Hori dela eta, uler daiteke, neurri batean, unibertsitateko defentsa-erakundeak ere Bizikidetzaren Batzordeari lagun diezaioketela, bitartekaritza-prozesu bat gauzatzen ari denean. Defentsa-erakundeak Bizikidetzaren Batzordeari laguntzen badiu gatazkak konpontzeko prozesuetan, kontuan izan behar dugu zenbait mekanismok alde aurretik egituratuta behar dutela, organo horrek ikasleen eskubideen defentsan dituen zereginak bermatuta egon daitezela¹².

¹² Hori egin ezean, gerta daiteke ikasle batek, defentsa-erakundeak lagundutako bitartekaritzan parte hartu ondoren, defentsa-erakundera bertara jotzea eta gai berari buruzko kexa bat jartzea unibertsitatearen aurka. Beraz, defentsa-erakundeak, bitartekaritza-prozesuan parte hartzen duenean ere, berezko duen independentziari eta neutraltasunari eutsi behar dio, bitartekaritza-prozesuan dauden ikasleen eskubideak defendatzeko.

4.4. Zehapenaren ordezeko neurriak

20. artikulua zehapenaren ordezeko neurriak aipatzen ditu, eta dio 14.6 artikuluan zerrendatutako falta larrietan soilik aplikatu behar direla. Falta larri baten aurrean, zehapen-organoak, zehapen bat aplikatu beharrean, neurri hezitzaile edo errekuuperatzaile bat aplikatzea erabaki dezake, betiere honako printzipio hauei jarraituz:

- Alderdien adostasun argia behar da.
- Neurriaren xedea kaltea ahalik eta ongien erreparatzea da, baita erreparazioa betetzen dela bermatzeko moduak ezartzea.
- Arau-hausleak bere erantzukizuna aitortu behar du, hala jokabideari dagokionez nola ondorioei dagokienez.
- Arau-haustearen erantzuleak prest egon behar du arau-haustearen eragina jaso duten pertsonekin harremana berrezartzeko, pertsona horiek baimena ematen badute.

Neurri horiek falta oso larrietatik kanpo geratzen dira, eta kontraesankor samarra da hori. Delituak izan daitezkeenean Unibertsitatearen eskumenetik kanpo leudekeela kontuan hartuta, falta oso larriak ez daude zertan baztertu, gure ustez. Zigor-arloko arau-haustea dakarten jokabideek diziplina-prozedura etenen lukete, baina arau-hauste oso larrien gainerako kasuetan ez da Bizikidetza Batzordearen esku-hartzerik baztertzen. Beraz, kasu horietan posible da alderdiek gatazka zehapenik gabe konpontzea. Posible ez dena da zehapena ordezkatzeko, baldin eta zehapena ezarrita badago bitartekaritza-prozesuak porrot egin ondoren. Orduan ez da neurri errestitutiborik edo errekuuperatzaile baliatzen ahalko haren orde.

Era berean, artikulua horren 2. paragrafoak adierazten du zer-nolako jardueratan parte hartzea edo laguntzea har daitekeen neurritzat: prestakuntza-jarduerak, kultura-jarduerak, osasun publikoko jarduerak, kirol-jarduerak, unibertsitate-hedapeneko jarduerak, erakunde-harremanetako jarduerak eta abar. LCUren

arabera, jarduera horiek ezin dira izan unibertsitateko langileei esleitutako zereginak. Artikulu horrek unibertsitate bakoitzaren esku uzten du neurri horien iraupena zehaztea, baina ordezkatzan duten zehapen-motarekiko proportzionalak izanen dira.

Zehapenaren ordezeko neurriak aplikatzeko kontuan hartu behar diren printzipioak bat datoz, neurri handi batean, ikuspegi errestauratiboaren premisekin. Arau-hausleak erantzukizuna aitortzeko printzipioan sakondu behar dugu, oraindik ere ez baitago argi baldintza hori betetzea behar-beharrezkoa den arau-hausleak prozesu errestauratibo bati heldu ahal izateko. Zenbait adituren iritziz, erantzukizuna aitortzea prozesuan zehar landuko den gaietako bat izan daiteke. Hasiera batean, litekeena da arau-hausleak erantzukizuna ez aitortzea edo gertakariak ukatzea. Bere burua babesteko joka dezake horrela, edo hutsegitea oraindik ezin izan duelako bereganatu. Gerta daiteke kaltearen arduradunak, prozesuari ekin aurretik, uste okerra izatea eta errestaurazio-prozesuan epaitu edo kritikatu egingen dutela sinestea. Prozesu errestauratiboan esperientzietatik ondorio hau aterata da: batzuetan, arau-hauslearen ikuspegia sakonago aztertzen denean, kaltearen eta gatazkaren ardura progresiboki bereganatzen duela ikusten da; baina ez hasiera batean planteatutako moduan, baizik eta justizia errestauratiboaren printzipioekin bateragarria den moduan. Batez ere, kontuak ematean ikus daiteke aldaketa hori.

Sektore zabal baten ustez, erantzukizun horren esanahiari buruzko adostasuna lortzea prozesu errestauratiboan egin beharreko lanaren parte da (Chapman et al., 2021). Beraz, prozesuari ekin aurretik, ez dugu zuzenean baztertu behar errestaurazio-prozesu baten edo zehapenaren ordezeko neurri baten bideragarritasuna, baldin eta arau-hausleak oraindik bere erantzukizuna aitortu ez badu. Bestela, zehapenaren ordezeko neurrien edo prozesu errestauratiboan onura jaso ditzaketen kasuak ere baztertuko genituzke.

Beste alde batetik, ikuspegi errestauratiboari jarraituz, prozesua alderdien arteko harremana berrezarritz ixtea libreki erabaki behar dute alderdiek, testu honen 3.2 puntuan esan dugun bezala.

Prozesuak eragindako akordioak baliagarria izan behar du alderdien premietarako, eta harremana berrezartzea alderdiek nahi ez duten zerbait izan daiteke, nahiz eta prozesuan zehar arau-hauslearen jokabideak eragindako zenbait ondorio erreparatu. Kaltea jasan duten pertsona askok ez dute gertakarien aurreko harremanari berriz heldu nahi, halakorik baldin bazegoen; nahiago dute harreman berri eta urrunago baten baldintzak argitu, edo pertsona arau-hauslearekin edo arau-hausleekin inolako harremanik izanen ez dutela adostu. Erraz irudika daitezke halako kasuak. Justizia errestitutiboaren ikuspegitik, ez litzateke koherentea izanen alderdien arteko harremana hobetzeko prestutasuna derrigor eskatzea eta ordezeko neurri bat aplikatzeko erabiltzea; izan ere, gerta daiteke kaltea jasan duenak ez izatea harreman hori hobetzeko premiarik.

4.5. Bitartekaritza errestitutiboaren zeregina diziplina-prozeduran: baimen informatua

19. artikuluan, prozedura hasteko akordioaren edukien artean, bitartekaritza agertzen da, eta horrek esan nahi du kasu guztietan aintzat hartuko dela aukera hori. Bitartekaritza eskaintzea oso positiboa da, aditu gehienen ustez oso garrantzitsua baita justizia errestitutibotik, prozesuari ekin baino lehen, gatazka edo arau-hauste bat ere ez baztertzeara, nahiz eta kasu larriak edo eduki korapilatsuak izan. Hala eta guztiz, alderdiek bitartekaritza onartzeko edo baztertzeko erabaki informatua hartzen dutela ziurtatzeko, informazio egiazkoa eta ulergarria jaso dutela bermatu behar dugu; alegia, bitartekaritza zer den eta horren ondorioak zein izan daitezkeen badakitela.

Zuzenbide pribatuaren (familiak, enpresak), komunitarioaren edo zigor-zuzenbidearen esparruan bitartekaritza- edo justizia errestitutiboko zerbitzu ugari egiten diren arren, pertsona gehienek oraindik ez dakite zer dakarren bitartekaritza-prozesuak. Ez dakite zer ahalegin eskatuko dien eta zer abantaila izan ditzakeen. Ezjakintasun horren ondorioz, informazioa behar bezala eta osorik jaso ez dutenean, alderdiek parte hartzeari uko

egiten diote maiz, prozesuak ekarriko dienari buruzko aurreiritzien erruz.

Bitartekaritza bakarka eskaini behar zaio alderdi bakoitzari, pribatutasun-eremu batean, pertsonak zertan datzan ulertu, galderak egin, kezkak planteatu eta, hala badagokio, komeni zaien ala ez askatasunez ebaluatu ahal izan dezaten.

19. artikuluko c) atalak adierazten duen moduan, alderdiek bitartekaritza (esanahi zabalean, hau da, prozesu errestauratiboak barne hartuta) heltzeko borondatea adierazi badute, Bizikidetza Batzordeak erabakiko du bitartekaritza benetan egokia den edo kasua instruktoreari itzuliko zaion, hark diziplina-prozedurarekin jarraitu eta kargu-orria formulatu dezan.

Kontuan izan behar dugu, printzipio errestauratiboak errespetatzeko, inplikaturako alderdiek erabaki behar dutela ea egokia den bitartekaritza edo, hala badagokio, beste prozesu errestauratibo bat erabiltzea. Borondatezotasun- eta parte-hartze-printzipioak lotuta daude aitortza horrekin, hots, inplikaturako pertsonak beren gatazka tratatzeko eta aukerarik onena zein den neurtzeko gai direla aitortzearekin. Gatazkan inplikaturako pertsonak erabakiko dute inork baino hobeki zein den komeni zaien aukera, baina hausnarketarako gune bat eta har ditzaketen bideei buruzko informazio garrantzitsu guztia eman behar zaie horretarako.

Ikuspegi errestauratibotik begiratuta, Bizikidetza Batzordeak bitartekaritza ez baimentzeko har dezakeen erabakiak alderdiekin alde aurretik egindako lan bat izan behar luke oinarri, eta ez aldebakarreko eta alderdietatik kanpoko erabakirik. Kasu batzuetan, alderdien erabaki informatua izanda ere, baliteke bideratzaileek bestela pentsatzea eta bitartekaritzarekin jarraitzea alderdientzat arriskutsua dela sinestea, eta erakundeak arrisku hori bere gain hartu nahi ez izatea. Hori dela eta, Bizikidetza Arauek argi eta garbi deskribatu beharko lukete zein diren salbuespenak; alegia, zein kasutan urra daitekeen alderdiek bitartekaritza-prozesu batean edo beste prozesu errestauratibo batzuetan parte hartzeko duten borondatea.

Prozesu horiek, oro har, zailak direla esatera ausartuko ginateke. Horregatik, gogoan izan behar dugu erabakian parte hartuko duten organoek, aldez aurretik, prestakuntza espezializatua jaso behar dutela prozesu errestituratuotan eta gatazkak konpontzeko metodo alternatiboetan. Ez soilik bitartekariak, baita esku hartzen duten beste instantzia batzuek ere. Betebehar hori Espainiako sistema juridikoari aplikatu dakioke, baina unibertsitate guztiek barneratu beharko lukete beren araudietan. Prozesua gidatu behar duten pertsonak behar bezala prestatuta ez badaude, inplikaturako «pertsonen hobe beharrez» edo «pertsonen arabera» erabakiko dute bitartekaritzaren edo prozesu errestituratuotaren egokitasuna, eta ez inplikaturako «pertsonekin batera». Esanda doa azken aukera hori dela desiragarriena (Vaandering, 2014).

4.5.1. Bitartekaritza errestituratuoa sexu-indarkeriako kasuetan

Illo horretan, genero-indarkeriaren biktimek prozesu errestituratuotan parte hartzeari dagokionez, zenbait sektorek adierazitako prebentzioak eta errezeloak aipatu behar ditugu. Genero-indarkeriako egoeretan, sexu-jazarpena barne, botere-desoreka sortzen da askotan, eta biktimgileak, beste bitarteko batzuen bidez, biktimgaren hertsadura eragiten jarrai dezake. Botere-dinamika horiek biktimgaren borondatezkitasuna arriskuan jar dezakete. Biktimgilearen presioaren eraginez, prozesu batean parte hartzea onar dezake biktimgak, edo prozesua bera zeharo baldintzatuta gera daiteke. Kasu batean zein bestean, bigarren mailako biktimgizazio-egoera sortuko litzateke.

Emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean (Istanbulgo Hitzarmena ere esaten zaio), Espainiak 2011an berretsitako hitzarmenean hain justu, 48. artikuluan jasotzen da kezka hori. Artikulu horrek debekatu egiten du, Hitzarmenaren xede diren indarkeria mota guztietarako,

bitarteko alternatiboetara ezinbestez jotzea, eta bitartekaritza eta adiskidetzea ere debeku horren mende daude. Bitartekotzatik kanpo uztearen atzean emakumearen aurkako indarkerian errepikatzen diren berariazko botere-dinamikak daude, baita emakumea biktimagilearengandik babesteko borondatea ere. Hori dela eta, Istanbulgo Hitzarmenak debekatu egiten du genero-indarkeriaren biktima behartzea eta gatazkak konpontzeko prozesu alternatibo bat abiaraztera bultzatzea. Hitzarmenean hitzez hitz aipatzen ez bada ere, biktima beste prozesu errestauratibo batean parte hartzera behartzeak ere ez luke inolako fundamenturik.

Beraz, unibertsitatearen esparruan aurreikusita badago, ikusi den bezala, gatazkak konpontzeko edo prozesu errestauratiborako mekanismo alternatiboak ez direla nahitaezkoak eta biktimak baimen informatua askatasun osoz eman ahal izateko bitartekoak bermatzen direla, pentsatzekoa da Istanbulgo Hitzarmenaren debekua ez litzatekeela aplikagarria izanen.

Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Istanbulgo Hitzarmena baino lehenagokoa bada ere, 44.5 artikuluan adierazten du Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegiaren eskumenekoak diren gaietan ezin dela bitartekaritzarik egin. Arau horretan ez da zehazten bitartekaritza-prozesurako sarbideak nolakoa izan behar duen, eta, beraz, borondatezkotasuna bermatzen bada edo alderdientzat bitartekaritza-prozesua hastea nahitaezkoa bada, ezinezkoa izanen da bitartekaritza-prozesu hori gauzatzea Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegia eskumenekoak diren gaietan. Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak, gerora, beto hori finkatu du. Azken xedapenetako hamabigarrenean, Delituaren Biktimaren Estatutuaren 4/2015 Legea aldatzen du, hauxe zehaztean «(...) nolanahi ere, debekatuta egonen da bitartekaritza eta kontziliazioa sexu-indarkeria eta genero-indarkeria kasuetan» (Romero, 2023a).

Asko eztabaidatu da debeku horri buruz, eta doktrinaren sektore garrantzitsu bat haren aurka azaldu da¹³. «Babesteko» borondatearen aitzakian, iraganetik jasotako eredu paternalista errepikatzen duela eta emakumea gutxiagotasun-maila batean kokatzen duela egotzi diote betoari; izan ere, erasotzailearekin praktika errestituatibo bat hasi nahi duen edo ez erabakitze gaitasuna ukatzen baitio emakumeari. Egia da emakumeak presiorik edo eragin desegokirik gabe onartzen duela ziurtatu beharko dugu beti, eta erne egon beharko dugu, prozesu errestituatiboan botere-desorekak edo nahi ez diren beste ondorio batzuk errepika ez daitezen, ezta emakumearen birbiktimizaziorik ere. Hori kontuan hartuta ere, gure ustez, emakumeak genero-indarkeriako kasuetarako jardunbide eta prozesu errestituatiboetatik kanpo utziko bagenu, beste behin ukatuko genieke erabakitze eta beren bizitzaren eragile izateko gaitasuna, baita beren identitatea ere. Alegia, emakumeak sozialki baztertzeko beste modu bat izanen litzateke, eta alde batera utziko litzuke prozesu errestituatiboan une oro bete behar diren bermeak.

Justizia errestituatiboaren balioak eta printzipioak aintzat hartuta, prozesu errestituatiboek ekiteko ezinbestekoak dira alderdien borondatea eta baimen informatua. Ukaezina da hori. Batez ere, funtsezkoa da biktimen eskubideak eta erabakitze askatasuna errespetatzea. Prozesu errestituatiboak abiaraztean kontuan hartu behar dira biktimen autonomia, segurtasuna eta ongizatea. Are gehiago sexu-delituetan, botere-dinamikak eta trauma potentzialak arrisku handiak dira eta. Dударik gabe, bigarren mailako biktimizazioa saihestu behar da; arrisku hori nabaria litzateke biktimaren segurtasuna bermatzerik ez bagenu, haren eskumena zalantzan jarriko bagenu eta prozesu errestituatibo batean parte hartu nahi duen ala ez aukeratzeko

¹³ Ikus, adibide gisa, Kriminologiaren Euskal Institutuko justizia errestituatiboaren teoriaren eta praktikaren laborategiak egindako dokumentua: Reflexión crítica sobre la prohibición normativa española para desarrollar procesos de mediación en violencia de género y violencia sexual (2024). Espainiako zein nazioarteko ehun eta hamabost adituk eman zioten babesa dokumentu horri.

askatasuna murriztuko bagenio (European Forum for Restorative Justice, 2021).

Horregatik, kontuan izan behar da neurri egokiak har daitezkeela biktimak babesteko, prozesu errestauratibo batek zer eskain diezaiekeen behar bezala jakinarazteko eta, ondorioz, parte hartu nahi duten edo ez libreki erabaki ahal izateko. Biktimari behar bezalako laguntza bermatzen bazaio eta tartean sor daitezkeen botere-dinamika konplexuak ekiditeko neurriak hartzen badira, orduan, prozesu errestauratiboa aukera bat izan daiteke biktima ahalduztzeko. Hark nahiko balu, kontrolaren zentzua berreskuratzeko eta delituaren ondorioz eragiten dioten erabakietan aktiboki parte hartzeko aukera izanen luke (European Forum for Restorative Justice, 2021; Wemmers et al., 2023).

Prozesu errestauratiboak sexu-jazarpenera edo emakumearen aurkako beste edozein indarkeria-motataraz egokitzeko, botere-desorekak kudeatu behar dira, eta, horretarako, mahai gainean jarri behar da, adibidez, biktimak prozesuan laguntza profesionalak edo gertuko pertsonen laguntzak jasotzeko aukera. Biktimak baimen informatua eman duela bermatzea ere ezinbestekoa da. Baimena inork eta ezerk baldintzatu gabe eman duela bermatu behar da, eta une oro eman behar zaio testuinguru seguru bat (European Forum for Restorative Justice, 2021).

Prozesu errestauratiboak neurri horiek kontuan hartzen baditu, biktimak aukera izanen du bere beharrak adierazteko eta arazoari nola aurre egin erabakitzeko ahalmena duela ikusteko. Era berean, biktimagileak erantzukizuna bere gain hartzeko eta berriz ez gertatzeko neurriak hartzeko aukera izanen du. Alderdien edo unibertsitate-komunitatearen inguruko pertsonen parte-hartzeak biktimaren segurtasuna eta ongizatea indartzen lagun dezake, eta arau-hausleari ere lagun diezaioke, erantzukizuna bere gain hartzen eta birgizarteratzen. Lehen esan bezala, emakumeei aukera hori ukatuko balitzaie, berriz ere hartuak izanen lirateke bigarren mailako herritartzat.

4.5.2. Bitartekaritza-prozesu errestauratiboaren oinarriak

LCUren 22. artikulua deskribatzen du nola jokatu behar duen Bizikidetza Batzordeak espediente bat jasotzen duenean eta alderdiek bitartekaritza bat egiteko eskatu edo onartu dutenean. 19 c) artikuluan zehazten den bezala, batzorde horrek erabakiko du bitartekaritza egitea egokia den edo instruktoreari itzuli behar zaion, diziplina-prozedurarekin jarraitzeko. Horri dagokionez, lehen aipatutakoari eusten diogu: garrantzitsua da alderdien borondatea errespetatzea eta Bizikidetza Batzordeak borondate hori noiz urra dezakeen ahal beste mugatzea.

Bizikidetza Batzordean kasua aurkeztu ondoren, unibertsitate bakoitzeko araudian arautu beharko da zer prozeduraren bitartez gauzatuko den bitartekaritza-prozesua. Ildo horretan, gogoan izan positiboa izanen litzatekeela, Bizikidetza Arauek, bitartekaritzara mugatu beharrean, gatazkak konpontzeko hainbat baliabidetara jotzeko aukera arautzea, hala nola prozesu errestauratiboetara. Aukera horri esker, alderdien beharretara hobeak egokitzen den baliabidea eskaintzen ahalko litzateke.

Lehen adierazi bezala, funtsezkoa da prozesu horiek egin behar dituzten pertsonak beharrezko prestakuntza dutela bermatzea, baita prozesuak behar diren bermeekin gauzatu ahal izateko baliabideak dituztela ziurtatzea ere. Berebizikoa da, gainera, alderdiekin egindako elkarriketak eta, egokitze jotzen bada, alderdien arteko topaketak eremu aproposetan gauzatuko direla bermatzea.

LCUren 22. artikuluan 4. paragrafoak adierazten du alderdiek bitartekaritza-prozesuaren ondorioz lortu duten akordioa idatziz jaso behar dela. Alderdi bakoitzak akordioaren ale bat gorde behar du, eta Bizikidetza Batzordeak ere beste bat edukiko du, espedientean egon dadin.

4.5.3. Bitartekaritza-prozesu errestauratibo baten emaitza

LCUk aurreikusten du diziplina-espedientea artxibatzea, baldin eta alderdiek bitartekaritza-akordio bat lortzen badute. Bitartekaritza-akordio bat diziplina-prozedura burutzeko nahikoa dela ulertzean ematen diegu balio osoa alderdiek beren arteko gatazka konpontzeko duten gaitasunari.

Halaber, aipatutako Legearen 19 f) artikulua jasotzen du zer modutara burutu daitekeen diziplina-prozedura bat bitartekaritarik gauzatzen ez denean: «f) Zehapen-ebazpena, artxiboa, erantzukizuna borondatez aitortzea, iraungitze-adierazpena, unibertsitateak atzera egitea edo gerora sortutako arrazoiengatik ezintasun materiala izatea».

4.6. LCUren esparruko ikuspegi errestauratiboari buruzko hausnarketak, sexu-jazarpenaren aurrean

Sexu-jazarpena egoera larria da esparru askotan, baita unibertsitatean ere. Konplexutasun handiko kontua da, gainera.

LCUk ez du sexu-jazarpenari buruzko definiziorik ematen, baina 3.3 artikulua Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 7. artikulura jotzen du. Artikulu horren arabera: «1. Sexu-jazarpena da, Zigor Kodeak ezartzen duenaren kalterik gabe, sexu-izaerako edozein jokabide ahozko edo fisiko zeinaren xede edo ondorio baita pertsonaren duintasunaren aurka egitea, batez ere inguru larderiak, apalesgarri edo iraingarri bat sortzen denean. 2. Sexuan oinarritutako jazarpena da pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede nahiz ondorio dituen pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiak, apalesgarria eta ofentsakoa den ingurua sortzea. 3. Edozein kasutan, bereizkeriatzat joko dira sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena».

LCUren 11. c) artikulua arabera, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena oso falta larria da. Bestalde, 8.4 artikulua zehazten duenez, diziplina-prozedura baten instrukzioan egitate bat delitu izan daitekeela uste bada, izapidetzea eten behar da eta Fiskaltzari jakinarazi behar zaio. Zigor Kodearen 184. artikuluan sexu-jazarpena tipifikatuta dagoela kontuan hartuta, pentsatzekoa da unibertsitatean sexu-jazarpenerako egoera bat salatzea erraz sar daitekeela manu horietan deskribatutako jokabideetan, eta horrek prozesua geldiaraztea ekarriko lukeela.

Hala ere, beste behin gogorarazi nahi dugu zaila dela egoerak bereiztea eta garrantzitsua dela prebentzioa; batez ere, sexu-jazarpenerako jokabideak hasiberriak direnean eta egoera larriagotzea eragotziko lukeen erantzun egoki bat jaso dezaketenean. Beraz, LCUren eta unibertsitate bakoitzeko Bizikidetza Arauen esparruan egin daitekeena da biktimaren beharrei erantzutea eta prebentzio-jarduerak indartu ote daitezkeen azterzea. Hori guztia, noski, Fiskaltzari informazioa emateaz gain. Ildo horretan, LCUK guztiz errestitutiboak diren ezaugarriak aipatzen ditu, biktima erdigunean jartzen baitute. Horrelakoa da, esaterako, 4.2 artikuluan ezartzen dena: Bizikidetza Arauek biktimei bidelagun aritzeko neurriak bultzatu beharko dituzte biktimaren errestitutazioan zehar. Era berean, 4. artikuluko bereko 3. paragrafoak ezartzen duenez, Bizikidetza Arauek «neurri egokiak eta tresna egokiak antolatu beharko dituzte biktimei, une oro, beren eskubideei buruzko informazioa bermatzeko, baita haien errestitutazioari lagunduko dion laguntza psikologikoa eta juridikoa bermatzeko».

18. artikulua, diziplina-prozeduraren printzipioei buruzkoak, e) atalean argi adierazten du «(...) indarkeria, diskriminazioa edo jazarpena izan daitezkeen jokabideekin» zerikusia duten kasuetan, 4.4 artikuluan ezarritako printzipioak aplikatuko direla. Era berean, biktimei laguntza psikologikoa eta juridikoa emateko neurri eta tresna egokiak bermatu beharko dira. Unibertsitatean ardura izanen da laguntza hori, biktimak hala adierazten badu, haren sexu bereko pertsonengandik jasotzea, eta dagozkion protokolo espezifikoak aplikatuko dituzte horretarako».

LCUren arabera, biktimei beti emanen zaie arreta ikuspegi juridikotik eta psikologikotik, eta ez soilik gertaerak baieztatzen badira. Hain zuzen ere, diziplina-prozedura izapidetzean hartu beharreko behin-behineko neurria izanen da arreta hori jasotzea.

Ildo horretan, funtsezkoa da unibertsitateek protokolo argiak izatea sexu-jazarpenaren biktimak identifikatzeko eta haiei laguntza eskaintzeko, baita biktimak salatzea erabaki ez duen kasuetan ere. Prestakuntza espezializatua duten profesionalak jardun behar dute protokoloetan; izan ere, salaketa jartzea erabaki edo ez, biktimek arreta eta laguntza jasotzeko aukera izan behar dute.

Biktima babesteko neurriak hartzea kontu konplexuagoa da. Gerta daiteke ustezko biktimagileak unibertsitatera joaten jarraitzea, edota ikasgelan hark eta biktimak topo egitea. Biktima babesteko neurriek nekez mugatzen ahalko dituzte ustezko biktimagilearen askatasunak eta eskubideak, tartean ebazpen judizialik ez bada¹⁴. Egoera horretan, protagonisten arteko komunikazio-prozesu errestauratibo bat ahalbidetzea izan daiteke aukera bat. Zuzeneko edo zeharkako prozesu horrek gutxieneko jarraibide batzuk adosteko balioko luke, eta, ondorioz, biktimak bere unibertsitateko ikasketak egiten jarraituko luke topaketa edo eraso baten beldur izan gabe. Hala komunikazio-prozesuak nola balizko akordioak guztiz borondatezkoak izan beharko lukete bi alderdientzat, eta biktimaren segurtasuna eta ongizatea ziurtatu beharko lukete une oro. Kasu horretan, ustezko biktimagileak bere borondatez onartuko lituzke elkarren artean adostutako mugak, eta ez unibertsitateak hala inposatu diolako.

Sexu-jazarpenaren balizko salaketak falta oso larririk edo deliturik ez dakarrenean ere, egokia izanen litzateke salaketa jarri duen pertsonari laguntza psikologikoa eta soziala ematea. Pertsonak salaketa bat egite hutsak adierazten du aurre egin beharreko ezinegon bat dagoela. Horregatik, kasu horietan ere,

¹⁴ Ez, hala ere, azkenean hartzen den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko kautelazko neurriez harago, dela dagokion protokoloan aurreikusitako diziplinazkoa ez den prozedura batean, dela diziplina-prozedura batean (bien adibide dugu LCU 4.3 artikulua).

Bizikidetza Arauek espresuki jaso beharko lukete salaketa eragin duen ezinegonaz zertu behar dela. Ildo horretan, egokia litzateke baloratzea ea baldintzarik badagoen errestaurazio-prozesu bat gauzatzeko, alderdiek gertakariei buruz hitz egiteko eta kaltea konpontzeko edo, gutxienez, ondoeza gutxitzeko aukera onena bilatzeko.

Prebentzio-jarduerei dagokienez, LCUK berak lehen eta bigarren mailako prebentzio-neurriak aipatzen ditu, bai hitzaurrean, bai artikuluetan. Ikuspuntu errestauratibo batetik, oso garrantzitsua da bi eratako neurrietan ahalegintzea. Alde horretatik, 3.3 artikulua exijitzen du Bizikidetza Arauetan giza eskubideak babesteko ikuspegia errespetatzen duten neurriak jaso behar direla, indarkeriaren, diskriminazioaren edo jazarpenaren aurrean.

Azaldu den bezala, 4. artikulua argitzen du zer-nolako prebentzio-neurriak aplikatu behar zaizkion unibertsitate-komunitate osoari. Artikulu horren 2. atalak zehazten du lehen mailako prebentzioaren xedeak sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta prestakuntza izan behar direla. Horien bidez sustatuko da aniztasunarekiko eta ekitatearekiko errespetua unibertsitatean. Halaber, atal horretan adierazten da bigarren mailako prebentzio-neurrien helburua zein den: arriskuak diren testuinguruak, baldintzen eta faktoreen gain jardutea, eta indarkeria-, diskriminazio- edo jazarpen-egoerak saihestea.

Aurreikuspen horiek aukera zabala eskaintzen diote unibertsitateari lehen eta bigarren mailako prebentziorako esku-hartzeak diseina ditzan. Sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak ez ezik, programak gara daitezke erakunde akademikoetan errespetuaren eta genero-berdintasunaren aldeko kultura bultzatzeko.

Nolanahi ere, LCUK argi eta garbi adierazten du zein diren unibertsitatearen erantzukizunak, premia horiek detektatzearen eta ekintza horiek gauzatzearen aurrean. Sexu-jazarpeneko egoera posible bati buruzko salaketa bat egoteak nahikoa izan behar du unibertsitateak biktimari arreta emateko neurri integralak hedatzeko. Prozesu errestauratiboak, egokiak badira,

neurri horien artean egonen dira, baina biktimaren segurtasuna eta ongizatea bermatzen bada eta sexu-jazarpenaren prebentzioa nola indartu planteatzen bada bakarrik.

4.7. Testuinguru juridikoaren ondorioa

Gogoeta hauek idazteko, Espainiako unibertsitate-araudi berria hartu dugu oinarri. Alde batetik, egungo testua da, egungo beharretara egokitua, baina unibertsitateei tarte handia uzten die beren aplikazio-arauak idatz ditzaten. 2023. urte osoan, Espainiako unibertsitateek testu horiek landu zituzten. Batzorde berriak nolakoak izanen ziren ere jorratu zuten, baita batzordeak osatzen dituzten taldeek zein ardurara izanen zituzten ere. Epe labur batean, batzorde horiek apurka-apurka eratu dira. Goiz da emaitzak jakiteko eta ereduak alderatzeko, baita praktikan jartzeko zailtasun nagusiak aurkezteko ere. Gure ustez, Crue Espainiako Unibertsitateetako Bizikidetzaren Batzordearen Sarea (REDCCU) gune egokia izan daiteke batzorde horien jarraipena egiteko, batzordeak ebaluatze eta jardunbide egokiak identifikatzeko.

Testu legegileak, gatazkak konpontzeko, zehapenaren ordeko neurrien alde eta prozesu errestauratiboen alde egiten du. Erabaki hori argia eta zalantzarik gabekoa da, hain argia ezen diziplina-prozeduren aurretik eta bitartean erabil daitezkeela esaten baitu. Hala ere, jakina da araudi bikainenek ere porrot egin dezaketela beharrezko baliabiderik jaso ezean. Zalantzarik gabe, zehapenenean oinarritutako sistema batetik sistema arduratsu eta erreparatzaile batera igarotzea oso aldaketa nabarmena da. Nolabait esateko, zigor-sistema tradizionala alde batera uztea esan nahi du. Eta, jakina, gure buruari egiten diogun galdera da ea gizarteak prest dagoen horretarako eta ea gu geu gai izanen garen aldaketa horiek artikulatzeko.

Zigor-sisteman eta, bereziki, gazte-justizian izandako esperientziak aldaketarako borondate argia adierazten du. Biktimek, biktimagileek eta komunitateak, prozesu horietan parte hartu dutenean, asebetetze-maila handia agertu dute eta, aldi berean, erantzukizuna hartzeko gaitasuna ere bai.

Gauzak horrela, sinetsita gaude unibertsitateko bizitzak ezin diola muzin egin aldaketa horri. Are gehiago, guk izan behar dugu aldaketa bultzatzeko gauza.

5. Unibertsitate Errestauratiboak: ezartzeko jarraibideak

Unibertsitate Errestauratiboa goi-mailako hezkuntzako egitura bat da, eta balio eta printzipio errestitutiboak onartzen eta sustatzen ditu bere antolamenduan eta funtzionamenduan. Unibertsitateak sortzen eta mantentzen duen hezkuntza-giroan, irakaskuntza, ikaskuntza eta ikerketa elkarrenganako errespetutik abiatuta gauzatzen dira, komunitatea eraikitzen duen harreman-kultura batetik hain justu. Komunitate horretako pertsona guztiek «aurrera eginen dute eta baloratuta sentituko dira» (Davis, 2019), eta gai izanen dira kalteak prebenitzeko, lantzeko eta erreparatzeko. Eta, kalteak daudenean, ikuspegi errestitutiboa lehenetsiko dute ordainsarien logika aplikatu beharrean.

Unibertsitate Errestauratiboak balio eta printzipio horiek barneratzen ditu bere eguneroko bizitzan, ongizate akademikoa ez ezik, komunitate osoaren ongizate sozial eta emozionala lortzeko.

Unibertsitate errestitutiboen eredua ezartzea «diseinu irmo bat da, eta eguneroko egitura, politika, prozedura eta interakzioen bidez gauzatzen da» (European Forum for Restorative Justice, 2022).

5.1. Aldaketa nola kudeatu

Arauan oinarritutako erakundeetatik pertsonarengan, harremanetan eta gatazkaren kudeaketa positiboetan oinarritutako erakunde errestitutiboetara igarotzea, beraz, aldaketa sistemikoa eta kulturala da. Harremanak mugatzen eta zapaltzen dituzten egiturez, prozesuez eta jarduteko moduez jabetzea eskatzen du. Lehendik dauden dinamika instituzional eta estrukturalak aldatzen ez badira, jardunbide eta prozesu errestitutiboak ezartzeak ez du eragin handirik izanen; asko jota, trebetasunak hobetzeraz mugatuko da. McCluskey et al.

(2008) adituen ustez, horixe da ikuspegiak duen erronka nagusia, hezkuntza-alorrean zein alor akademikoan.

LCUri eta Bizikidetza Batzordeen sorrerari buruzko hamaika eztabaidak alor erresponentsiboan zentratu dira ia osorik, eta alor horretako eskumenak beste unitate askotan banatuta egon dira orain arte. Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak (LOSU) ere ez du integratzeko biderik ematen, zerbitzuen ikuskaritza aipatzean ez baitu bizikidetza-batzorderik edo bizikidetza-araurik aipatzen. LCUa alor erresponentsibora mugatzeko begirada hori, ordea, prozesu osoaren zati bat baino ez da. Antolaketa-aldaketa kudeatzeko, besteak beste, aldaketa-ikuspegia zehaztu, trebetasun berriak eskuratu, pizgarriak garatu, baliabideak hornitu eta ekintza-plana diseinatu eta ezarri behar da (ikus «Plan Zuzentzailea» atala).

Grafiko honetan zehazten da zer patologia sortzen diren elementu horietakoren bat falta denean (Knoster et al., 2000):

ALDAKETA KONPLEXUAK KUDEATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK

Ikuspegia	+	Trebetasunak	+	Pizgarriak	+	Baliabideak	+	Ekintza plana	=	Aldaketa
	+	Trebetasunak	+	Pizgarriak	+	Baliabideak	+	Ekintza plana	=	Nahasmendua
Ikuspegia	+		+	Pizgarriak	+	Baliabideak	+	Ekintza plana	=	Antsietatea
Ikuspegia	+	Trebetasunak	+		+	Baliabideak	+	Ekintza plana	=	Erresistentzia
Ikuspegia	+	Trebetasunak	+	Pizgarriak	+		+	Ekintza plana	=	Frustrazioa
Ikuspegia	+	Trebetasunak	+	Pizgarriak	+	Baliabideak	+		=	Oinarririk gabe abiatzea

3. irudia. Aldaketa konplexuak (Ondokotik egokitua: Knoster et al., 2000).

Unibertsitate bakoitzak aldaketa-prozesua diseinatu beharko du, antolamendua aldatzeko eta berritzeko duen kulturaren arabera. Unibertsitate batzuek ohitura erlazional onak identifikatzea eta indartzea bakarrik aukera dezakete; beste batzuek, abian dauzkaten jardunbide eta prozesu errestituratiiboak sustatzea; beste batzuek, berriz, gatazka-profil oso zehatzetan prozesu errestituratiiboak esperimintatzea; eta unibertsitate berritzaileenak gai izanen dira unibertsitate osoan transbertsalki txertatzeko.


Aldaketa transbertsal bat gerta dadin, lehen esan bezala, maila anitzeko lan bat behar da. Gobernantzako erabakiak hartu behar dira, campusetan jarduera-programak gauzatu behar dira, eremuak egokitu behar dira eta jardunbide eta prozesu errestituratiiboak egituratu behar dira Bizikidetzara Araudien garapenaren barruan. Hori guztia lau jarduera-mailatan egituratu daiteke:

2. MAILA. HARREMANAK ZAINITZEA

Horren barruan sartzen dira bakarko trebetasunak eta jardunbide errestituratiibo informalek, eguneroko harremanak, gorabeherak eta gatazkak kudeatzeko. Erakundearen kultura eraldatzan du, «hemen gauzak egiteko dugu modua».

0. MAILA. BALIOAK, OINARRIZKO PRINTZIBIOAK, SINESMENAK ETA IKUSPEGI-ALDAKETA

Barne hartzen ditu unibertsitatearen eta zentron gobernanta-dokumentazioan zehaztutako funtsezko elementuak, pertsonen jarduna eta prozesuen diseinua bideratzen dutenak harremanak izateko uneen eta komunitatean gatazkak, gorabeherak eta hutsegiteak kudeatzeko uneen.



3. MAILA. KALTEAK ERREPARATZEA ETA HARREMANAK BERREGITEA

Gertaera eta falta larrienak kudeatzeko prozesu errestituratiibo erresponstiboan biltzen ditu. Bizikidetzara kudeatzeko politikak eraldatzan ditu.

1. MAILA. HARREMANAK ERATZEA. KOMUNITATEA EGITEA

Horren barruan sartzen da erakunde osoan probentzia sustatzen duten eta bakarko trebetasunetan gaitzen duten espazio atseginak sortzea.

4. irudia. Jarduketara-mailak (ondokoetatik egokitua: Hopkins, 2009; Morrison, 2012; eta Vaandering, 2014).

Lau maila horien garapena errazteko, bi tresna instituzional diseinatzea proposatzen dugu. Alde batetik, Plan Zuzentzaile bat diseinatu behar da; gure kasuan, Kultura Errestituratiboaren Plan Zuzentzailea (CURE) esaten dioguna. Haren xedea da, epe luzera, ikuspegi errestituratiiboa unibertsitate osoan modu transbertsalean eta modu jasangarrian txertatzea. CURE xehetasunez deskribatuko dugu 5.1.1 atalean eta 7. kapituluari. Bigarren tresna Gatazkak Modu Errestituratiboan Lantzeko

Programa (ARCO) da. Programa horretan biltzen dira erakundeak bere barnean sortzen diren gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko eskaintzen dituen baliabide espezializatuak, baita ikastegi eta sektore bakoitzean 1., 2. eta 3. mailetarako helburuak betetzen direla bermatzeko diseinatutako jardueren urteko programazioa ere. CUREn kasuan, unibertsitateko kudeaketa konplexuan erabakiak hartzeko arduradunak dira hartzaile nagusiak; ARCOren kasuan, berriz, komunitate osoa. Jarraian jorratuko ditugun mailen deskribapenetan, ARCO programaren parte izan daitezkeen jarduera ugari eskainiko ditugu. Deskribapen horietan erraz sar daitezke beste jarduera eta jardunbide egoki batzuk; hain zuzen ere, bizikidetzarekin sensibilizatuta dauden eta ARCOren biderkatzaile gisa jardun dezaketen pertsonak edo komunitateko unitateek iradokitakoak. ARCO urteko programazio bat da, eta erakundeen eta eragileen sormena eta ekimen pertsonal zein kolektiboa jasotzeko prest dago. Hedapen espezifikoak estrategiak erabili beharko dira urteko programazio hori egiteko (ikus CUREn 1. eta 2. ardatzak 7. kapitulan).

5.1.1. 0 maila. Balioak, oinarriko printzipioak eta ikuspegi-aldaketa

0 mailak definitzen eta zerrendatzen ditu eredu errestitutiboaren funtsezko elementuak —balioak, printzipioak, ardatzak, jarduerak, eragileak eta denbora-tarteak—, unibertsitatearen, ikastegien eta taldeen gobernantzaren zati gisa ezarri beharrekoak. Plangintza errazteko, Plan Zuzentzaile bat egitea komeni da; gure kasuan, Kultura Errestitutiboaren Plan Zuzentzailea (CURE) esaten diogu.

Kultura Errestitutiboaren Plan Zuzentzailea (CURE) ibilbide-orri bat da, eta unibertsitatean ikuspegi errestitutibo transbertsalki praktikan jartzea eta aldaketa sistemiko bat ahalbidetzea du helburu. Erantzukizuna hartzearen eta kaltea erreparatzaren balioak derrigor eta esplizituki txertatu behar dira unibertsitateko kode etikoetan, baina, horrez gain, planaren

xedea da kultura errestauratibo bateranzko aldaketa gauzatzea, eta hori lortzeko behar diren dinamikak eta ekintzak modu ordenatuan ezartzea, komunitatearen parte-hartze handienarekin (ikasleak, irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL langileak eta kanpokoak) eta unibertsitateko bizitzaren eta komunitatearen esparru guztietara iritsita. Plan horrek partaidetza-prozesu zabal baten emaitza izan behar du, baina Unibertsitateari, haren gobernu-taldee, zentroei eta egiturei dagokie, bereziki, plana diseinatzea eta garatzea. Horiek guztiak unibertsitateko defentsa-erakundearekin, Bizikidetzaz Batzordearekin, ikuskapen-zerbitzuarekin eta, hala badagokio, erakunde bakoitzak sortutako gatazkei aurre egiteko unitate espezifikoekin arituko dira lankidetzan estuan.

Horrelako plan zuzentzaile bat funtsezko tresna bat da; izan ere, lehen esan bezala, joera errestauratiboak paradigma-aldaketa bat eskatzen du alor akademikoan, eta horrek zuzenean eragiten die hezkuntza-komunitateko sektore guztietako egiturei eta, beraz, lantaldee eta lantaldeen arteko harremanei. Oinarrizko filosofia eta etika bat adierazten du, eta zimendu horren gainean hainbat trebetasun txertatuko dira. Trebetasun horiek gabe ezin da jardunbide eta prozesu errestauratiborik ezarri (Albertí, 2015). CUREk bermatzen du unibertsitate-egituraren barruan kode etikoaren balioak garatuko direla eta balio horiek, hortaz, unibertsitate horren nortasun espezifikoaren parte bihurtuko dira («etxearen marka-balioak»).

Gida honetako 7. atalean dokumentu orientagarri bat dago, CURE bat eratzekeo ehun adierazlerekin. Hantxe agertzen dira ekintza-lerroak eta ekintzak, bost ardatz posibletan egituratuta: 1. Gobernantza estrategiko errestauratiboa, 2. Komunitatea eta unibertsitateko bizitza, 3. Ikasketak, 4. Kalitatezko ikerketa gizaratearen zerbitzura, 5. Digitalizazioa, pertsonen eskura.

5.1.2. 1. maila. Harremanak eratzea, komunitatea egitea

1. mailaren helburua da harremanak sortzea eta gizarte-lotura komunitarioak sustatzea, baina ez bakarrik unibertsitatearen barrura begira. Harreman-esperientzia errestauratibo bat eskaini nahi du, goi-mailako hezkuntza amaitu ondoren gizartera helarazi ahal izateko, bai ezagutza moduan, bai lan- eta gizarte-gaikuntza moduan. Funtsean, maila probentiboa da, eta oraindik ez dio gatazkari erantzuten.

Maila horretako jarduerak, zehaztasun handiegirik gabe, zenbait ardatzetan bil daitezke, unibertsitate bakoitzaren testuinguruaren eta izaeraren arabera:

1. **Harrera inklusiboa.** Komunitateko kide guztiak unibertsitateko bizitzari modu positiboan eta adeitsuan ekiten diotela bermatzen duten harreman-jarduera espezifikoak behar dira, eta, horiek diseinatzeko, arreta berezia jarri behar da pertsonen arteko esteka-loturak, taldeen artekoak eta fakultatiboen artekoak bultzatzen edo oztopatzen dituzten faktoreetan. Ardatz hori funtsezkoa da Unibertsitate Egoitzetan edo ikasle-egoitza Nagusietan ere.
2. **Indarkeria-ezazko harreman-komunikazioa (oinarrizkoa).** Indarkeria-ezazko komunikazio-trebetasunei buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa behar da, eta unibertsitate-komunitateko kide guztiengana bideratu behar dira elkarrizketa konplexuak errazteko teknikak. Formazio-mota hori erraz sar daiteke prestakuntza-ikastaroetan, bai laneko arriskuen prebentzioari buruzkoetan, bai irakaskuntzaren berrikuntzari buruzkoetan, baita irakasgai transbertsalei buruzkoetan ere. Interesgarria da, halaber, fakultate, ikasgela, talde edo unitateen araberrako eskaintza egitea; izan ere, giro-aldaketa bat behar duten guneetan ezagutuko eta gauzatuko dituzte prestakuntzak. Ardatz horrek erakundeen komunikazio korporatiboa ere

sustatzen du, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainen bidez. Kanpaina horien diseinuak, komunitate osoaren parte-hartzea ahalbidetzeaz gain, erakargarria izan behar du espazio atseginak sortzeko.

3. **Jardunbide errestauratiboetan trebakuntza (oinarrizkoa).** Oinarrizko prestakuntza teoriko-praktikoa behar da, metodologia errestauratiboaren tresna proaktibo espezifikoak ikasteko: zirkulu proaktiboak, entzute aktiboa, adierazpen afektiboak, etab.
4. **Espazio atseginak.** Harremana eta topaketa erraztuko duten eremu berriak sortu behar dira, edo lehendik daudenak egokitu. Eremu horiek dimentsio arkitektoniko fisikoa edo denborazkoa izan dezakete. Dimentsio fisikoari dagokionez, eremuak berreskuratzeko aukera ematen du, erabilera berriak emanaz. Denborari dagokionez, berriz, harreman-giro osasuntsua, topaketa informalak edo lan-gosariak sortzeko eta lantzeko bilerak ekarriko ditu, eta horien plangintzaren barruan sartuko da kultura erlazionala hobetzeko dimentsioa.

5.1.3. 2. maila. Harremanak zaintzea

2. maila gatazken kudeaketan trebatzeko eta gatazkek gora egitea saihesteko diseinatuta dago. Beraz, bakerako trebetasunak eta jardunbide errestauratibo informalak erabiliko dira, eta horrela kudeatuko dira intentsitate txikiko eguneroko harremanak, gertakariak eta gatazkek. Maila horretan dago guk proposatutako eraldaketa kulturala, gauzak antolatze eta egituratzeko moduari eragiten diona. Alegia, hemen aldatu behar da «gauzak egiteko gure modua». Maila hori, gatazkaren intentsibitatea txikia denean, batetik bestera dabil, dimentsio probentiboaren eta erresponstiboaren artean. Maila horren urteko plangintza egitean, kontuan hartu behar dira ongizate mapak (ikus, adibidez, Gómez, 2021), arriskuak prebenitzeko txostenak eta beste adierazle mota batzuen bidez egiten diren diagnostikoak. CURE plan zuzentzaileak zenbait jarduera gehituko ditu, diagnostiko-

datu horiek unibertsitate-komunitate osoak jaso ditzan. Ondoren, horri buruzko baliabide espezifiko batzuk proposatuko dira. Maila horrek, izaera probentiboa eta erresponstiboa duenez, jardunbide zein prozesu errestauratiboak erabiltzen ditu. Azken horietako batzuk berriz agertuko dira 3. mailan (kalteak konpondu eta erlazioak berrezarri).

1. **Indarkeria-ezazko komunikazio erlazionala (aurreratua).**
Indarkeria-ezazko komunikazio-trebetasunei buruzko prestakuntza teoriko-praktiko aurreratua behar da, baita elkarrizketa zailak errazteko teknikei buruzko formazioa ere. Erantzukizun instituzionalak dituzten pertsonen zuzenduta daude biak ala biak. Prestakuntzaren espezializazio-mailagatik eta hartzaile espezifikoak izateagatik desberdintzen dugu aurreko mailan deskribatutako 1. ardatzetik. 1. mailako (Harremanak eratzea) prestakuntza unibertsitate-komunitate osoari zuzenduta zegoen bitartean, 2. mailaren xedea da gatazkak kudeatu beharko dituztenak gaitzea. Prestakuntza-mota horrek komunikazio afektiboa, elkarrizketa errestauratiboak, adierazpen afektiboak eta indarkeria-ezazko komunikazioa jorratzen ditu.
2. **Jardunbide errestauratiboetan trebatzea (aurreratua).**
Metodologia errestauratiboan erabili beharreko tresna proaktiboak buruzko prestakuntza teoriko-praktikoaz ari gara, baina tresna horiek erabiltzeko ez bideratzailearen espezializazio handirik behar ez denean. Hona hemen jardunbide horietako batzuk: gatazkak konpontzeko bitarteko alternatiboen tailerrak, ikasgelako zirkulu errestauratiboak, entzute errestauratiboa, pareen laguntza edo bilera errestauratibo informalak.
3. **Lurraldearen memoriarekin lotutako gatazken inguruko elkarrizketa errestauratiboak.** Prestakuntza espezifiko horri esker landuko dira, elkarrizketaren bidez, gai hauekin eta beste batzuekin lotutako gatazkak: memoria historikoa, Gerra Zibilak edo motibazio politiko edo erlijiosoko terrorismoak Espainian eragindako herentzia traumatikoak; kolonizazioarekin lotutako prozesuak;

gutxiengoen diskriminazioa; gorroto-diskurtsoa; eta gatazka sozial edo politiko larriak. Horretarako, elkarriketa eta entzute errestauratiboa ahalbidetzeko tresnak proposatzen dira batik bat, biak ala biak ezagutza zientifikotik aberastuta. Gazteek askotan eskatzen dituzte belaunaldien arteko elkarriketak, eta unibertsitateari dagokio eremu seguruak ematea, jardunbide hori eta beste hainbat garatu ahal izateko. Esperientzia Gelak izeneko jardueretan ikasle nagusiak egoteak beste abagune batzuk ematen dizkigu adinekoen eta gazteen arteko elkarriketa erreparatzaileak antolatzeke. Gazteek sustatu, gauzatu eta kudeatu ditzakete elkarriketa horiek (Olalde, 2024). Testigantza pertsonalak ez ezik, ikus-entzunezko material eta bibliografia ugari daukagu eskura, elkarriketa errestauratibo horiek hauspotzeko.

Ardatz horrek antena gisa ere jokutzen du, unibertsitatearen barruan nahiz kanpoan sor daitezkeen eta komunitateari eragiten dioten gatazka-guneen berri emanez (ikus adibideak 9.2 atalean).

Garrantzitsua da 2. maila hori estamentu guztiei zuzenduta egotea eta haien parte-hartzea ahalbidetzea. Parte-hartzeari dagokionez, arreta berezia jarri behar da kargu instituzionalak edo asoziatiboak betetzen dituzten ikasleengan, unibertsitate-bizitzako erabakiak eta dinamikak hartzean erreferentzia informal gisa parte hartzen duten ikasleengan, zuzendaritzataldeetan, administrazioako langileengan eta irakasle-ikertzailetan.

2. maila horretan beste gaikuntza bat ere sartuta dago; hain zuzen ere, gatazkaren gorakadari aurrea hartzeko ekintza erresponstiboa. Une horretan, entzutea eta orientazioa berebizikoak dira. Entzute- eta orientazio-mota hori existitzen da jadanik, arrunta da eta, lehenik eta behin, modu informalean eta berdinen artean egiten da (gatazka bat duten ikasleek beste ikasle baten edo batzuen esperientziak jasoz erabakitzen dute nola jokatu). Mekanismo hori, besteak beste, ikasleen ordezkartitzaren, Ikasle Kontseiluaren edo konfiantzazko irakasleei egindako kontsultaren bidez jar daiteke abian. Mota horretako orientazioa oso gutxitan eskatzen zaie erakundeei, eta hala egiten denean, ez

da jakiten, sarri, zer eskumen eta baliabide dituen unitate bakoitzak. Kasu horiek aparteko lan-karga eragiten diete langileei. Hartzaile ugarik jasotzen dituzte mezuak, erantzun-protokolo argirik ez dutenak, eta gero eta etsipen handiagoa eragiten dute gatazkan eta administrazio-kudeaketan inplikaturako pertsonengan. Gainera, ez dugu ahaztu behar zer-nolako ezjakintasuna dagoen baliabide hauekiko, batez ere ikasleen artean. Oso ikasle gutxi du unibertsitateko defentsa-erakundeen aditzerik.

LCU garatzera mugatzen den aldaketa linealak badu arrisku bat: are eta ezjakintasun handiagoa eta, ondorioz, desorientazio handiagoa sortzea. Ez hori bakarrik. Gatazka argia edo ezkutua sor daiteke lehendik dauden unitate erresposiboen (defentsa-erakundeak, ikuskapena, berdintasun- eta aniztasun-unitateak, lan-arriskuak prebenitzeko zerbitzuak, besteak beste) eta lege horretan ezarritako Bizikidetzaz Batzordeen artean. Kontuan hartu beharko da, halaber, azken horien osaera eta eskumenak oso desberdinak izanen direla unibertsitate batetik bestera. Hain zuzen ere, horixe azaleratu da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (2023) eta Oviedoko Unibertsitatean (2024) egindako RedCCU-Crue topaketan bi edizioetan. Batzuetan, karguak bikoizten dira, eta antzeko eskumenak jasotzen ditu pertsona berberak, baina bi unitate desberdinetan. Hori guztia, gainera, LOSUK orientazio psikopedagogikoa, ongizate emozionala, berdintasuna eta diskriminaziorik eza prebenitzeko eta sustatzeko agintzen duela ahaztu gabe.

Beraz, berriz diogu, oso-oso garrantzitsua da erakundeen konpromisoa eta ikuspegi globala. Erakundeek unitate guztien ekintza orientatu eta harmonizatu behar dute, eta eskumen-mapa berritu, unitate bakoitzak, ikuspegi osagarri batetik, bere jakintzak eta trebetasunak ekar dezan. CURE Plan Zuzentzaile batean (edo antzeko plan batean) oinarri hartzea, unibertsitate bakoitzaren egiturara eta testuingurura egokituta, oso lagungarria izanen da zentzu horretan, eta eztabaida, gatazka-edo ezinegon-egoerak kudeatzen dituzten unitateak harmonizatze balioko du, gainera.

Eskumen-mapa berri hori egituratzen eta hedatzen den bitartean, unibertsitateek leihatila bakarreko sistema bat antolatzeke aukera (zentralizatua edo fakultateen bidezkoa) aztertu beharko lukete, intentsitate ertain edo altuko kalteak eragiten dituzten gatazkei goiz erantzuteko. Leihatila horretako langileak jakinen luke zer unitate erresposibora bideratu behar duen kasu bakoitza, eta, komunikazioa arintzeaz gain, behar duten arreta emanen lieke balizko biktimei.

Neurri posibleen artean, fakultate bakoitzean kultura errestitutiboko erreferenteak sortzeko esperientzia pilotuak egitea proposatzen dugu. Instituzionalizazio oso txikiko figura informalak lirateke, eta erakunde batzuk dagoeneko egiten ari dira mota horretako jarduerak. Sevillako Unibertsitateak, esaterako, Bizikidetzaren eta Tratu Onaren Erreferentzia du, 2018az geroztik. Pandemiaren ondoren, beste zentro batzuek Entzute Aktiboko Puntuak (UAMen, besteak beste), Entzute eta Erantzute Sarea (UPV-EHU) edo antzekoak sortu zituzten entzute-beharrei erantzuteko, eta kultura errestitutiboa sustatzeko eskumena ere har lezakete haien gain. Erreferentziako pertsona horiek, aldezturik gaituta, esku-hartze goiztiarreko lehen laguntza eginen lukete, entzutearen eta orientazioaren bitartez. Argi dago entzute trebe batek gatazkaren intentsitatea doitzen eta murrizten duela, eta hausnartzen eta erabaki egokiak hartzen laguntzen diela gatazkan inplikaturako pertsonari. Erreferentziako pertsona horien funtzioak, hortaz, entzute errukiorra eta orientazioa dira¹⁵. Pertsonekin hitz eginez, erreferentzia direnei dagokie, batetik, larritasun-maila eta inplikaturako pertsonen trebetasunak eta beharrak identifikatzea, eta, bestetik, horiek guztiak kudeatzeko eta konpontzeko zer baliabide eta prozesu dauden identifikatzea, bai komunitatean, baita administrazioan ere. Horregatik, espezializazio-maila aurreratua behar dute, eta entzuteko denbora eta leku egokiak eduki behar dituzte eskura.

¹⁵ Enpatiaz haratago doan entzuteaz ari gara, beste pertsonaren sufrimendua eta beste zenbait sufrimendu arindu nahi duen entzuteaz.

Figura horrek oso maila erresponentsibo goiztiarrean hartuko du parte (entzutea eta orientatzea, ez esku-hartzea), eta horretara mugatu behar du. Figura berri gisa sor daiteke, edota entzute aktiboko ekimen horietan txertatu. Azken kasu horretan, kontuan hartu beharko litzateke bulego horiek kalteberatasunean (akademikoa, ekonomikoa, osasuna, etab.) zentratu direla orain arte. Dena den, faktore pertsonala funtsezkoa da; hau da, nortzuk diren eta haiengana nola heldu jakinarazi behar da.

Pertsona horiek, gainera, fakultate bakoitzeko antolamendualdaketa bultzatzen duten taldeetako kide izan daitezke, eta unibertsitateko Bizikidetza Batzordearekin lankidetzan jardun dezakete Batzorde horrek LCUren babesean proposatzen dituen probentzio-lanetan.

Esperientzia pilotu gisa, ebaluatu egin beharko da. Probentzioari zenbat eragiten dion neurtu beharko dugu, ongizate emozionalari buruzko arriskuak prebenitzeko planei zer hobekuntza dakarkien ikusiz. Era berean, kultura errestauratiborako gaitasunari eta CURE Plan Zuzentzailea betetzeari zer ekarpen egiten dion ikusi beharko dugu.

5.1.4. 3. maila. Kalteak erreparatzea eta harremanak berreratzea

Maila horrek izaera erresponentsiboa du kaltea eta/edo biktimak eragin dituzten gatazken aurrean. Alor erresponentsiboa egituratzeko, gogoeta egin behar da lehenik. Garrantzitsua da adieraztea alor erresponentsiboa abian jar daitekeela, bai diziplina-neurriak abian jarri aurretik, bai neurri horiek indarrean dauden bitartean, baita dekretatu ondoren ere. Azken kasu horretan, hau da, zehapena ezarri denean, biktima eta ofentsagilea unibertsitateko bizitzara errestauratiboki integratzea izanen du helburu. Bigarrenik, 4. kapituluan 3/2022 Legeari buruz esandakoari eusten diogu.

Izaera erresponentsibo argia duenez, 3. maila 3/2022 Legearekin eta unibertsitate bakoitzeko Bizikidetza Araudiarekin lotura

estuan diseinatu behar da. Maila horretako langileek, bitartekaritza zibileko tekniketatik haratago, erabil daitezkeen prozesu errestauratibo guztiak ezagutu behar dituzte, eta gai izan behar dute kasu bakoitzera egokitzen al diren ebaluatzeko. Prozesu errestauratibo formalak ahalbidetzean eta gertakariak eta falta larriak kudeatzean gaitasun handia behar dute, kalte gehiago gerta ez dadin. Maila horretan bi ardatz baino ez ditugu proposatuko:

1. **Prozesu erresponstiboak**, gertakari eta falta larrien aurrean. Beste metodologia batzuen artean eta aditu batek aldeztu aurretik baloratuta, honako hauek proposatzen ahalko dira: bilera espontaneoak, bitartekaritza errestauratiboa, zirkuluak, bilera errestauratiboak (conferencing), inpaktu biktimeko panelak, entzunaldi errestauratiboak, gatazkak konpontzeko coachinga/aholkularitza.
2. **Prozesu berrintegratzaileak**, zehapena bete ondoren. Prozesu horiek lagunduko diete biktimari eta ofentsagileari komunitatean berriro integratzen. Beste metodologia batzuen artean, eta aditu batek aldeztu aurretik baloratuta, eraso jasan duten pertsonentzako sarrera-zirkuluak egitea proposatzen ahalko da, baita gai espezifikoetarako buruzko hezkuntza-talerrak eta prozesu partzialki errestauratiboak ere, inplikaturako komunitatearekin.

5.2. Inplementazio-ereduari buruzko hausnarketak

Aurkezpenean adierazi bezala, gida honetan proposatzen den Unibertsitate Errestauratiboen ereduaren helburua ez da, soilik, Espainian unibertsitateko arau-esparru berria benetan garatzen laguntzea. Aldaketa sistemiko bat ekarri nahi du, gure gizarteko kultura erlazionala eta gatazkei heltzeko modua eralda daitezen.

Proposatutako lau mailen bidez bermatu egiten da 3/2022 Legearen 4.1 artikulua, han adierazten baita unibertsitate bakoitzak «3.2.c) artikuluan adierazitako arrazoiengatik indarkeria, diskriminazio edo jazarpenari aurre egiteko prebentzio eta erantzun neurriei buruzko xedapenak» izan behar dituela, eta xedapen horiek ikasleei, irakasleei, ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei aplikatuko zaizkiela, unibertsitatearekin lotzeko tresna juridikoa edozein dela ere, lan-araudia edo dagokion diziplina-araubidea aplikatzeari kalterik egin gabe». Ikuspegi errestauratibotik ere ematen dute erantzuna, arauarekiko transbertsala. 4.3 artikuluan, hiru motatan sailkatuta daude xedapen horiek:

- a) lehen mailako prebentzio-neurriak, hala nola sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta prestakuntza, unibertsitate-esparruan aniztasunarekiko eta ekitatearekiko aintzatespena eta errespetua susta dadin;
- b) bigarren mailako prebentzio-neurriak, arrisku-testuinguruen, -egoeren eta -faktoreen gainean jarduteko, eta 3.2.c) artikuluan adierazitako arrazoiengatik indarkeria-, diskriminazio- edo jazarpen-egoerarik gerta ez dadin;
- c) eta prozedura espezifikokoak, indarkeria-, diskriminazio- edo jazarpen-egoeren ondoriozko kexak edo salaketak bidera daitezen. Era berean, biktimei beren errekupeazio-prozesuan laguntzeko neurriak bultzatu beharko dituzte.

Beraz, gogoan izan behar dugu legeak, lehen eta bigarren mailako prebentzio-neurriak jasotzen dituen neurrian, unibertsitate-komunitate osoa gaitu nahi duela, ez bakarrik faltetan edo gatazketan inplikaturako pertsonak. Gida honetan behin eta berriz errepikatu den bezala, argi identifikatu behar da zein diren espezialista errestauratiboen esku-hartzea eskatzen duten egoerak. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Lovainako Unibertsitate Katolikoko Zuzenbide eta Kriminologia Fakultateko irakasle emeritu Ivo Aertsenek esana; alegia, gatazka eraldatzeko trebakuntza komunitarioa behar dela:

Ez al du boluntariotzak (laguntza egokiarekin) herritarrak inplikatzeko eta “ahalduntzeko” ahalmenik ekartzen? Behar adina sinesten al dugu “jendearen ahalmenearn”, justizia-

prozesuetan laguntzeko gaitasunean, ez bakarrik gatazka edo prozesu emozional zail bateko parte-hartzaile gisa, baita lidergo-rola har dezaketen komunitatearen ordezkari gisa ere? Nola informatzen eta hezten ditugu gure komunitateak, haien jarrera eta gaitasun errestauratiboak indartzeko? Iristen al gara, gure eguneroko kasuetan, gizarteko maila guztietara? (Ivo Aertsen Olalde, 2023:497an esana)

Aertsenen ustez, unibertsitate-komunitateko gatazkaren kudeaketak unibertsitatearen muga naturalak gainditzten ditu, eta gizartean duen eragina hartzen du aintzat, unibertsitatea XXI. menderako motor demokratikotzat joz.

Illo horretan, unibertsitateko bizitzan gero eta itzal handiagoa hartzen ari diren bi joera soziali buruz hausnartu behar dugu: batetik, gorroto- eta diskriminazio-gertakariei buruz eta, bestetik, bizikidetzat digitalari buruz. Sexu-jazarpenak bezala, bi joera horiek ere dokumentu bana beharko lukete, oinarrizko gida honen mugetatik haratago.

5.2.1. Gorroto- eta diskriminazio-gertakariei buruz

Ikuspegi errestauratiboek gorroto- eta diskriminazio-gertakariei zer ekarpen egiten dien hausnartu behar da. Hasteko, eta labur-labur esanda, uste dugu ikuspegi errestauratiboak aukera ematen duela halakoak pairatzen dituztenek —pertsonak eta komunitate biktimizatuek— sentitzen duten ondorezarekin eta minarekin konektatzeko. Eragile enpatiko gisa funtziona dezake, eta min egiten duenarengan erantzukizuna garatzeko balio dezake, baita mina erreparatzeko eta ez errepikatzeko mekanismoak sustatzeko ere. Hortxe dago aukera, hain zuzen, kalte moralak leheneratzeko (Mazkieran et al., 2020) eta sendabiderik ez dakarten mendeku- eta zigor-egoerak gainditzeko (W.K. Kellogg Foundation, 2024).

Gogoan izan behar dugu indarkeria diskriminatzailea (arrazismoa, LGBTIQ+fobia, kapazitismoa, neuronormatibismoa, erlijio-diskriminazioa, etab.) hertsiki lotuta daudela indarkeria

erabiltzen duen pertsonaren ideologiek eta interpretazio-esparruekin eta, aldi berean, kaltetua izan den pertsonaren ezaugarri partikularrekin eta kolektiboekin (Rossi eta Bazzaco, 2021:19).

Baliteke diskriminazioaren biktimak kategoria horretan sartuta ez sentitzea, ez behintzat gaur egun eraikita dauden moduan, eta, gainera, baliteke erasotzaileak askotan bere burua halakotzat ez hartzea, eta iritzi-, kultura-, negozio-, ohitura eta eskubide-desberdintasunak edo beste aitzakiaren bat erabiltzea bere ekintza diskriminatzailea dela ukatzeko (Rossi eta Bazzaco, 2021).

Orientazio psikopedagogikoa, ongizate emozionala, berdintasuna eta diskriminaziorik eza prebenitzeko eta sustatzeko agintzen du LOSUK. Berriki egindako azterlanen arabera, Espainiako unibertsitate-sistemak hermetikoa izaten jarraitzen du LGBTIQ+ pertsonen aurkako diskriminazioaren eta indarkeriaren aurrean. Isildu eta ezkutatu egiten da diskriminazio-klase hori (Rios et al., 2023). Ez da, ordea, bistatik kentzen den bakarra. Madrilgo Unibertsitate Autonomoak egindako aniztasun-mapetan beste bazterkeria batzuk ere agertzen dira, hala nola diskriminazio sozioekonomikoa eta erlijioso (Gómez, 2021).

Gorroto-gertakarien ezaugarriak ere antzekoak izan ohi dira, eta kaltea egiten dutenek bereizgarri batzuen arabera aukeratzen dituzte biktimak; alegia, ezaugarri espezifiko batzuk egozten dizkiete, hala nola etnia, arraza edo nazio bateko kide izatea, sexu-joera, ideologia edo erlijio jakin bateko kide izatea (Biktimei Laguntzeko Aholku Batzordea. Espainiako Justizia Ministerioa, 2022). Barne Ministerioarentzat (2015) gorroto-delituak dira «pertsonen edo jabetzaren aurka arraza, etnia, erlijioa edo erlijio-praktika, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo -identitatea, pobrezia-egoera eta gizarte-bazterkeria, edo antzeko beste edozein arrazoi edo desberdintasun ideologikogatik egindako arau-hauste penal eta administratibo guztiak». Arbuioa, intolerantzia, etsaitasuna, higuina, diskriminazioa, indarkeria (fisikoa eta psikologikoa), mehatxua, fobia, derrigortzea eta askatasunaz arbitrarioki gabetzea ageri dira gure herrialdeko gorroto-delituen paisaia ilunean. Irudi berdintsua osatzen dute Estatu Batuetako legedian «gorroto-krimen» (hate crimes) gisa

ageri direnek, hau da, gorrotoaren eta pertsonen talde-pertenentziaren edo kategoriaren artean harreman zuzena duten ekintzek. Arlo horretan ospe handia duten adituen iritziz (Edward Dunbar, Jack Levin edo Jack Macdevitt, besteak beste), gorroto-krimenak taldeen arteko joerekin lotutako indarkeria-mota bat sustatzen dute. Pertsona batekiko mespretxuzko jarrera eta etsaitasuna bultzatzen dute, talde edo kategoria sozial jakin bateko kideztat hartua izan delako bakarrik. Indarkeria horren jatorrian honako argudio hauek daude: endotaldearen ustezko nagusitasuna exotaldeekiko («afro-amerikarrak, genetikoki, maila baxuagokoak dira»), talde jakin baten eskastasun morala («islamak gorrotoa sustatzen du»), (ustezko) lege natural bat urratzea («homosexualek ordena naturalaren aurka egiten dute»), eta horrela hurrenez hurren. Horri guztiari William Sumner soziologo iparramerikarrak etnozentrismoa esan zion. Mundua ikusteko, ulertzeko eta interpretatzeko modu bat da, eta taldea jartzen du gainerako guztiaren neurri intelektual, etiko eta moral gisa (endotaldea da gauza guztien neurria).

Unibertsitatearen zeregin nagusietako bat horrelako delituak deseraikitzea da. Bide horretan, oso interesgarria da 2018an Erresuma Batuko bi unibertsitatetan inplementatutako eta Catalyst Student Safeguarding funtsak finantzatutako Restore Respect proiektua¹⁶. Proiektuaren helburu garrantzitsuena zen ekimen berri bat ezartzea, eta gorroto-delituei, -gertakariei eta diskurtsoei justizia errestitutiboaren bidez heltzea. Aurreiritzien eta gorrotoaren kausak eta ondorioak jorratzeko, berdin-berdin gaitu nahi zituen unibertsitateak eta ikasleak. Hiru ikaskuntza garrantzitsu utzi dizkigu:

Proiektu horretarako egindako ikerketak agerian utzi zuen, bi unibertsitateetan, aurrez dokumentatutakoa baino askoz ere gorroto-delitu, -gertakari eta -diskurtso zegoela. Programa abian jarri aurretik, gorrotoaren eragina jasandako ikasle gutxi batzuk ez zekiten zer motatako babesa jaso zezaketen beren unibertsitatetik, eta ikasle gehienek ez zuten uste

¹⁶ Ikus, adibidez, University of Sussexeko programa (<https://reportandsupport.sussex.ac.uk/support/restore-respect>). Ekiteko modu errestitutibo bat eskaintzen du, baita gatazka-mota bakoitzaren arabera zerbitzu zentralizatu bat ere.

unibertsitatearen erantzun estandarrek haien beharrei edo jasan zituzten kalteei behar bezala helduko zietenik. (Kayali eta Walters, 2020:80)

Parte-hartzaileek pentsatu zuten horrelako programa batek gorroto-gertakariei erantzuteko modu egokiagoa eskaintzen duela, biktimak ahalduntzeaz gain, ikasle arau-hausleen erantzukizun pertsonala sustatzen duelako eta ikasteko eta eraldatzeko benetako aukerak eskaintzen dituelako (Kayali eta Walters, 2020). Programaren arrakastaren gakoa, ordea, hezkuntza-erakundearen borondatean dago. Langile egokiak, baliabideak prestakuntza, marketina eta lidergo eraginkorra behar-beharrezkoak dira, batez ere ikasleek Unibertsitatearen ohiko esku-hartzeen aurrean dituzten errezeloengatik.

Ikuspuntu proaktibo batetik, aniztasun-mapak ekimen interesgarriak dira, ez kolektiboak konpartimentu estanko gisa identifikatzeko, baizik eta «ikasleengan dagoen aniztasuna ikusarazteko eta ikasleriaren irudi homogeneoa ekiditeko»¹⁷.

Azkenik, garrantzitsua da agerian jartzea diskriminazio-fenomenoa ez dela soilik pertsonen artean gertatzen. Instituzionalki gerta daiteke. al, sino que puede tener una dimensión institucional.

5.2.2. Bizikidetza digitala

Bizikidetza ez da bizitza analogikora mugatzen. Bizikidetza digitalak gogoeta eskatzen du. Mundu digitalaren erabilera txarrak pertsonen bizitzan izan dezakeen eraginari nola heldu aztertu behar dugu, eta horren azpian egon daitezkeen kalteak nola jorratu. Nekez neur daiteke zer-nolako ondorioak dituen adimen artifizial delakoak, ikaragarria baita mundu zientifikoak industria-iraultza berri izendatu duenaren inpaktu soziala. Teknologia berriak esaten zaienak ezartzea, sare sozialen

¹⁷ Ikus Paloma Gómez Crespok zuzendutako «Mapa de la Diversidad del Alumnado de la UAM». Hemen eskuragarri: <https://www.uam.es/uam/media/doc/1606861081955/advancediversidaduam.pdf>

erabilera orokortzea eta horrek belaunaldi gazteengan izan duen eragina ikergai eta eztabaidagai handiak dira egungo gizartean, eta leku garrantzitsua hartu dute unibertsitate-hezkuntzaren, osasun mentalaren eta segurtasunaren alorrean.

Esparru akademikoan, adimen artifizial (AA) sortzailea erabiltzeak zaharkituta utzi du LCUtik eratorritako plagioarekiko kezka. Irene Díaz Rodríguez adimen artifizialeko espezialista eta Oviedoko Unibertsitateko Ikerketako errektoreordeak, 2024ko uztailean hiri horretan egindako Bizikidetza Batzordeen II. Topaketan, ohartarazi zuen ikuspegi tekniko eta juridikotik ezin dela plagiotzat jo adimen artifizial sortzailearen erabilera. Beraz, gure ustez, aplikazio berriak orokortu ahala konpetentziak eta ebaluatzeko moduak birdefinitu beharko dira irakasgaiz irakasgai. Dokumentazioarekin (irakaskuntza-gidak, ebaluazio-tipologiak, etab.) ere berdin gertatuko da, datuak behar bezala erabiltzeko, sormenerako eta erabakiak hartzeko parametroetan oinarritu beharko dute eta.

Osasun mentalaren arloan, kontuan hartu behar da Europako Parlamentuak eta Kontseiluak berriki onartutako Erregelamenduak, adimen artifizialaren erabilera arautzen duenak hain justu, hezkuntzaren eta osasunaren esparruetan garapen digitalen izan dezaketen eragina aipatzen duela «arrisku handienen» artean, oinarritzko eskubideei eragin baitiezaioke¹⁸. Han ere azpimarratzen da zein garrantzitsua den datuak, sareak eta garapenak behar bezala erabiltzea, erabilera desleialak detektatzea, alborapenak prebenitzea eta erabakiak oraindik ere pertsonen hartzan dituztela bermatzea.

Segurtasunari dagokionez, funtsezkoa da AAn alfabetatzea. Unibertsitateko biztanleak irakasgai bakoitzari aplikatutako ezagutza zientifiko batean gaitu behar ditugu, eta gauza izan

¹⁸Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1689 (EB) Erregelamendua, 2024ko ekainaren 13koa, adimen artifizialaren arloko arau harmonizatuak ezartzen dituena eta erregelamendu hauek aldatzen dituena: 300/2008 (EE) Erregelamendua, 167/2013 (EB) Erregelamendua, 168/2013 (EB) Erregelamendua, 2018/858 (EB) Erregelamendua, 2018/1139 (EB) eta 2019/2144 (EB) Erregelamendua eta 2014/90/EB, 2016/797 (EB) eta 2020/1828 (EB) Zuzentarauak (Adimen Artifizialari buruzko Erregelamendua). Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2024-81079>

behar dute nortasun digitala babesteko, desinformazioa prebenitzeko eta bizitza digitalari lotutako oinarritzko eskubideak baliatzeko; izan ere, AAren eta haren arriskuen berri duen unibertsitate-komunitate bat izateak prebentzioari lagunduko dio. Kultura Errestauratiboaren Plan Zuzentzailean (CURE) badaude zenbait ekintza espezifiko, alor horretarako.

Aipamen berezia behar dute irakaskuntza- eta ikaskuntza-birtualean oinarritzen diren goi-mailako hezkuntza-erakundeek, baita ohiko unibertsitatean birtualtasunak duen itzal gero eta handiagoak ere. Epe laburrean eta ertainean, birtualtasunaren esperientzia sistematikoaren ñabardurak behatu, aztertu eta hausnartu beharko dira, eta oinarritzko gida honetan txertatu.

Amaitzeko, aintzat hartu behar dugu mota horretako gatazkak, nahiz eta ingurune birtualetan sortu eta nahiz eta eremu horretan kalte espezifikoak eragin (adibidez, ospe digitalari edo irudiaren erabilera desleialari eragitea, etab.), pertsonarengan eragiten jarraitzen dutela, eta hortik aurrera has daitekeela arlo errestauratiboaren kudeaketa¹⁹.

¹⁹ Kasu horietan, interesgarria da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak diseinatutako #canalprioritario baliabidea: <https://www.aepd.es/canalprioritario>

6. Jardunbide- eta -prozesu errestauratiboen deskribapen laburra

Atal honetan labur-labur deskribatuko dugu zer diren prozesu errestauratiboak eta zer metodologiaren bidez gauzatu daitezkeen unibertsitateetan. Ondorengo orrialdeen helburua ez da jardunbidea edo prozesua sakon azaltzea, baizik eta deskribapen laburren lehen zerrenda bat eskaintzea, kudeatzaileek lehen irakurraldian bereiz ditzaten. Zerrenda horren arriskua da deskribapenak agerikoak, sakontasun txikikoak edo eraginkortasunik gabekoak izatea. Kontuan hartu behar da, gainera, etengabeko trukea dagoela jardunbideen eta prozesuen artean, eta truke hori oso formaltasun handikoa edo oso formaltasun txikikoa izan daitekeela. Horren ondorioz, prestakuntza-maila eta eragile desberdinak beharko dira jardunbide eta prozesu bat edo bestea erabiltzeko. Hala ere, metodologia zorrotz aplikatzen bada eta kasu bakoitzaren arabera prestakuntza duten adituek gidatzen badute, arrakasta ziurtatua dago, biktimizazio larrien kasuetan barne. Katalunian unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-esparruetan kultura errestauratiboa nola ezarri den aipatu dugunean, esan dugu bideratzaileek eta prestatzaileek kalitatezko trebakuntza izan behar dutela beti.

Hemen unibertsitateentzat proposatzen ditugun jardunbideak eta prozesuak, beraz, ez dira modu proaktiboan eta arduratsuan egin daitekeen jarduera guztiak. Gure zerrenda sailkapen ireki bat baino ez da, nazioarteko doktrina berezitua oinarri hartuta idatzitakoa. Zerrenda hori luzatzea espero dugu, Espainian inplementatzeko programak aberasten diren neurrian. Modu horretan lortuko dugu inplikaturako pertsonen askotariko beharretara egokituko den tresna-kutxa bat, biktimen beharren dinamismoari arreta berezia jarriko diena.

Gida hau oinarrizkoa denez, aurrez aurreko jardunbideetan eta prozesuetan zentratu gara, baina dagoeneko ebidentzia zientifikoa daukagu eskura, prozesuak ingurune birtualetan ahalbidetzeko gomendio zehatzekin (ikus Romero, 2023b).

Jardunbideak eta prozesuak elkarren eskutik doaz eta elkarren osagarri dira. Batzuetan, gatazka bortitzak konpontzeko premiaren premia, oker jokatzeko dugu, eta estrategia errektiboei ematen diegu lehentasuna. Erreakzionatzera mugatzen bagara, alferrik galtzen da gatazkekin batera hazteko aukera proaktiboa; hau da, gatazkak modu eragingarriagoan kudeatzen eta enpatia garatzen trebatzeko aukera mugatzen diegu pertsonari.

Laugarren kapituluari adierazi bezala, prozesu erresponstiboak, askotan, diziplina-prozesu formalekin batera jar daitezke abian. Haiekin bateragarriak dira, gertakariak eta kalteak eragindako beharrei erantzuten dietelako. Prozesu erresponstiboak bateragarriak dira zehapenekin ere; izan ere, kaltea erreparatzeko erantzukizuna hartzea gonbidatzen dituzte protagonistak.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu esku-hartze errestitutiboa, izaera psikosozialeko esku-hartzea izan arren, ez dela esku-hartze terapeutikoa. Ez da zentratzen entzundako pertsonaren dimentsio intrapsikikoan. Alor errestitutiboaren xede nagusia dimentsio interpsikikoa da; hots, gertakariarekin, gainerako pertsonarekin eta, batik bat, beste pertsona kaltetuarekin lotutako dimentsioa.

6.1. Jardunbide proaktiboak (1. maila)

6.1.1. Zirkulu proaktiboak

Praktika proaktibo nagusia Zirkulua izanen litzateke, eta probentzian eta taldea eratzen laguntzen du.

Zirkulu horiek erabil daitezke ikasgelarako metodologia gisa eta talde-bilerak egiteko metodologia gisa, eta bizikidetzarekin lotutako gaiei buruzko sentsibilizazio-tailerrak egiteko (indarkeriarik gabeko komunikazioa, errestitutazio-trebetasunetan trebatzea) eta harreman- eta emozio-alfabetizazioa sustatzeko ere bai.

Zirkuluek kide izatearen sentimendua sortzen dute; irakasleen, ikasleen eta TEKAZEL langileen arteko harremanaren kalitatea handitzen dute; eta kapital soziala eratzekeo prozesu proaktiboak sortzen dituzte.

Jardunbide horretarako, parte-hartzaileak aulkietan esertzen dira, eta ez dago oztopo fisikorik haien artean. Bideratzaileak modu sekuentzialean gidatzen du hartu-eman komunikatiboa. Normalean, hitzezko objektua esaten zaiona erabiltzen da komunikazioa eta entzute aktiboa errazago kudeatzeko. Hainbat gairi heltzeko balio du.

(Ikus, halaber, 6.3.2)

6.1.2 Elkarrizketa errestitatibo jarraitua

Unibertsitatearen esparruan garatutako Elkarrizketa Errestitatibo Jarraituak zirkulu-sorta bat dira. Ikasle-talde batek osatzen ditu, eta askatasun politikoari, erlijiosoari, sexualari eta abarri buruzko kalteak eragiten dituzten kulturak eta jokabideak dituzte mintzagai. Wellingtongo Victoria Universityko (Zeelanda Berria) Justizia Errestitatiboaren Katedrako taldeak diseinatu zituen, komunitateko gai garrantzitsuei buruzko elkarrizketa konplexuak izateko jardunbide proaktibo gisa. Hortaz, oso metodologia egokia da Elkarrizketa errestitatiboak ardazteko eta lurraldeko memoriarekin lotutako gatazkei aurre egiteko (ikus 5.1.3). Wellingtonen, metodologia hori estreinakoz erabili zen elkarrizketan, campuseko kalte eta jazarpen sexualaren gaia aztertu zen, baina unibertsitate bakoitzaren testuinguruak baldintzatuko du gai-zerrenda. Jarraitua esaten zaio, hainbat saiotan egiten delako, eta errestitatiboa da, galdera errestitatiboak erabiltzen dituelako (ikus 6.2.2). Elkarrizketa-mota horren helburua da unibertsitateko komunitateak jasaten dituen kalte larri jakin batzuk zer girotan gertatzen diren ulertzea eta zer irtenbide izan ditzaketen aztertzea (Giles-Mitson, 2020; Pointer eta Giles-Mitson, 2019).

6.2 Jardunbide errestitatibo errespontsibo informalak (2. eta 3. mailak)

Ikuspegi errestitatiboarekin konprometitutako unibertsitate campusetan egiten dira jardunbide errespontsibo informalak. Costelloren eta beste zenbait adituren ustez (2010), ikuspegi horrekin konprometitutako hezkuntza-erakundeek jardunbideek % 80 dira errespontsiboak. Unibertsitate-komunitatea oinarritzko trebetasun errespontsiboetan trebatzea dute helburu, eta egoera gatazkatsuak eta diziplinarik gabeko ekintza txikiak maneiatzeko tresnak ematen dituzte.

Bakearen kulturatik eta ikuspegi errestitatibotik abiatuta, harremanak eta ingurunea hobetzeko estrategiak garatzeko ekimena dakarte²⁰. Komunitatea sortuz bizikidetzatza hobetu nahi dute, pertsonen beren hezkuntza-komunitatean parte hartzen lagunduko dieten eremu seguruak sortzeko tresna zehatzak eskainiz, eta beren beharretan, itxaropenetan, balio partekatuetan eta eragiten dieten egoeretan sakonduko duten elkarriketak ahalbidetuz (Vander Veneen, 2016; Wachtel, 2012).

Jardunbide hori prebentziozkoa da, elkar ulertzeko komunikazio-giro aproposak sustatzen ditu, harreman kooperatiboak errazten dituzten baldintzak sustatzen ditu eta konpetentziak ematen ditu jarrera dibergenteak kudeatzen ikasteko, jarrera horiek antagoniko bihurtu eta indarkeria eragiten duten gatazketan gora egin aurretik.

Nafarroako 4/2023 Foru Legeak, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoak, kontzeptu hori garatu zuen lehen aldiz:

(...) Judizializatu gabeko gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko tresnak dira, bai eta gizarte-kohesioa sustatzekoak ere, helburu dutenak konfiantzazko,

20 Nazio Batuen definizioaren arabera (1998, A/52/13 Ebazpena), bakearen kultura balio, jarrera eta portaera batzuk osatzen dute. Horiek guztiek indarkeria arbuatzen eta gatazkak prebenitzen dituzte; gatazkei aurre egiten saiatzen dira, arazoak pertsonen, taldeen eta nazioen arteko elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpon daitezten.

errespetuzko eta zaintzako baldintza kolektiboak sortzea, sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudea ditzan hasierako faseetan eta modu espontaneoan.

6.2.1 Adierazpen afektiboak. Indarkeria-ezazko komunikazioa.

Komunikazio-trebetasun aproposak dira giro positiboa sortzeko, edozein testuingurutan (ikasgela, administrazio-unitatea, ikerketa-taldeak, etab.). Tonu positiboa sortzen dute, eta dinamika erlazionala eraldatzen dute taldekideen artean nahiz irakasleen eta ikasleen artean. Komunikazio horren xedea da bestearekin dugun tratua humanizatzea, jarrera enpatikoak sustatuz. Adierazpen afektiboak eta entzute aktiboa oinarritzko kompetentziak dira, eta unibertsitateek komunitate osoarentzat garatu behar dituzte (Hernández, 2023).

Ikuspegi errestauratiboaren arabera, oinarritzko kompetentzia horiek egoera afektiboan jartzen dute arreta, beste pertsonak bizi eta sentitu duena ulertzeak ematen baitigu «gure jokabideek besteengan zer-nolako eragina duten neurtzeko enpatia, jokabide horiek seinalatu edo etiketatu beharrik gabe» (Hernandez, 2023).

Indarkeria-ezazko komunikazioa (IEK) (Rosenberg, 2000) ikuspegi komunikatiboa da, eta pertsonen arteko ulermenari, enpatiari eta lankidetzari egiten die mesede. Haren jatorrizko ideiak dio giza ekintzak behar unibertsalak asetzeko saiakerak direla. Indarkeria-ezaren arabera, komunikatzeko moduak eragin nabarmena izan dezake gizarte-harremanetan eta gatazken konponbidean.

IEK erabiltzen duten pertsonak zer gertatzen den eta nola sentitzen diren behatzen dute, eta gai dira sentimendu horiekin zerikusia duten berezko beharrak identifikatzeko, adierazteko eta, azkenik, eskaera zehatzak egiteko.

IEKren mamia kontzientzia erreflexiboa da, eta lau osagai ditu: behaketa, sentimendua, beharrak eta eskaera.

IEKn trebatzeak beste pertsonekin eta norberarekin konektatzeko aukera ematen die pertsonari, eta haien berezko errukia azaleratzen uzten die. Judizio eta arau estatikoetan oinarritutako mentalitatea baztertzen du, eta adierazpen zintzoaren, lankidetzaren eta entzute enpatikoaren bidez bilatzen du alderdi guztien gogobetetasuna.

6.2.2. Galdera errestauratiboak

Gatazkei heltzeko metodologia honen funtsa hainbat galdera dira, eta modu zuzen, hurbil eta afektiboan egiten dira, pertsonari gatazkaren eragina kudeatzen laguntzeko. Banakako elkarriketetan egiten dira galdera horiek, eta orientatzeko eta entzute aktiboan entrenatzeko balio dute aldi berean.

- Zer gertatu da? Zer gertatu zen?
- Zertan pentsatzen ari zinen hori gertatu zenean eta, beraz, nola sentitzen zinen? (orduan, orain eta orduez geroztik).
- Nori eragin dio? Nola?
- Zer behar duzu aurrera jotzeko/erreparatzeko? (ofentsagilea).
- Zer behar duzu aurrera jotzeko eta erreparatuta sentitzeko? (kaltea jasan duen pertsona).
- Zer egin dezakezu behar horiei erantzuteko eta erreparatzeko? (ofentsagilea)
- Zer gertatzea nahi zenuke, behar horiei erantzuteko eta erreparatuta egoteke? (kaltea jasan duen pertsona)

(ikus, halaber, 6.2.4)

6.2.3. Coachinga/aholkularitza errestauratiboa

Coachinga aholkularitza-prozesu profesionala, interaktiboa eta pertsonalizatua da, eta helburu pertsonalak lortzen, haien potentziala maximizatzen eta errendimendua hobetzen laguntzen die pertsonai. Gure testuinguruan, baliagarria izan daiteke intentsitate txikiko interakzio gatazkatsuetarako. Pertsonak laguntza txiki batekin egoera gatazkatsua gainditu dezaketela uste dutenean eta, gainera, hautemandako kaltea oso arina denean, orduan da aproposa jardunbide hori. Bidelagun aritu ahala deskubritzen dira helburuak eta soluzioak, eta galdera errestauratiboak baliatzen dira horretarako.

Coaching edo aholkularitza egitean, banakako zeregin psikosozial bati ematen diogu lehentasuna: gatazkaren protagonista batek bere bizitzaren agintea hartzean hobetu nahi du, aldatzeko eta ekintza berriak hautatzeko erantzukizunetik abiatuta.

6.2.4. Elkarriketa errestauratiboak (bideratzailerik gabe)

Elkarriketa errestauratiboak praktika informala dira. Ez dute bideratzaile propiorik; aitzitik, gatazka edo gertakari baten protagonistei dagokie, galdera errestauratiboak erabiliz, zer gertatu den, zer pentsatzen duten, nola sentitzen diren, egoerak nola eragiten dien, zer behar duten eta zer egin dezaketen bateratzea. Horretarako, galderak eta entzute errestauratiboaren teknikak erabiltzeko prestakuntza laburra behar da.

6.2.5. Bilera errestauratibo espontaneoak (bideratzaile informala)

Bilera informalak dira, aldez aurretik planifikatu gabekoak. Autoritatea edo eragina duen pertsona batek deitzen ditu, indarkeriak gora egin ez duen gai gatazkatsu bat konpontzeko.

Hitzezko interakzio txiki iraingarrirei, eztabaidei, tentsioei edo ondoezei erantzuteko balio dezakete.

Erantzun goiztiarra eta arina da, eta adierazpen afektiboa, elkar ulertzea eta gertatzen ari denarekiko enpatia bilatzen ditu. Bilera amaitzeko, alderdien akordioak eta konpromisoak zehazten dira. Protagonisten gertuko pertsona batek bideratu dezake, prestakuntza espezifiko bat jaso ondoren.

6.3. Prozesu errestituratio erresponstibo formalak (3. maila)

Prozesu errestituratioak prozesu erresponstiboak dira berez, eta bateragarriak eta osagarriak dira diziplina-sistema formalekin eta zehapen zehatzekin. Langile gaituak eta trebatuak behar dira horrelako kasuetan.

6.3.1. Bitartekaritza errestituratioa

Biktimaren eta ofentsagilearen arteko Bitartekaritza Errestituratioak aukera ematen die biei aurrez aurre (edo zeharka) egoteko, inpaktuari buruz hitz egiteko eta erreparazio-plan bat garatzeko. Esku-hartze errestituratio zaharrena eta enpirikoki garatuena da. Metodo hori eremu seguru eta egituratu batean gauzatzen da, eta ofentsaren inpaktua jasotzea eta berau erreparatzea du helburu. Hori guztia bideratzaile aditu baten laguntzaz.

Bitartekaritza errestituratioan zehar, zenbait fasetatik eta mugimendutatik igarotzen dira parte-hartzaileak, honako sekuentziaren arabera: harrera, prestaketa, kontakizunak eta elkarriketa, galerei buruzko eztabaida, erreparatzeko aukerak sortzea, erreparazio-akordioa zehaztea eta itxiera (Olalde, 2017).

Gogoan izan behar dugu bitartekaritza errestituratioa ez datorrela bat MASCKekin (eztabaidak konpontzeko baliabide

egokiak) lotutako bitartekaritzarekin. Kalte zehatzekin lotutako indarkeria-egoerei aurre egiten zaienean, gure ustez, MASC bitartekaritzaren paradigma ez da baliagarria, eta ez du errespetatzen alderdien arteko desoreka morala.

Ikuspegi errestitutiboa bidegabekeriaren inguruan kokatzen da beti, eta ez da moralki neutro agertzen haren aurrean. Prozesu errestitutiboetan, biktimak eta biktimagileak ez daude maila moral berean, eta ez dira gatazkaren ko-erakitzaileak. Ez da inplikaturako pertsonen esperientzia erlatibizatzen, ezta zalantzan jartzen ere; biktimen kasuan, bereziki.

Literatura espezializatuak adierazten du unibertsitatean gero eta eszeptizismo handiagoa dagoela MASC bitartekaritzari dagokionez, eta dagoeneko ez dela uste gaitz guztiei erantzuteko bidea denik. «Epe luzera, MASC bitartekaritza aproposa izan daiteke berdinen artean, “ko-erakitako” gatazkak konpontzeko eta epe luzera harremana izateko itxaropena dagoenean, baina argi geratu da, halaber, ikuspegi horrek muga latzak dituela kalte bat sortu denean eta botere asimetria garrantzitsuak daudenean» (Hernandez, 2023:62). Ikuspegi errestitutiboa, ordea, asimetria moraleko egoeretan erabiltzeko sortu zen.

6.3.2. Zirkuluak

Zirkuluak, hasiera batean, kaltetutako komunitateko kideen arteko adostasun zabala garatzeko diseinatu ziren. Kultura aborigenak dituzten herrialdeetatik datoz, eta inplikaturako alderdi guztiak sendatzea eta ofentsagileari kaltea erreparatzeko aukera ematea dute helburu. Biktimak, komunitateko kideak, senideak eta ofentsagileak ahaldundu nahi dituzte, hitza baliatuz eta irtenbide erakitzaileak bilatzeko erantzukizuna partekatuz; jokabidearen azpiko kausetarantz joan nahi dute; komunitate sentimendu bat eraiki eta gatazkak konpontzeko gaitu nahi dute; eta, azkenik, balio komunitarioak sustatu eta partekatu.

Bilera errestitutiboekin alderatuta, esan daiteke zirkuluak ia beti komunikazio sekuentziala izaten duela eta hitzezko objektu

izeneko bat erabiltzen duela. Objektu horrek ematen dio hitza objektua eskuetan duenari.

6.3.3. Bilera errestauratiboak

Kalte larria eragindako jokabide baten eragina jaso duten pertsonen arteko topaketak dira. Foro edo eztabaidagune bat dira, eta aukera ematen diete ofentsagileari, biktimei eta beren laguntzaileei gertakariak eragindako kaltea erreparatzeko eta etorkizuneko kalteak minimizatzeko moduak bilatzeko (Guardiola et al., 2012).

Bilera errestauratiboari esker, ofentsagileek uler dezakete zer eragin izan duten beren jokabideek beste pertsona batzuegan, beren buruarengan eta komunitate osoan. Era berean, biktimari aukera ematen dio, batetik, berak jasotako eragina azaltzeko eta bere kaltea nola erreparatu nahi duen erabakitzen laguntzeko, eta, bestetik, pertsona ugariren arreta jasotzeko.

Bilera errestauratiboak oso prozesu egituratuak dira. Fase jakin batzuei eta, kasu askotan, gidoi bati jarraitzen diote.

6.3.4. Biktima-inpaktuari buruzko panelak

Kaltetuak ez badira eroso sentitzen kaltea eragin duen pertsonarekin zuzenean arituz, antzeko esperientziak izan dituzten biktima subrogatzaileez (ordezkoez) osatutako panelak abian jartzeko aukera planteatu daiteke, baldin eta bizipena beren biktima-ikuspegitik eraginkortasunez komunikatzeko gai badira.

Interakzio komunikatibo horien helburua da biktimak jasandako eragina ofentsagilearengana helaraztea, hala banaka nola taldean. Hiruzpalau biktimak parteka ditzakete beren bizipenak, epairik eta estigmatik gabeko testuinguru batean.

Panelak aukera ematen diete ofentsagileei beren jokabideek kaltetuengan edo kaltetutako komunitateengan nola eragin duen ulertzeko. Kaltetuei eremu komunikatibo seguruak ematen dizkiete, eraginen ezaugarriak (fisikoak, materialak, psikologikoak edo espiritualak) adierazteko.

Unibertsitatean panelak eraikiz, gertuko komunitateek (ikasgela, fakultatea, ikerketa-institutuak, laborategiak, campusa, egoitzak) aukera izanen dute biktimei espazio egituratueta, zaindueta eta komunikatiboki babestuetan entzuteko, eta horrek erreparazio sinbolikoak egiten lagundu dezake.

6.4 Zehapenaren ondoko prozesu errestituratioak (3. maila)

Zehapenak zehazteak eta ezartzeak ez du prozesu errestituratioerik oztopatzen. Zehapena betetzen ari den bitartean, baliteke prozesu errestituratioer premia sortzea, bai eraso egin zuten pertsonengan, bai kaltetuengan, baita kaltetutako komunitateetan ere.

6.4.1. Prozesu errestituratio berrintegratzaileak

Prozesu errestituratio berrintegratzaileak gertakaria gertatu ondoren jartzen dira abian, Unibertsitateko komunitatetik edo talde edo unitatetik tarte jakin batez banantzeko (kanporatzeko) diziplina-neurriak hartu eta gero. Haien helburua da eraso gauzatu duten pertsonen itzulera prestatzea eta, era berean, itzulera horrek biktimengan eta komunitateetan eragin ditzakeen beharrei erantzutea.

6.4.2. Berriz sartzeko zirkuluak

Zirkulu horiek esku-hartze psikosoziala eskaintzen dute, zigortutako pertsona unibertsitatetik urrun dagoen bitartean. Campuserako itzulera prestatzeko aukera ematen dute, eta trantsizio-planak eraiki ditzakete aldi baterako kanporatu zituzten lekura itzultzeko.

Berriz sartzeko zirkuluak lagungarriak izan daitezke biktimentzat. Erasotzailearen itzulera hipotetiko edo errearen aurrean, eremu partekatuetan seguruago sentitzen lagundu diezaiekete, eta beste behar batzuk identifikatzen ere bai.

Baliteke berriz sartzeko zirkuluak kaltea erreparatzeari ez heltzea, eta haren jomuga ikasgelara itzultzea izatea, eraso egin zuenak eta eraso jasan zuenak eremu bera partekatuko baitute. Zirkuluak bidegabekeriak aireztatzen eta zintzilik zeuden irainak garbitzen lagun dezake. Pertsona hori hartzen duen komunitatea nola sentitzen den egiaztatzen lagundu dezake, baita ofentsagileari unibertsitatean berrintegratzen ere.

Komunitate hartzaileak entzun dezake eraso egin zuenak erantzukizuna bere gain hartu duela eta moralki ulertu duela. Ofentsagileak kanporatuta egon den artean gertatu zaiona partekatzeko aukera du, eta gertaerak berriro gerta ez daitezen abian jarritako estrategia pertsonalak eta arau komunitarioak errespetatzeko konpromisoa parteka ditzake.

Era berean, kaltetutako komunitateetan dauden beharrak entzuten lagundu dezakete.

7. Ehun ekintza Kultura Errestauratiboaren Plan Zuzentzaile (CURE) baterako

1. Ardatz Zuzentzailea: Gobernantza.
1.1. Ekintza-lerroa: Gobernantza estrategiko errestituriboa.
1.1.1. Ekintza: Unibertsitateko gatazen prebentzioarekin eta tratamenduarekin lotutako datuak (defentsa-erakundea, ikuskaritza, bizikidetzat batzordea eta beste iturri batzuk) batera biltzea eta aztertzea (kuantitatiboki eta kualitatiboki), diagnostikoak egiteko.
1.1.2. Ekintza: Lehen diagnostiko bateratua egitea, unibertsitateko gatazen prebentzioarekin eta tratamenduarekin lotutako datuen analisisan oinarrituta.
1.1.3. Ekintza: Unibertsitatean gertatzen diren gatazka-motak prebenitzeko eta kudeatzeko zer-nolako egitura dagoen aztertzea.
1.1.4. Ekintza: Logika errestituriboa transbertsalki definitzea, onartzea eta integratzea unibertsitatearen, ikastegien eta egituren Plan Zuzentzailean.
1.1.5. Ekintza: Kode etikoa eta bizikidetzako araudietan berariaz sartzea balio transbertsal hauek: erantzukizuna hartzea, indarkeria-eza eta kaltea erreparatzea.
1.1.6. Ekintza: Gatazkak Errestauratiboki Lantzeko Programa (ARCO) sortzea onartzea.
1.1.7. Ekintza: Aurrekontuan partida espezifikot bat sartzea Unibertsitate Errestauratiboen erdua ezartzeko.
1.1.8. Ekintza: Baliabideak erakartzeko plan espezifikot bat egitea eta ezartzen hasia, bizikidetzan eta gatazkaren kudeaketa errestituriboa gaikuntza indartzeko.
1.1.9. Ekintza: ARCO programaren ezarpenari buruzko jarraipen-txostena egitea.
1.1.10. Ekintza: ARCO programaren ezarpenean parte hartzeko pizgarrien programa diseinatzea.

1.2. Ekintza-lerroa: Logika errestituritiba txertatzea LOSUren araudira egokitze ko prozesuan.
1.2.1. Ekintza: Logika errestituritiba unibertsitatearen estrategia propio gisa ezartzeko txostena, LOSUn adierazitako erro nka sozialei erantzute ko.
1.2.2. Ekintza: Estatutuak berrikustea, balio eta logika errestituritiba txertatuz.
1.2.3. Ekintza: Logika errestituritiba txertatzea unibertsitateko kudeaketa-unitateen eskumenetan eta zereginetan.
1.3. Ekintza-lerroa: Gatazkak erreparatzeko eta bizikidetz a indartzeko gaitasuna duen irudi eta ospe instituzionala bultzatzea.
1.3.1. Ekintza: Kode etikoa/bizikidetz a-arauak argitaratzea eta unibertsitateko komunitatean zabaltzea, nortasun korporatiboaren seinale gisa.
1.3.2. Ekintza: Gatazkak konpontzeko mekanismoei/instantziei buruzko informazioa argitaratzea eta unibertsitateko komunitatean zabaltzea.
1.3.3. Ekintza: Kode etikoa/bizikidetz a-arauak hedatzeari dagokionez, ikastegi edo egitura bakoitzarentzat baliabide espezifikoak prestatzea, irudi instituzionala indartzeko.
1.3.4. Ekintza: Sare sozialek arduraz maneiatzeko gomendioen gida bat idaztea, kode etikoaren balioekin bat etorrit.
1.3.5. Ekintza: Unibertsitateko komunitateko zerbitzuekin aldi zakako bilerak egitea, Gatazkak Errestituritiba Lantzeko Programaren (ARCO) ezarpena eta jarraipena bultzatzeko eta koordinatzeko.
1.3.6. Ekintza: Merchandising erakargarria diseinatzea, kode etikoaren balioak ikusaratzeko.
1.3.7. Ekintza: Bannerra eta webgune irisgarri eta eleaniztuna sortzea, Gatazkak Errestituritiba Lantzeko Programaren (ARCO) berri emateko.
1.3.8. Ekintza: Unibertsitatearen irudia bultzatzea, bizikidetz a indartzeko eta gatazkak errestituritiba prebenitzeko eta lantzeko ikergune gisa.

1.4. Ekintza-lerroa: Gatazkaren kudeaketa errestauratiboa, arina eta eraginkorra.

1.4.1. Ekintza: Gatazkei erantzuten dieten zerbitzuen funtzionamendua aztertzea: tipologia, baliabideak, protokoloak, prestakuntza, taldekatzeko aukerak, beste behar batzuen detekzioa.

1.4.2. Ekintza: Gatazkak kudeatzeko sistema integral baten ezarpenean aurrera egitea, baina ez prozesuetan edo unitateetan oinarrituta, pertsonengan baizik.

1.4.3. Ekintza: Lehen arretako, triajeko eta jarraipeneko leiho bakarra diseinatzea, ARCOri buruzko informazioa emateko eta dauden baliabideak optimizatzeko.

1.4.4. Ekintza: Unitate eta zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzea, haien arteko barne-komunikazioa hobetuz.

1.4.5. Ekintza: ARCOri buruzko informazioa Ikasleentzako Zerbitzuen Esparru Kartan txertatzea.

1.4.6. Ekintza: ARCO txertatzea Ikertzaileei, Administrazioako eta Zerbitzuetako langileei eta Irakasle Ikertzaileei ongietorria emateko Gidetan.

1.4.7. Ekintza: Sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzea unibertsitatean gatazkak prebenitzen jarduten duten eragile guztiei.

1.4.8. Ekintza: Gatazkak kudeatzeko prozesuei buruzko guztia informatizatzen jarraitzea, gatazkak kudeatzeko zerbitzu integralaren beharrak eta unitateak aintzat hartuta.

1.5. Ekintza-lerroa: 2030 Agenda txertatzea (4.7 GJHa eta 16 GJHa _ Gizarte justuak eta baketsuak).

1.5.1. Ekintza: Unibertsitate errestauratiboaren adierazleak txertatzea 16. GJHaren aurrerapausoetan.

1.5.2. Ekintza: Martxoaren 11 Terrorismoaren Biktimen Europako Egun gisa sartzeko urteko egutegian (Europako Batzordearen proposamena, memoria sendotzeko eta indarkeria ez errepikatzeke eta deslegitimatzeko konpromisoa indartzeko).

1.5.3. Ekintza: Unibertsitateko indarkeriazko gertakariei erantzuteko protokolo bat diseinatzea eta onartzea.
1.5.4. Ekintza: Maiatzaren 16a Bakean Elkarrekin Bizitzeko Nazioarteko Egun gisa txertatzea urteko egutegian (Nazio Batuen proposamena).
1.5.5. Ekintza: Unibertsitate Errestauratiboekin lotutako adierazleak eta ekintzak txertatzea Universidad_Agenda 2030 webgunean.
2. Ardatz Zuzentzailea: Komunitatea eta Unibertsitateko Bizitza.
2.1. Ekintza-lerroa: Unibertsitateko Bizikidetzari buruzko Legearen aplikazioa ezartzea, logika errestituratuaren arabera.
2.1.1. Ekintza: Unitateak prestatzea eta gaitzea, logika errestitutibora egokitzeko.
2.1.2. Ekintza: Ikuspegi errestitutiboa txertatzea Bizikidetzara Aukaria abian jartzeko prozesuan.
2.1.3. Ekintza: Gatazkak Errestauratiboki Lantzeko Programa (ARCO) diseinatzea eta onartzea.
2.1.4. Ekintza: ARCO Programaren ezarpenaren jarraipen-txosten bat egitea.
2.1.5. Ekintza: Bizikidetzako/ARCOn erreferenteak izendatzea ikastegi bakoitzean (instituzionalizazio txikiko profilekin).
2.1.6. Ekintza: Talde eragileak abian jartzea ikastegi bakoitzean (instituzionalizazio txikiko profilekin).
2.2. Ekintza-lerroa: Ikasleek unibertsitateko bizitzan errestitutiboki parte hartzeko gaikuntza.
2.2.1. Ekintza: Logika errestitutiboa eta ARCO programa sustatzea, Ikasleen Kontseiluarekin koordinatuta.
2.2.2. Ekintza: Talde eragile errestitutibo bat abian jartzea ikasleen artean.
2.2.3. Ekintza: Ikasleek kudeatutako ARCO jardueren egutegi bat sortzea.
2.2.4. Ekintza: Gatazkak prebenitzen eta hautematen lagunduko duten itemak eranstea Ikasleen gogobetetze-inkestan.

2.3. Ekintza-lerroa: Identitatea eta elkarren kide izatearen sentimendua sustatzea, gatazkak prebenitzeko faktore gisa.

2.3.1. Ekintza: Elkarrekiko konfiantza sustatzen duten jarduerak sortzea kolektiboen artean (ikasleak, PDIF, irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL langileak) .

2.3.2. Ekintza: Laguntza sozioemozionaleko zerbitzua sortzea/indartzea unibertsitateko kideentzako.

2.3.3. Ekintza: Bizikidetza-balioak sustatzen dituzten ekitaldi kultural irekiak sustatzea.

2.3.4. Ekintza: Unibertsitateko komunitateari elkarriketa eta topaketa errestauratiboak ahalbidetuko dituzten espazioak ematea.

2.4. Ekintza-lerroa: TEKAZEL langileak antolatzea, birkualifikatzea eta motibatzea.

2.4.1. Ekintza: Gatazkei aurre egiteari eta logika errestauratiboari buruzko ikastaroak txertatzea TEKAZEL langileen prestakuntza-planean.

2.4.2. Ekintza: TEKAZEL langileak sustatzea, gatazkak prebenitzeko funtsezko eragile gisa.

2.5. Ardatz Zuzentzailea: Bikaintasun Campus bilakatzea jasangarritasun sozialari dagokionez.

2.5.1. Ekintza: Gatazkak Errestauratiboki Konpontzeko Programaren (ARCO) partaidetza zabaltzea eta sustatzea alor guztietan.

2.5.2. Ekintza: Espainiako Crue Unibertsitateetako Bizikidetza Batzordeen Sarearekin (REDCCU) lankidetzan aritzea, haren kanpainak, jardunbide egokiak eta gomendioak ezartzeko.

2.5.3. Ekintza: Laguntza psikoemozionaleko programa garatzea, errektoreordetza eta unitate eskudunekin elkarlanean.

2.5.4. Ekintza: Osasuna Sustatzen duten Unibertsitateen Espainiako Sarearekin (REUPS) lankidetzan aritzea, gatazken prebentzioan eragina duten jarduera osasungarriak zabaltzeko kanpainetan.

2.5.5. Ekintza: Osasun mentalerako ohitura egokiei buruzko prestakuntza-ikastaroak diseinatzea eta abian jartzea irakasleentzat, TEKAZEL langileentzat eta ikasleentzat.

2.5.6. Ekintza: Bizikidetza sendotzearen inpaktu-irizpidea txertatzea eraikinen analisi funtzionalean eta espazioen antolaketan.
2.5.7. Ekintza: Ikastegietan bizikidetza sustatzeko espazioak diseinatzea eta hornitzea, eta lehendik dauden espazio komunak egokitzea.
